

euskal estatuari

bidea zabaltzen



herritartasuna eta kultura



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EUSKAL
ESTATUARI
BIDEA ZABALTZEN

herritartasuna eta kultura

Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal **Unibertsitatea**



Egilea: Ipar Hegoa Fundazioa

Laguntzailea: Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 978-84-8438-422-9

Lege-gordailua: BI-1289-2012

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo

Azalaren diseinua: Ipar Hegoa Fundazioa

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:

Ipar Hegoa Fundazioa

Alameda Rekalde 62-behea 48010 Bilbo telf. 944706915

Helbide elektronikoa: iparhegoafundazioa@labsindikatu.org

Udako Euskal Unibertsitatea

Erribera 14, 1. D 48005 Bilbo telf. 946790546 Faxa. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org / www.ueu.org

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.
- Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.

Aurkibidea

AURKEZPENA, <i>Ipar Hegoa Fundazioa</i>	5
---	---

Euskal Estatua eta herritartasuna

SARRERA, <i>Txoli Mateos González</i>	9
1. ESTATUAZ, HERRITARTASUNAZ ETA NAZIO-IDENTITATEAZ, <i>Julen Zabalo Bilbao eta Txoli Mateos González</i>	13
2. HERRITARTASUNA, IMMIGRAZIOA ETA EUSKAL ESTATUA, <i>Iker Iraola Arretxe</i>	27
3. ESTATUA, HEZKUNTZA ETA EUSKAL HERRITARRAK, <i>Txoli Mateos González</i>	45
4. HERRITARTASUNA GOGOETA ETA PRAKTIKA FEMINISTAN, <i>Mila Amurrio Vélez</i>	61

Euskal Estatua eta kultura

SARRERA, <i>Ane Larrinaga Renteria</i>	81
1. KULTURA ESTATU-ERAIKUNTZAN: ESTATUA PROIEKTU SINBOLIKO GISA, <i>Ane Larrinaga Renteria</i>	85
2. ESTATUA, MERKATUA ETA KULTURA: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK, <i>Josu Amezaga Albizu</i>	101

3. EUSKAL KULTURAREN ADIERAZPIDEAK: SENDOTASUNAK ETA AHULTASUNAK BALIZKO EUSKAL ESTATU BATEN AURREAN,
Patxi Juaristi Larrinaga..... 115
4. EUSKAL HERRIAREN HEZKUNTZA-ESKUBIDEAK. EUROPAKO ZENBAIT HEZKUNTZA-EREDU AZTERGAI,
Fito Rodríguez Bornaetxea..... 131
5. EUSKARAREN EGOERA ETA BILAKAERA XXI. MENDEAREN HASIERAN: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK,
Iñaki Mtz de Luna Pérez de Arriba 151

AURKEZPENA

Ipar Hegoa Fundazioa

IPAR HEGOA Fundazioaren helburuen artean, Euskal Herriarentzat interesa duten gai politiko eta sozialei buruzko azterketak eta hausnarketak egitea dago, horien inguruko eztabaidak sustatzeaz batera. Ildo horretatik, Euskal Herriaren bideragarritasun politikoaz etengabe hitz egiten den aro honetan, IPAR HEGOA Fundazioak bere ekarpena egin nahi izan dio gaiari. Izan ere, Euskal Herria lurraldez herri txikia dela esaten da; globalizazio-aro honetan zentzurik ez dutela zatiketa-prozesuek; denon arteko elkarlana eta ulermena bilatzen den garai honetan, independentzia aldarrikatzeak bereizketa sortzen duela herritarren artean, eta abar. Argudio egoki eta pisuzkoak erabiliz askotan, asko dira gaur egun estaturik ez sortzeko aipatzen diren faktore eta iritziak. Baina hori jakinda ere, hor ari dira milaka herritar estatua eskatzen. Ez da haiena ere argudio egoki eta pisuzkoa?

Modu batean edo bestean, oraingo nazioarteko testuinguruan, estatua da erabaki politikoak hartzeko ahalmen osoaren adierazpen nagusia. Horregatik, gaurko Euskal Herrian, oraingo testuinguru politikoan, oso interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu, Euskal Estatu bat European eraikitzeari begira, onura, aukera, mehatxu eta gabezien inguruko hausnarketa kolektibo bat egitea, hainbat alor jorratuz: politika, alor instituzionala, lurraldea, sozioekonomia, hizkuntza, kultura, identitatea, eta abar.

IPAR HEGOA Fundazioak dauden baldintza guztiak kontuan hartu, eta Euskal Estatu bideragarria den jakin nahi izan du. Horretarako, gaian adituak diren irakasle eta ikertzaileak batu ditu horretan sakontzeko. Badakigu beste aditu asko ere badagoena, ekarpen ezin interesgarriagoak egin dituztenak askotan. IPAR HEGOA Fundazioaren helburua ez da izan, ordea, aditu guztien ekarpenak jasotzea, edo ordezkaritza orekatua lortzea jakintza-arloka edo herrialdeka. Ez dugu bilatu, bestalde, ikuspegi homogeneorik. Ez da izan hori IPAR HEGOA Fundazioaren asmoa. Aitzitik, egileek askatasunez hitz egin dute, Euskal Estatuaren beharra eta bideragarritasuna azpimarratzeko ideia orokorrari eutsiz, baina hortik aurrera jarrera eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeela jakitun.

Horrela egin dugu, lanaren helburua ez delako Euskal Estatuaren konstituzio bat eraikitzea, edo Euskal Estatuak nolakoa izan beharko lukeen ezartzea. Helburua xumeagoa da, ordea, eta hein berean, erabakigarria: Euskal Estatu bideragarria da? Mereziko luke Euskal Estaturik osatzea? Euskal herritarrek ontzat joko lukete proiektua? Oinarritzko galdera hauei erantzunda, eta erantzuna positiboa izaki, bigarren aldi baterako geratuko lirateke errenkan etorriko liratekeen galdera berriak, oro har, Euskal Estatu zertarako galderari erantzun beharko lioketenak.

IPAR HEGOA Fundazioak zinez uste du azterlan honek interes horri erantzun diezaiokela eta, diziplina anitzeko ikuspegia baliatuz bertan biltzen diren gogoeten bidez, lagungarria izan daitezkeela Euskal Herria oraingo nazioarteko testuinguruan

bistaratzeko eta hor kokatzeko; halaber, konparazioak egitearen bidez, lagungarria izan daiteke gaur egun estatuak osatzen dituzten eremuetan Euskal Herriaren posizio absolutu eta erlatiboa ezartzeko munduan.

Gure ustez, azterlan honetan jasotako ekarpen teoriko interesgarriak balagarriak izango dira Euskal Estatuaren errebindikazioa edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat itxuratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Izan ere, IPAR HEGOA Fundazioak uste du hori dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta planteatu nahi du Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, estatu bat Europako estaturen multzoan sortzeko.

Hortaz, **EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN** izenburupean aurkezten dugun azterlan honen bitartez, IPAR HEGOA Fundazioak ekarpen kualifikatu bat egin nahi dio Euskal Estatu eraikitze beharrari eta horren bideragarritasunari. Hiru liburutan banatu dugu azterlana, sailkatu dugun hiru gai-arloen arabera: **Herrigintza eta erakundeak, Herritartasuna eta kultura, eta Lurraldea eta sozioekonomia**. Bigarrenaz dihardu, hain zuzen ere, liburu honek.

HERRITARTASUNA aztertzeraz zuzendutako atalean, **Txoli Mateosek eta Julen Zabalo** diote ulergarria dela gutxitan hitz egitea gure gizartean euskal *herritartasunaz*, betebeharrak eta eskubide multzo hori estatuari loturik joaten baita. Estaturik ezean, hau da, erabakitzeko ahalmena murrizta denean, apalago garatzen dira herritartasunaren inguruko eztabaidak, beste gizarte batzuetan indar biziz soma daitezkeen ika-mikak, alegia. Atal honetan, balizko Euskal Estatu baten zeregin demokratikoarekin batez ere lotu dute herritartasuna. Demokraziaz eta herritar demokratikoez hitz egiten dute, beraz, baita euskal herritarren arteko lokarriak indartze aldera sustatu beharreko kultura politiko berriaz ere.

KULTURARI buruzko atalean, **Ane Larrinaga** koordinatzaileak dioenez, euskal kulturak estaturik gabe nozitzen dituen gabeziak azaleratzeaz gain, balizko estatu batek kulturaren ikuspegitik euskal gizarteari ekarriko lizkiokkeen ustezko onurei buruzko gogoeta egin nahi izan da. Horretarako, estatuaren eginkizun kulturaletan jarri da arreta, baita zeregin horietan azken garaiotan gertatu diren aldaketetan ere. Bestalde, Euskal Estatuaren lortze bidean kulturaren esparruan egon daitezkeen ahulgune eta indargune batzuk ere identifikatu nahi izan dira, eta, nolahi ere, estatu horrek askatu beharko litzuzkeen korapiloak atzeman.

Bukatzeko, IPAR HEGOA Fundazioak bere nahia adierazi nahi du azterlan honi lotuta, hau da, espero du Euskal Estatu eraikitze ikuspegiari buruzko ekarpen gehiago eta berriak sortuko dituen bide emankor baten hasiera baino ez izatea. Horrekin batera, zinez eskertu nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen erakutsitako interesa, baita eskainitako denbora eta egindako ekarpenak ere. Eskerrak, beraz, atalaren koordinatzaile izan diren **Julen Zabalo, Txoli Mateos** eta **Ane Larrinagari**, eta eskerrak egile guztiei ere.

Euskal Estatua eta kultura

*Ane Larrinaga Renteria
Josu Amezaga Albizu
Patxi Juaristi Larrinaga
Fito Rodríguez Bornaetxea
Iñaki Mtz. de Luna Pérez de Arriba*

Sarrera

Ane Larrinaga Renteria, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Kulturaren auzia garrantzitsua da estatu-eraikuntzan, nazio-eraikuntzan den bezalaxe. Oro har, kulturak gizarte-kohesioa lortzeko eta, horrenbestez, identitate kolektibo partekatua osatzeko baliabideak eskaintzen dituela esan daiteke. Azken finean, kulturak birsortzeko eta bizirauteko bideak ematen dizkio bere burua halakotzat duen edozein gizarte-talderi. Ideia horretatik abiatuz gero, kulturari buruzko azterketa orok uzten dizkigu agerian kulturak boterearekin dituen loturak. Izan ere, kulturalki nahiz sozialki modu egokian birsortu nahi badu gizarte-taldek batek, kultura-subiranotasun maila jakin baten jabe izan behar du gure aroan, alegia, baliabide sinboliko batzuk kudeatzeko, arautzeko, sortzeko eta babesteko ahalmena —boterea— izan behar du. Azken aldi honetan haren rola zalantzan dagoen arren, estatua dugu burujabetasun hori politikoki ahalbidetzen duen instituzioa. Eta, hain zuzen ere, birsortze sozialerako nahiz kulturalerako ezinbesteko erremintatzat jota, beretzat aldarrikatzen dute instituzio hori estaturik gabeko hainbat nazio-taldek.

Estatuen desagertzea iragarri dutenen aurrean, begi-bistako ebidentzia da munduan estatu berriak sortzen ari direla etengabe, horretarako aukera politikoak irekitzen diren uneetan behinik behin. Ildo horretatik, komeni da gogora ekartzea Europar Batasuneko hogeita zazpi kideetatik bost joan den mendeko 90eko hamarkadan sortutako estatuak direla. Eta munduan dauden estatuak berrogeita hamar izatetik XX. mendearen hasieran, berrehun izatera igaro direla XXI. mendearen hasieran. Hala ere, datu horien gaintik, honako ideia hau nabarmendu nahi dugu: estatu-sorrerak aztertzeko sortutako eredu teorikoen berrikusketa egin ondoren, estatu batzuen desintegrazioa —eta ondorengo estatu berrien sorrera— azaltzen duten elementu esplikatzaile komunen katalogoa ezartzean, faktore ekonomiko, instituzional eta politikoekin batera, identitateari lotutako osagai kulturalak —hizkuntza, kultura— atzematen dira aldaketarako faktore erabakigarrien artean (López, 2010)³². Hala, badirudi estaturik gabeko taldeen baitan egon badagoela oraindik ere estatuaren eraginkortasun kulturalen jarritako uste oso bat.

Ondoko orrialdeetan euskal kulturak estaturik gabe nozitzen dituen gabeziak azaleratzeaz gain, balizko estatu batek kulturaren ikuspegitik euskal gizarteari ekarriko lizkiokeen ustezko onurei buruzko gogoeta egin nahi izan da. Horretarako, estatuaren eginkizun kulturaletan jarri da arreta, baita zeregin horietan azken garaiotan gertatu diren aldaketetan ere. Bestalde, Euskal Estatuaren lortze bidean kultura-esparruan egon daitezkeen ahulgune eta indargune batzuk ere identifikatu

32. Lopez, J. (zuz) (2010): "Noves Estatualitats i Processos de Sobirania", *IDEES. Revista de Temes Contemporanis*, 33 (2010eko urria-abendua), 1-230.

nahi izan dira, eta, nolana ere, estatu horrek askatu beharko lituzkeen korapiloak atzeman. Gogoeta horiek artikulu desberdinen bidez landu dira. Artikulu multzoa izanik, bai jorratutako gaien aldetik bai aurkeztutako ikuspuntu teorikoen aldetik, atal horietako bakoitzak gogoetagine berezia eta berariazkoa osatzen du. Halaz ere, ikuspegi poliedriko guztien gainetik, badago lan guztiak zeharkatzen dituen hari eroale argia: estatuaren inguruko jakin-nahia eta hausnarketa kulturaren ikuspegitik.

Horrenbestez, Euskal Herriko errealitate kulturalaren azterketa abiapuntutzat hartu eta gaur egun mundu teorikoan eztabaidagai diren auzi garrantzitsuetan arreta jarririk, hainbat gai jorratzeari ekin zaio ondoren datozen testuetan: estatuaren botere sinbolikoaren nondik norakoak, globalizazioak, kultura-merkatuen garapenak eta kultura-jario transnacionalek estatuaren kultura-subiranotasunean eragindako ondorioak, euskal kulturaren adierazpideen azterketa, euskal hezkuntza-sistemari buruzko gogoeta eta euskararen egoeraren diagnostikoa, besteak beste, aztertu dituzte Ane Larrinaga, Josu Amezaga, Patxi Juaristi, Fito Rodríguez eta Iñaki Martínez de Luna irakasleek. Ikusi ahal izango denez, aipaturiko gai horiek guztiek alderdi unibertsal bat dute eta, hortaz, azterketak funts teorikoz jantzirik daude. Aldi berean, dimentsio historiko partikularra hartzen dute Euskal Herriko testuinguru jakin honetan. Hartara, gaien alderdi unibertsala eta alderdi partikularra, ikuspegi teorikoa eta enpirikoa, uztartzeko ahalegina aurkituko da artikulu bakoitzean, zenbaitetan lehenengoa eta beste zenbaitetan bigarrena nagusituko delarik testuen arabera.

Globalizazio-prozesuaren ondorioek estatuaren burujabetasunaren galeraren auzia plazaratu duten arren, **Ane Larrinagak** nabarmentzen du desagertu ez ezik, estatuak bestelako roletara egokitzen ari direla gaur egun, bereziki arlo ekonomikoari dagokionez. Eginkizun kulturalari buruz, bestalde, egileak uste du estatuak kultura-baliabideen metaketa monopolistikoa izan dutela helburu sorreratik aurrera, nazio-estatu izateko proiektuarekin sortu baitziren. Gaur egungo baldintzek izaera monopolistikoa hori hautsi dute, baina ez guztiz. Hala ere, estatuak beren lurraldean kultura-sistema homogeneoa eratzeko historikoki izan duten ahalmenaz harago joanda, estatuak gizarte-errealitatea ekoizteko instantzia gisa duten eraginkortasunak ez duela gaur egungo beste instituzio batzuetan parekorik lortu argudiatzen da «Kultura estatu-erakuntzan: estatua proiektu sinboliko gisa» izenburuko artikuluan. Hartara, lurraldeko herritarren buru-egiturak egokitzeko ahalmena duten instituzioak dira estatuak, halako molde non partekaturiko mundu-ikuspegi, hautemate-printzipio eta pertenezia molde jakin batzuk ezartzeko gai diren estatu-gizarteko kideen baitan. Ezaugarri horrek erakusten digu birsorte sozialerako tresna garrantzitsuak izaten jarraitzen dutela.

Lehenengo artikuluan estatuak kultura-sisteman izandako eragin zentripetoen garrantzia azpimarratzen baldin bada ere, bigarrenean, aldiz, gaur egun gertatzen ari diren kontrako indarren eraginean jartzen du arreta **Josu Amezagak**. Hala, «Estatua, merkata eta kultura: aurrera begirako erronkak» izenburua daukan artikuluan hainbat aldaketa nabarmentzen ditu estatuaren eta kulturaren arteko gaur egungo harremanetan: lehendabizi merkatuaren gailentasun progresiboa kulturaren esparruan; bigarrenik, globalizazioaren ondorioz gertatutako fenomeno multzoa, kapital-, informazio- eta populazio-jarioak eragin dituen eta kultura-aniztasuna

ekarri duena gaurko mundu-agertokira; azkenik, kultura-espazio nazionalaren urradura. Aldaketa horien argitara balizko Euskal Estatu batek kudeatu eta askatu beharko lituzkeen korapiloetako batzuk azaleratu ditu egileak: batetik, nazio-estatu kultura-komunitatetik abiatuta eraikitzekeo premia, eta, bestetik, kultura-aniztasunari erantzun egokia eman beharra, adibidez. Tentsioan dauden bi printzipio horien arteko oreka bilatzea eta gutxiengo komun batzuk eratzea (hizkuntza tresna komun gisa hartuta, esaterako), merkatuaren jardunari aurre egiteko arauak ezartzea eta kulturgintzan herri-partaidetza aintzat hartzen duten kultura-politikak bultzatzea lirarteke, besteak beste, euskal gizartean ikusten dituen erronketako batzuk.

Aurkeztutako hirugarren artikulua («Euskal kulturaren adierazpideak: sendotasunak eta ahultasunak balizko Euskal Estatu baten aurrean») euskal kulturaren zenbait adierazpenen egoera deskribatzera jotzen du. Euskal kulturaren definizioaren inguruan sortutako ikuspegi gatazkatsuen berri emanez abiatzen da **Patxi Juaristi** gogoeta horretan. Bere hautua euskal kulturatzat euskaraz egiten den kultura hartzea da. Horiek horrela, berbazko komunikazioan oinarritzen diren bost kultura adierazpideren egoerak aztertzen ditu hortik aurrera, bertsoaritzak, kantagintza, antzerkigintza, liburugintza eta zinemagintza, hurrenez hurren. Izan ere, haren ustetan, berbazko komunikazioari loturiko adierazpideetan jokatzeko euskal hizkuntzaren etorkizuna eta, horrenbestez, euskal kulturarena eta euskal hitzunen komunitatearena. Adierazpide horiek guztiek aztertuta, balizko estatu bat eraikitzekeo prozesuan euskal kulturaren alde sendo eta ahulak hobeto ezagutu daitezkeelakoan dago. Lehenengoan artean, ekimen publikoetatik at euskal gizarteko kultura-eragileek orain arte bultzaturiko antolakuntza eta erakundetzea egongo lirarteke. Bigarren artean, hizkuntzaren egoera gutxitua, euskal kulturaren produktuen merkatu murriztua eta enpresen ahulezia.

Hirugarren artikulua egiten duen bezala, laugarrena ere Euskal Herriko egoeraren azterketatik abiatzen da, oraingo honetan hezkuntza-sistema aztergai hartuta. Hala, Euskal Herriko hezkuntza-sistema bi estaturen ardurapean egonik, **Fito Rodriguez** espainiar nahiz frantziar legedien berrikusketa eginez abiatzen da «Euskal Herriaren hezkuntza-eskubideak. Europako zenbait hezkuntza-eredu aztergai» izenburuko testuan. Azterketa horretatik ondorioztatzen du, Espainiari dagokionez, estatuaren esku geratzen direla irakaskuntza-sistema bere osotasunean eratu ahal izateko ahalmenak, nahiz eta haren Konstituzioak hezkuntza-eskumenak dituzten gobernu autonomoak onartzen dituen. Bestalde, Frantziako Errepublikak ez duela bere hezkuntza-eskuduntza inorekin partekatzen berresten du. Euskal hezkuntza-sistema eratzekeo ikusten duen eragozpenetako bat euskarak dituen estatus juridiko desberdinak dira. Hartara, aurrera begira egin beharreko ezinbesteko proposamenen artean ikasle guztiei euskaraz ikastekeo eskubidea bermatzea eta irakasleak prestatzekeo ahalmena izatea egongo lirarteke, haren ustetan. Burujabetzaren bidea jorratzeko euskal hezkuntzarentzat eredu garri izan daitezkeen zenbait herrialdeetako hezkuntza-sistemak aztertzen dira azkenean, Finlandiakoa, Herbehereetako eta Estoniakoa, hurrenez hurren. Izan ere, esperientzia horiek bereziki baliagarriak dira europar testuinguruan kokaturik egoteaz gain, hizkuntza-ukipen egoeretan garatu direlako edo/eta heziketa-kalitatearen adierazlerik gorenena erakutsi dituztelako azken urteotan.

Azkenik, «Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak» izenburua duen artikuluan euskararen bilakaeraren eta gaur egungo egoeraren diagnostikorako argibide zehatzak eskaintzen dizkigu **Iñaki Martínez de Lunak**. Hizkuntzaren egoera ulertzeko lehen datu erabakigarriak dira, batetik, euskal lurraldeen zatiketa administratiboek hizkuntza-garapenean ezarri dituzten mugak, eta, bestetik, legeetan hizkuntzari onartutako askotariko estatus juridikoek eragin dituzten kolokako hizkuntza-politikak. Faktore erabakigarri horiek aipatzearekin batera, egileak hizkuntza-egoeraren xehetasunez beteriko argazkia egiten du bestelako adierazleak erabiliz. Ildo horretatik, transmisioaren eragilean azterketek, populazioaren hizkuntza-gaitasunen eta erabileraren neurketek, eta jarrera eta iritzien azalpenek, euskararen moduko hizkuntza gutxitu batek birsortzeko dituen eragozpen larriak uzten dituzte agerian. Oro har, argi ikusten da lekuan lekuko hizkuntza-egoerak eta hizkuntza-joerak bat datozela eremu bereko marko juridikoaren baldintzekin eta garatutako hizkuntza-politika motarekin, baita gizartetik bultzaturiko hizkuntzaren aldeko ekimenen indarrarekin ere. Edonola ere, estatu-bermerik gabeko hizkuntza baten iraupenak dauzkan zailtasunak aztertzen dira artikuluan, bai faktore objektiboek eragindakoak, bai faktore subjektiboetatik sortutakoak.

1. Kultura estatu-eraikuntzan: estatua proiektu sinboliko gisa

Ane Larrinaga Renteria, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Ba al dauka zentzurik estaturik gabeko nazio-taldeek egiten dituzten subiranotasun-aldarrikapenak estatu-eraikuntzari lotzeak gaur egun? Batzuek azkenaldi honetan dioten bezala, ez al da estatua globalizazio-prozesuen ondorioz gainbeheran dagoen instituzioa? Artikulu honetan erakutsi nahi da kulturaren baliabide legitimoak bereganatu eta erabiltzean, gizarte-errealitatea sinbolikoki sortzeko tresna eraginkorrak dituela estatuak, eta horrek estatu-gizartea bere neurrira eraiki eta moldatzeko aukera handiak ematen dizkiola. Hala, herritarren baitan partekaturiko mundu-ikuspegiak eta kideza-moldeak ezartzeko sozializazio-agintea izatean, besteak beste, birsortze sozialerako eskaintzen duen ahalmenak ez du oraindino parekorik talde jakin baten iraupen kulturala eta integrazio soziala bermatu ahal izateko.

Culture in state-building: the state as a symbolic project

Is there any point, today, in relating the demands for sovereignty of national groups without a state to state-building? Or is the institution of the state, as some would claim, doomed as a consequence of the globalization process? This chapter shows how a state, in acquiring and implementing legitimate cultural resources, possesses the effective means to generate social reality symbolically, which gives it the ability to construct and adapt society to its needs. Thus in its socializing authority to impose shared world views, forms of partnership among the citizenry, and so on, its capacity for social reproduction remains unequalled when it comes to ensuring the cultural survival and social integration of a particular group.

Ba al dauka zentzurik subiranotasunaren aldarrikapena estatu-eraikuntzari lotzeak gaur egun? Estatua birsortze soziala bermatzeko ezinbesteko tresnatzat jo eta, ondorioz, instituzio hori beretzat eratzeko eskubidea aipatzen duten taldeek sarri entzun behar izaten dituzte lehia politiko-intelektualaren burrunban honelako galderak: Zertarako estatua, globalizazio-prozesuen ondorioz gainbeheran badago? Ez al da estatua instituzio zaharkitua kultura bat birsortzeko eta garatzeko, haren gaintetik eta haren azpitik jarduteko aukera gero eta handiagoak sortu badira eta dagoeneko kultura-merkatuek estatu-mugak gainditu badituzte globalizazioaren garai honetan? Ondoren agertzen diren gogoetak ideia horiei erantzun nahian garatu dira.

1. ESTATUA GAINBEHERAN AL DAGO? NAZIO-ESTATUAREN IRAUPENAZ GLOBALIZAZIOAREN AROAN

Azken urteotan, ikuspegi teorikobatzuetatik nazio-estatuaren desegite progresiboaren tesia azaldu da indar handiz esparru teoriko-akademikoetan. Zalantzarik ez dago Mendebaldeko estatuak sorreratik izan duen eginkizun handienetako bat zedarritutako lurraldeko merkatu ekonomikoa eratzea, babestea eta arautzea izan dela. Bereziki Bigarren Mundu Gerratik aurrera gailendu zen funtzio hori ahuldu egin da kapitalismo globalaren garapenarekin batera eta horrek estatuaren rol berriaren —eta haren osasunaren— inguruko eztabaidak piztu ditu. Besteak beste, estatuaren subiranotasunaren galeraren auzia plazaratu du. Azken hamarkadetan estatuari buruzko literaturan hitzetik hortzera aipatu izan da estatuaren ustezko gainbehera, globalizazio-prozesuak ekarritako eraldatzeen ondorioz. Izan ere, globalizazioak azpikoz gora jarri du gizarteko alor askoren funtzionamendua: mundu mailako komunikazioaren eta informazioaren trafikoa, produkzio ekonomikoa eta haren finantzaketa, transferentzia teknologikoak baita arrisku demografikoak, ekologikoak eta geostrategikoak ere, orain arte ezagutu ez diren arazo zenbaiten sortzaile dira gaur egun. Eta badirudi arazo larri horiei ezin zaiela irtenbide egokirik aurkitu nazio-estatuaren esparruan. Hala, batzuen ustez, nazio-estatu klasikoaren berezko subiranotasunaren hustuketa progresiboa gertatzen ari da gure aro honetan. Dena den, egindako diagnostikoak ez datoz beti bat. J.R. Monedero, adibidez, zalantzati agertzen da mundializazioaren egonarririk eza adierazten duten estatuari buruzko aurreikuspen horien aurrean eta honako hau galdetzen du: «Benetan atzera egin ote dute nazio-estatuak? Aldatu egin al da eraketa politiko horien funtzioa? Atzera egin al du estatuak ala Leviatanen nekaldi bat besterik ez da, gerra osteko gizarte-hitzarmenak agindutako zereginei dagokienez?» (Monedero, 2003: 10). Eta galdera horietan estatuaren itxuraldaketa atzean egon daitezkeen aurpegi desberdinak ikusten dira lausoki.

Estatuak eskuratutako molde berriak zehazterakoan aztertzaileak erabateko adostasunetik urrun badira ere, ez dute zalantzarik, ostera, egungo estatuaren krisiaren iturri nagusia eraldatze sozioekonomikoen esparruan kokatzean. Modu berean, azken urteotan egindako azterketek ere alderdi ekonomikotik eragindako estatu-eraldaketetan jarri dute arreta bereziki. Azterketa horietan aipatzen denez, merkatu globalak osatu diren heinean, eta haiei dagozkien instituzioak eta

erabakitze-guneak, asimetria sakona sortu da, batetik, gizartean eta, bestetik, ekonomian estatuak ezarritako agintaritza moldeen artean (Strange, 2001). Esparru ekonomikoari dagokionez, nazio-estatuaren ohiko agintaritza ahuldu egin da estatu-ekonomiak ekonomia globalean integratu direlako eta integrazio horrek, aldi berean, aldaketa finantzario eta teknologikoak sortu dituelako. Hala —ondorioztatzen da—, orain arte estatuak izan dituen ohiko erantzukizun eta eskumen ekonomikoak indarra galduz doaz geldi-geldi: esate baterako, estatuak hazkunde ekonomikoan izandako eragina, enplegu-politiketan egindako lana eta desoreka ekonomikoak zuzentzeko izandako partaidetza aktiboa moteldu egin dira azken urteotan gero eta modu nabarmenagoan. Horrek guztiak pitzadurak eragin ditu estatuak azken mendeetan garatutako euskarrietan, besteak beste, haren subiranotasun- eta lurralde-printzipioetan. Alde batetik, estatu-subiranotasuna urratutzat jotzen da, nabarmen. Izan ere, merkatu kapitalista sortu berriak ohiko estatuekin boterea partekatu behar duten bestelako botere politikoen premian daude: horietako batzuk estatuz gaindikoak dira —Europar Batasuna eta haren instituzioak ditugu horren adibide—, eta beste batzuk, aldiz, estatuz azpiko eskalakoak —eskualdeak, hiri globalak deritzetenak, eta abar—. Bestetik, estatuen lurraldeek —hots, lurraldeetako barne-arauek— eta haien arteko mugek talka egin dute merkatu globalek beraien produktuak eta finantzak batetik bestera, espazio bakar eta homogeen batean, eramateko duten beharrezanarekin. Aldaketa horiek estatuaren gainbehera, are gehiago, instituzio horren itzaltze progresiboa iragartzeko adinako indarra ote dute, ordea?

Ekonomiaren arrazoiei, eta haiei soilik helduta ere, gaurdainoko joerek ez dute halakorik erakusten. Egungo ekonomia globala da, zalantzarik gabe, baina estatu, estatuz azpiko nahiz estatuz gaindiko era askotako interakzio-sareei esker osaturik dago haren ehundura (Mann, 2003). Mundu-produkzioaren ehuneko laurogeia baino gehiago nazio-merkatuetara zuzenduta dago. Eta, gaur-gaurkoz, ondasunak, aktiboak eta lerkuntza eta Garapena haien jatorrizko estatuetan daude; areago, estatuen ezinbesteko laguntza jasotzen dute giza kapitalaren premiak asetzeko, komunikazioez eta bestelako azpiegituz hornitzeko eta babes ekonomiko eskuratzeko hura beharrezkoa denean. Hitz batean, estatuak eskaintzen dute sare kapitalista globalen nahitaezko oinarrietako bat. Oinarri nagusia, agian. Izan ere, kapitalismoaren lotura teknologiko eta sozialetan oinarritutako harreman transnasionalez gain, neurri handi batean sare globalak nazio-estatuaren partikularitateen arabera segmentaturik daude, bereziki munduko Iparraldeko estatu boteretsuenei dagokienez. Oraindik ere munduko lurraldeen gaineko agintaritza estatuaren esku besterik ez dagoenez, era guztietako sistema globalen osaketa ere instituzio horien derrigorrezko partaidetzan oinarritzen da.

Hartara, kapitalismo globalaren garaian desagertu ez ezik, bestelako funtzioak ere egiten hasi direla estatuak esan daiteke. Ildo horretatik, estatu-rolaren birmoldaketa gertatzen ari da, eta egokitze-prozesu horretan, estatuak askoz ere zabalagoa eta konplexuagoa den botere-esparru batean kokatzen ari dira ostera ere (Sassen, 2007). Ez dira inolaz ere mugatu beren esparru ekonomikoko agintaritza gutxitzera, ezta barne-ekonomia arautzeko lehenago zeuzkaten eskumenak albo batera uztera ere. Aitzitik, funtzio berriak berenganatu dituzte, estatu barruan eta

haren legedian txertatu eta egokitu ahal izateko sortzen ari diren nazioarte mailako aktore ekonomikoak —enpresak, merkatuak, estatuz gaindiko erakundeak— nahiz sozialak eta kulturalak, eta estatutik at ere jardun dezaten jatorriz estatuan sorturiko aktoreek, funtzio horiek, modu paradoxikoan, egonkortasun-galtzailatzat jo daitezkeen arren zenbaitetan estatuarentzat berarentzat (Sassen, 2007).

Jakina, beste aldaketa historiko batzuen antzera, merkatu globalen eskakizunei begira estatuak egindako osagai instituzionalen eta juridikoen moldaketa ez da ibilbide homogeneo baten emaitza izan toki guztietan. Ez da ahaztu behar mundua eragintzaren dauden estatu-sistema batez osaturik dagoela, eta estatu guztiek ez dutela botere- eta subiranotasun-maila bera. Ez eta jatorri eta garapen historiko berbera ere. Egokitze eta moldaketa horiek ere ez dute instituzioaren bilakaera historikoa lausotu behar. Ikuspegi sistemiko eta historiko hori begi-bistatik galdu gabe, nazio-estatuak, lurraldean oinarritua eta burujabea, instituzio gaztea dela gogorarazten digu Michael Mann-ek (Mann, 1993). Estatuaren kopurua ugalduz joan da orain arte eta ugalduz doa gaur egun (López, 2010). Azken hiru mendeetan asko hazi dira haren tamaina eta esku-hartzearen esparrua ere. Eta azken hiru hamarkadetan haren botere batzuk baliogabeturik geratu diren arren —bereziki, orain arte aipatu ditugun arautze ekonomikoari buruzko eskumenak—, beste eskumen batzuk handitu baino ez dira egin aspaldi honetan: azken horien artean nabarmenenak esparru pribatuaren arautzeari dagozkionak daude, hala nola familia-bizitza, gizakien bizikloa, pertsonen arteko harreman pribatuak, eta abar arautzen dituztenak (Giddens, 1994; Gurrutxaga, 2004).

2. KULTURA ESTATU-ERAIKUNTZAN: ESTATUA PROIEKTU SINBOLIKO GISA

Baldin eta gizarte jakin batek barne- nahiz kanpo-agertokietan dituen erronkei burujabetzaz aurre egiteko tresnatzat hartzen badugu estatua, ikusi dugu estatu-eginkizun horrek eraldaketak jasan dituela azken hamarkadetan. Aipatu eraldaketak ukaezinak izan dira instituzioaren jardura-esparru ekonomikoan. Eraldaketa horiek zabaldu daitezke, ordea, beste esparru batzuetara? Zehatz esanda, izan daiteke estatua formula eraginkorra babes kulturala bilatzen duten gizarte-gutxiengoentzat? Zer eskain diezaioke estatuak gizarteari kulturaren eta identitatearen ikuspegitik?

2.1. *Begirada bat estatuaren sorreraren baldintzei Aro Modernoaren hasieran: baliabide sozialen metaketa monopolistikoa*

Estatuaren definizio klasikoetan ez da bereziki haren eginkizun kulturala nabarmendu. Edo, gehienbat, modu inplizituan ulertu da betekizun hori. Estatuaren definizio soziologiko klasikoaren artean ezagunenetakoa Weber-ek eskaini zuen orain dela mende bat. Haren esanetan, «estatu lurralde jakin batean indarkeria fisikoaren erabilera legitimoa arrakastaz aldarrikatzen duen giza komunitatea da». Hartara, bortxa fisikoaren baliabideen metaketa azaltzen da erakundearen ezaugarri nagusitzat ikusmolde horretan. Modu berdintsuan, estatuaren sorreraren azterketari ekin dioten eredu gehienek ikuspegi bera lehenetsi dute, Weberrek ez ezik, Norbert Elias-ek eta Charles Tilly-k ere, esaterako (Weber, 1975; 1979; Elias, 1993; 1994;

Tilly, 1992). Aipatu ereduetan erakutsi den bezala, estatuaren sorrerarekin batera indar hertsatzaileak gune bakar batean biltzen dira. Horrela, estatuaren eredu idealean, ordena mantentzeko baimenduta dagoen instituzio hori urrundu egiten da apurka-apurka mundu sozial arruntetik. Harrezkeroztik, zilegizko indarkeria fisikoa ezin izan du edonork erabili gizartean, ezpada horretarako espresuki sortu ondoren, gizartean argi identifikaturik, zentralizaturik eta diziplinaturik dagoen erakunde espezializatu horrek. Izan ere, aipatu monopolioan oinarritzen da estatuaren boterearen iturri nagusia.

Mendebaldeko estatuak bere barne-lehiakideak bortxa erabiltzeko eskubideaz desjabetu zituen heinean baino ez zuen eskuratu pixkanaka indarkeriaren monopolio hori bere sorreraren prozesu historikoan. Zehazki esateko, Modernitatearen hastapenetan sortzen ari zen estatuak gune batean ez ezik, bitan berretsi behar izan zuen indar fisikoaren erabilera. Alde batetik, mugen barrualdean kontrabotere zenbaiten aurrean —printzea, aristokrazia— eta mendeko populazioaren aurka baieztatu behar izan zuen bere burua estatuak. Beste alde batetik, mugen kanpoaldean ere borrokatzera beharturik egon zen, ziren edo izan zitezkeen estatuen aurka iraun ahal izateko. Hori dela-eta, azterketa historikoek erakusten dutenez, Europan ez ziren estatu isolatuak eratu, estatu-sistema bat baizik. Hartara, estatuen sorrera gerra-jarduerari loturik egon zen betiere, horixe izan baita estatuen «hautespen naturalaren» mekanismoa (Tilly, 1992; Ramos Torre, 1995).

Baina, ezinbestekoa izanda ere, indarkeria fisikoaren baliabideen metaketak ez du bere osotasunean estatuaren boterearen zenbaterainokoa argitzen, aztertzaile klasikoek ustez. Bortxa fisikoaren monopolioa zerga-sistemaren ezarrerarekin bat eginik etorri zen historikoki —nola ordaindu bestela barruko eta kanpoko gerra?—, baita espazio ekonomikoaren batasunarekin ere (Weber, 1979; Tilly, 1992; Elias, 1993; 1994; Ramos Torre, 1995). Horrela eman zitzaion hasiera merkatu ekonomiko «nazionala»ri estatuak zedarritutako lurraldeen mugetan. Horrenbestez, indarkeriaren monopolioa eta zergen monopolioa —«koertzioa» eta «kapitala», Tilly-ren esanetan— ezin izan dira ulertu estu uztartuta dauden prozesu gisa baino. Marx-ek berak, bere garaian, nabarmen azpimarratu zuen estatu modernoaren eta kapitalaren aldi bereko sorrera eta garapena.

Hala ere, autore klasikoek azpimarratutako indar fisikoaren eta ekonomi baliabideen metaketak erabat azaltzen al du estatuaren izaera? Ezezkoan gaude. Izan ere, indar armatuen eta finantza-baliabideen kontzentrazioa ez da inolaz ere bideragarria onespenezko eta legimititatezko kapital sinbolikorik erdietsi ezean. Estatua gizarte integratua sortzeko proiektu gisa abiatzen da beti. Estatuak nazio-estatu behar zuen izan, iraun ahal izateko. Horrenbestez, diru-bilketa ofizialen legimititatea estatuak bultzaturiko identifikazio- eta leialtasun-loturen sorrerarekin elkartu zen gehienetan. Azken batean, zergen kobrantzak eta harreman ekonomikoek lagundu egiten zuten, berez, estatua lurralde bateratu gisara aurkezten zuten irudikapenak indartzen. Modu horretan, arian-arian, estatua espazio jakin batean errotu zen bere hastapenetan; jakina, hasieran ez zuen osatzen geroago izango zen espazio nazionala, baina subiranotasun hori haren eskuduntza modura agertu zen gero eta gehiago.

Beraz, esan liteke kapital ekonomikoaren kontzentrazioak eta zerga bateratuen ezarrerak pareko prozesua izan zutela kultura-baliabideen bilketan eta kultura-merkatuaren baterakuntzan. Zentzuzkoa da pentsatzea bilakabideok loturik egon behar dutela. Izan ere, Modernitatearen hasieran Europako estatu aurreko gizarte-ordena —komunala eta tradizionala— gainbeheran zegoen eta, ondorioz, bestelako ordenaren eraikuntzari ekin zion sortzen ari zen instituzioak. Ageri denez, esparru guztietan jardunez baino ezin zitekeen burutu aldaketa: hain zuzen ere, gobernuan, ekonomian eta kulturaren arituz, edo, aztertzaile batzuen hitzak erabiliz, biolentziari, kapitalari eta ekoizpen sinbolikoari zegozkien arloak jorratuz. Horrela, eremu horietako guztietako baliabideak metatu ahala egin zitzaion aurre egundoko berreraikuntza sinbolikoari, hots, gizarte-ordena modernoa integratzeko eta legitimatzeko ataza erraldoiari (Bauman, 1997). Eta ordena modernoaren euskarria estatu-gizartea (izan) da.

Horiek horrela, estatuak era guztietako kultura-baliabideak bereganatu ditu bere bilakaera historikoan, kultura birsortzeko eta transmititzeko tresnak barne hartuta; eta boterearen eta ekonomiaren esparruetan gertatu den bezala, kulturaren alorrean ere estatu-monopolioak «besteen» desjabetzea ekarri du berekin. Metatze-prozesu horretan, jakina, estatuak kudeatu egin behar izan du bere mugen barnean jasotako jatorrizko komunitateen kultura-aniztasuna. Kultura-ugaritasun hori hizkuntza-dibertsitatean ez ezik, ohituretan, foru tradizionaletan eta beste hainbat ezaugarritan ere adierazi izan da hastapenetan. Aniztasunaren kudeaketari aurre egiteko, estatuak —haren buru izan diren elite edo talde nagusien bitartez— hautuak egin behar izan ditu: zein kultura transmititu gizartean, zein hizkuntzatan irakatsi eskoletan, zein kultura ofizialdu burokrazia eta administrazio publikoetan, eta abar. Bistan denez, ez da entitate neutrala izan hautu horiek egitean; beste edozein ordena historikoren antzera, interes jakin batzuen aldeko instituzio gisa jardun du.

Integrazio soziala helburutzat hartuta, kultura-baliabideak integrazio horren tresna izan dira, zalantzarik gabe. Ondorioz, kulturak rol bateratzaile jokatu behar izan du estatuarentzat, eta horrela gertatu da gehienetan, aniztasunaren kaltetan —aniztasun hori ordeztu duten hainbat etno-talde eta nazio-talderen kaltetan, jakina—. Hala, estatu guztien zereginetako bat izan da estatuko kultura-merkatuaren baterakuntza eragitea, lurralde barnean zeuden kode guztiak batuz —mintzairak, legeak, neurriak eta pisuak— eta komunikazio forma guztiak homogeneizatuz, bereziki idatzizkoak eta burokratikoak, integrazio sozialaren eta estatu-gizartearen beraren legitimitatearen mesedetan. Hori egitean, estatuak ez du edozein kultura ezarri. Aitzitik, unibertsaltasunaren estatusera jaso behar izan ditu kultura eta hizkuntza partikularrak. Hori egitean, baina, unibertsaltasunaren eremuetarako sarbidea ukatu die beste kultura eta hizkuntza batzuei, esan nahi baita, birsortzeko eta irauteko aukera eragotzi die azken horiei.

2.2. Estatuaren baldintzetako bat: kultura-monopolioa

Orain arte esandakoak erakusten digu Mendebaldean Aro Modernoan normaltasunez garatu diren kultura-sistema partikularrak estatuak jarritako baldintza bateratzaile eta monopolistikoaren eraginpean gauzatu direla, batik bat. Kultura horien

garapena, bai eta estatuaren beste eginkizun hertsiki ez-kulturalena ere —nazio-erakuntzaren egitasmoa, garapen ekonomikoa eta giza kapitalarena, adibidez—, ezin izan dira erdietsi estatu-gizartearen batasun kultural eta linguistiko erlatiboa bermatu barik lehendabizi. Besteak beste, hizkuntza eta kultura hegemonikoen ezarpenari lotuta egon da kulturaren —baita estatu-gizartearen— batasuna ere.

Gizarte-sorkuntza eta -birsorkuntzaren mekanismoak biltzea estatu-ordenaren iraupena bermatzeko ezinbesteko betebeharra da. Birsorkuntzaren bitartekoak, funtsean, kultura- eta sozializazio-baliabideak dira, formalak nahiz ez-formalak: eskola-praktikak, hizkuntza-kodeak, burokrazia-praktikak, eta abar. Denboraren joan-etorriarekin, birsorkuntzarako bitarteko horien etengabeko jardunak esparru bereizi baten eraketa ahalbidetu du estatu-gizarteetan. Kultura-sistemaz ari gara. Kultura-sistemaren eraketaz hitz egiten denean, estatu-gizarteetan modu «normalizatua»n eta berme instituzionalekin garatutako eremu autonomoa adierazi ohi da. Izan ere, estatu-gizarte horietan gauzatu diren baterakuntzaren baldintzak bermatzen diren unetik aurrera egiten da bideragarri kulturaren autonomizatze-prozesu gero eta indartsuagoa. Modu paradoxikoan bada ere, estatuak jartzen ditu kultura-sistemaren autonomiaren bermeak, kultura-politikak garatuz eta kultura-esparrua bera arautuz. Bestalde, autonomizatze-prozesu historiko luze eta korapilatsu horretan kultura-eragileek —hizkuntza eta kultura legitimoaren eramaile diren erakunde eta kultura-sortzaileek, hala nola eskolek, unibertsitateek, akademiek, instituzio zientifikoek, argitaletxeek eta kultura-enpresek, baita kulturagile eta intelektualek ere, besteak beste— berezko agintaritzaren aldarrikatu dute arian-arian, kultura-baliabideen mailakako metaketa baliatuz (Bourdieu, 1995).

Estatu moderno guztiek bideratu duten kultura-sistemaren eraketa ezinbestekoa da estatu-gizartearen beraren iraupenerako, estatuari identitate kolektibo komun bat (nazio-identitatea) sortu ahal izateko tresna eraginkorrak eskaintzen dizkiolako haren garapenak. Kultura-instituzioak ez dira, berez, nahikoak nazio-estatuaren eraikitzeke, baina bai nahitaezkoak. Nazionalismoaren teorialariek adierazi dutenez, nazioaren esanahiak, besteak beste, kultura-esparruan egiten diren sorkuntza sinbolikoen bitartez eskuratzen dira Aro Modernoan: nobeletan eta antzerkian, lanetan, poema eta operetan, egunkari eta filmetan, esaterako. Horietan guztietan adierazten dira nazioaren ezaugarriak, garatzen dira mito fundatzaileak, eratzen dira taldearen sustrai historikoak eta ezartzen dira bizitza sozialaren erreferentziazko marko sinboliko orokorrak: kulturalak, geografikoak, irudikapenezkoak... Hartara, estatuak bideraturiko nazio-erakuntza, neurri handi batean, kultura-erakuntza bat da: eguneroko eginkizuna da haren irudikapen kulturala eskaintzea nonahi eta noiznahi, testuinguru kultural eta linguistiko guztietan, adierazpen ofizialean nahiz eguneroko bizitzan. Bai zuzenean, bai zeharka, bizitza sozialeko esparru guztietan duen presentzia dela medio, erakuntza sinboliko erraldoi horrekin estatuak gizarte-bizitzako ehun guztia blaitzen du, eta oinarri eta praktika kultural partekatuz osaturiko komunitatea sortzen laguntzen du. Eginkizun horretan, jakina, zeregin berezia dute berriaz sortutako sozializazio-erakunde formalek, hala nola hezkuntza publikoaren sistemak eta kultura-sistemako erakunde eta eragile baimenduek. Haien lana baita curriculum ofiziala irakastea (adibidez, historia kanonikoaren estandarizazioa zabalduz), eredu literaturaren eraikitzea eta musikaren eta artearen

sorkuntza estatu-markoaren koordinatu historiko-sozialetan kokatzea. Baina ez da ahaztu behar, horiekin batera, beste praktika sozial batzuen bitartez burutzen den sozializazio informalak duen eragina. Adibidez, derrigorrezko soldaduska unibertsalak, garapen ekonomikoak (esaterako, nekazarien asimilazio soziokulturala historikoki garrantzitsua izan da estatuen eraikuntzan), praktika burokratikoek (agiri, izendapen eta titulu ofizialetan islatzen diren prozeduren bitartez arautzen dute herritarren bizitza) eta beste antzeko praktika batzuek era bereko eragin hezitzailea eta moldatzailea dute.

Nazio-estatuaren eraikuntza-prozesuan kultura-esparruak bete dituen eginkizun garrantzitsuenen artean nabarmentzekoak dira zeregin batzuk, hala nola instituzio eta eragile kulturalak egin duten «arkeologia politiko»ko lana (Smith, 2000). Ildo horretatik, estatuak, baliabide kulturalak eta sozializazio-instituzioak erabiliz, memoriaren eta ahanzturaren egiturak eratu eta moldatzen dituzte herritarren baitan, eta iragana berreraikitzen laguntzen dute orainaldiko komunitatea legitimatzeko. Hala, estatu mailako kultura-sistema guztien baitan sortu diren historialari, filologo, filosofo, antropologo, arkeologo, literato eta beste kulturagile askoren lana izan ohi da estatu-gizartearen eta estatu-kulturaren euskarriak eraikitzea. Ez da gehienetan modu kontzientean betetako eginkizuna izan. Izatez, estatu kultura-sistema ofizial eta hegemoniko ororen oharkabeko gibelalde politiko inkontzientea izan ohi da, ohiko egitura kognitiboetan jakintzat eta eztabaidatu gabetzat jo dena. Hartara, intelektualek eta kulturaren profesionalek egungo gizarte-estatuaren ulermenerako gakoak eskaini dituzte, hura historian eta munduan kokatzen lagundu dute, gizarte horren kultura handitu eta haren hizkuntza landu dute. Areago, askok herentzia eta tradizio kultural jakin batzuk bahetzeko ahalegina egin dute, tradizio horiek lantzeko gertakarien hautaketa eta erregistroa burutu dute eta haiek selektiboki interpretatu, baita kanonak ezarri, biribildu eta orraztu ere gaur egungo ebidentzia zientifikoetara edo ikusmolde berrietara egokitzeko.

Aldiz, estatuak babestutako kultura-sistematik at kokaturik dauden taldeek edo estatuaren berme instituzionalik ez dutenek zailtasun handiak dauzkate, oro har, sozialki birsortzeko eta, zehazkiago, kulturalki irauteko. Hitz batean, oinarri instituzional sendorik ezean, beren burua talde bereizi gisa definitzeko eta besteen aurrean identitate sozial eta kulturala aurkezteko lan eskerga egin behar dute, eta borroka sinbolikoen eremuan askoz ere baliabide gutxiagoren laguntza izaten dute. Hartara, beraien eraginkortasun sinbolikoa askoz ere mugatuagoa izan ohi da gehienetan.

Estatu-kulturak ez bezala, estatuaren babesik gabeko kulturak azpiinstituzionalizaturik eta sozialki endekaturik agertzen dira gehienetan, esan nahi baita, kultura-sistema garatzeko —haren instituzio-ehuna sortzeko eta kultura-eragileak agintez horniturik agertzeko— zailtasunak izaten dituzte (Larrinaga, 2007). Horregatik, estatutik gabeko mugimendu nazionalisten ohiko helburuetako bat, instituzio politikoen ekimenik ezean, jatorrizko kultura herri-ekimenez suspertzea eta onera ekartzea izan ohi da. Ildo horretatik, hizkuntza eta kultura gutxituak berreskuratzeke egitasmoak, hau da, berezko kultura-sistema eraikitzeke ahaleginak, maizenetan, soberania politiko motaren bati eta instituzio politikoen aldarrikapenari loturik egon ohi dira.

2.3. Estatuaren botere sinbolikoa

Zer ondorio izan du kultura-baliabideen metaketak estatuaren eskuetan? Eta estatuak ahalbidetu duen kultura-sistemaren eraketak? Nolako eraginkortasuna ematen dio baliabide metaketa horrek estatu-erakundeari? Zergatik aldarrika dezake estatuaren premia estaturik gabeko talde batek kulturaren ikuspegitik?

Modu konbentzionalen kulturatzat hartzen diren kultura-sistema jakin bateko adierazpen ikusgarriez haratago, kontzientzia arruntarentzat ikusezinagoa den dimentsio sinbolikoa hartzen du barnean gizarte orok. Beste modu batez adierazita, gizarte-egitura edo egitura instituzionalarekin batera, errealitate sozialaren funtsezko osagai izan ohi da beti haren ordena sinbolikoa. Ordena sinboliko horrek integrazio soziala ahalbidetzen duten esanahi, egitura kognitibo, sineste eta sinboloz eraturiko marko orokor bat eskaintzen die gizarteko kideei. Hala, zentzua eta identitatea sortzen duten sinboloak eta kontaktak eskaintzen ditu, eta egintza sozialei esanahia ematen dien egitura konplexu bat osatzen du. Geertzek gogoratzen duen bezala, kultura (mundu sinboliko gisa ulertuta) eta gizarte-egitura bizitza sozialaren banaezinezko bi mailak dira: maila batean leudeke sinesteak, sinbolo adierazkorrek eta balioak; horien arabera definitzen dute mundua, adierazten dituzte sentimenduak eta ideiak, eta ematen dituzte iritziak gizabanakoek; beste maila batean gizarte-egitura osatu duten giza harremanak kokatzen dira (Geertz, 1987).

Kulturaren baliabideak bereganatu eta metatzean, gizarte-errealitatea sinbolikoki sortzeko tresna eraginkorrak eskuratu ditu estatuak, eta horrek gizartea bere neurrira eraiki eta moldatzeko aukera handiak eman dizkio. Hainbestearino non, Aro Modernoan gizartea estatuak eratutako gizartearekin identifikatu den gero eta gehiago —adibide adierazgarri gisa, Soziologian erabili izan denean, gizarte estatalarekin parekatu da luzaroan gizarte kontzeptuaren adiera (Lamo de Espinosa, 2001)—. Gaur egun, askotan aipatzen da globalizazioak ekarritako merkatu-joerek, teknologi aldaketek eta kultura- eta populazio-jario transnazionalak murriztu egin dutela behinola estatuak zeukan kulturaren monopolioa. Eta egia da mundu mailako kultura-industrien eta kultura desberdineko populazioen migrazio-mugimenduen ondorioek zaildu egiten dituztela estatuen homogeneousotasun-proiektuak eta, aldi berean, murriztu haien asmo monopolistikoak. Baina, hala ere, gizarte-errealitatea gizakien egunerokotasunean modu sinbolikoan ekoizteko instantzia gisa estatuak daukan eraginkortasunak oraindino parekorik lortu ez duelakoan gaude sortzen ari diren instituzioetan.

Egiazki, zuzenbidea, jardunbide burokratikoak, eskola-egiturak, gizarte-erritualak eta estatu-markoan garaturiko praktika mediatikoak eta linguistikoak bide direla, kulturaren eredu hegemonikoa sortzeaz gain, estatuak bestelako eragin sinboliko sakonak ditu: hain zuzen ere, estatuaren mende daudenen buru-egiturak egokitzeko ahalmena eskuratu du, beste edozein gizarte-instituzioren bano askoz ere handiagoa den ahalmena, hain zuzen ere. Eta eskumen hori erabiltzean, partekaturiko mundu-ikuspegi, hautemate-printzipio eta pertenezia molde jakin batzuk ezartzen ditu estatu-gizarteko kideen baitan. Izan ere, gizarte-praktikak —eta haien atzean dauden oinarri kognitibo eta kulturalak— arautzen dituen heinean, estatuak ahalmena dauka haren mendeko gizakiengan prestasun

iraunkorrak eta pentsamolde komunak sorrarazteko, zeinek errealtatea modu jakin batean hautemateko, sentitzeko eta ulertzeko joerak baldintzatzen dituzten. Hala, ebaluazio, pertzepzio eta memoriazko egitura partekatu horiek errealtate sozialaren «zentzu komun»eko ezagutza —*common sense knowledge* delakoa— osatzen duten ebidentziei buruzko adostasuna eskuratzen laguntzen dute estatu-gizarte guztietan.

Modu horretan, apurka-apurka, bitarteko kulturalak eta kognitiboak baliatzen dituen menderatze sinbolikoak indarkeriazko dominazioaren lekua hartu du estatu-jardunean. Izatez, menderatuen esangabeko adostasunean oinarriturik egotean, indarkeria fisikoa baino askoz ere eraginkorragoa baita menderatze mota hori. Halatan, adostasun sistemikoa eta konformismo moralak sortzeko makineriarik eraginkor eta boteretsuenetakoa da estatua oraindik gaur-gaurkoz, haren sozializazio-ahalmena inoiz erabatekoa izaten ez den arren, munduaren zentzuari buruzko adostasun pentsatugabeak eta berehalakoak sostengatzen dituzten egitura kognitiboak sortzeko ahalmena duelako, eta horiek munduaren esperientzia arruntaren bidea irekitzen dietelako estatuaren baitan dauden gizakiei.

Hartara, ulertzekoa da gaur egun ere estaturik gabeko gizarte-talde asko estatuaren aldarrikapena egin izana beren izaera soziala bermatzeko. Izan ere, Bourdieu-k gogorarazten duen bezala, estatuak modu erabakigarrian laguntzen du gizarte-errealtatea eraikitzeke beharrezkoak diren tresnak sortzen eta birsortzen (Bourdieu, 1997). Eta, globalizazioaren garaian beste eskala bateko gizarte-errealtateak eta eragileak sortu diren arren —merkatuak eta kultura-enpresa transnazionalak, adibidez—, estatuak jarraitzen du pentsamolde, memoria eta ulermenezko buru-egituren jarduera eratzaille eta taxutzaille hori betetzen, eraginkortasun handiz. Horregatik, estatuak ezarritako gizarte-ordenak gehienetan ez du gehiegizko arazorik edo eztabaidarik sortzen, haren egitura instituzionalek herritarren egitura kognitiboetan izaten dutelako korrespondentzia egokia.

Oraindino gaur egun eskubide demokratikoen edukiontzi eta herritarren partaidetza demokratikorako gune nagusi dugu estatua (Giddens, 1994; 2000). Izaera horren ifrentzu da estatuak aginte hori lortzeko metatu behar izan duen kapital sinbolikoa. Zer edo zer izatekotan, estatua kapital sinbolikoaren metaketaren eta erabileraren egoitza nagusia da gure gizarteetan. Hark bildu dituen askotariko baliabide juridikoak izango lirateke kapital sinboliko horren adierazpen objektibatu eta kodifikatuenetakoa (Bourdieu, 1997). Halako moldez bildu du estatuak kapital sinbolikoa non instituzio hori den gaur egun «izendapen» sozialerako instantzia nagusi. Horrek esan nahi du ematen dituen ziurtagiri, izendapen, titulu eta era guztietako aitortza publiko eta erregistro ofizialen bitartez, agintea duela gauzen eta pertsonen definizio sozial legitimoa egin ahal izateko bere lurraldean. Beste modu batez adierazita, legitimitate nahikoa onartu zaio gauzak eta pertsonak sozialki direna eta izan daitezkeena, diotena eta esan dezaketena, dagitena eta egin lezaketena agintez adierazteko. Horrela, estatuak izendatzen eta onartzen ditu gizarteko elkarte legitimoak: esaterako, hark erabakitzen du zer den familia eta zer ez, zer den elkartea eta zer ez, zer den legezko alderdi politikoa eta zer ez. Hark erabakitzen ditu identitate sozial legitimoak: zein den herritarra, zein zergapekoa, zein jabea, senide edo lanbide jakin batean jarduteko gai dena. Eta, hartara, haren aurrean

aldarrikatu behar dira definizio horien aldaketak eta hari eskatu behar zaio eskubide berrien aitortza ere. Ez dirudi gaur egungo bestelako botereek —merkatuek edo beste eskala bateko instituzio politikoek, adibidez— pertsonen eta taldeen izaerak eta identitate sozialak modu horretan zehazteko maila bereko legitimitaterik lortu dutenik.

2.4. Estatua eta gizakien eguneroko munduaren eraikuntza: nazio-identitatea eguneroko bizitzan

Arestian esan den bezala, nazio-estatu gaur egungo eraketa politiko nagusia da, oraingoz. Globalizazioak ez ditu oraindino estatuen eragin politikotik askatu munduko lurraldeak. Aitzitik, ezin da ukatu mundua hertsiki eta zehazki zedarrituriko nazio-estatuetan zatiturik agertzen zaigula. Are gehiago ere egiazta daiteke, alegia, kultura eta kontzientziari dagokionez, estatuen mundu hori ezin izango litzatekeela mantendu gizabanakoen kontzientzian euskarri sendo bat izango ez balu. Bestela adierazita, gaur egungo nazio-estatuak ezinbesteko osagai kultural eta identitatezkoak daukate, eta osagai horiek behin eta berriro sortzeko ahalmena erakusten dute. Areago, osagai horiek herritarren eguneroko kontzientzian eta eguneroko ezagutzan txertatzeko ahalmena daukate.

Zer da eguneroko ezagutza edo ezagutza arrunta (common sense knowledge) deritzana? Ezagutza oinarrizko kategoria da Berger eta Luckmann-ek «errealitatearen eraikuntza soziala» deitu zuten prozesuan (Berger, Luckmann, 1979). Gizarte-errealitatea gizakiek elkarri (besteei) onartutako aitortpenezko egintzez, hau da, denboran zehar behin eta berriro errepikatzen diren egintzez osaturik dago. Ildo horretan, ezagutza ez da mundu intelektualean nagusi den ezagutza sistematizatua eta formalizatua soilik, ezta esparru akademikoan baimendutako profesionalak sortzen duten ezagutza landua ere. Ezagutza egintza soziala zuzentzen duen eta egintza horretan txertaturik dagoen praktika kognitibo arrunta ere bada. Horregatik, ezagutza formalaren ondoan ezagutza informala ere badago, ezagutza profesionalaren ondoan, ezagutza herritarra, eta ezagutza landuaren ondoan, ezagutza arrunta edo «sen onekoa». Bigarren mota horretako ezagutza hori dugu nagusi eguneroko bizitzan, bera da gizarteko kide guztiek garatu eta partekatzen duten ezagutza-eredua. Hain zuzen ere, ezagutza horrek ematen die bizitza sozialari buruzko oinarrizko erreferentzia bat eta, horrela, ahalbidetzen die ohiko zeregin sozialei aurre egitea. Hartara, sozializazio-prozesuetan birstortzen den «errezetazko ezagutza» aurreteoriko horrek gizarte-bizitzari buruzko oinarrizko jakite edo argibideak eskaintzen dizkie gizartekideei, bizitza horretan gaitasun pragmatikoa izan dezaten. Gizakiek, ezagutza hori benetakotzat barneratzean, egiazkotzat jotzen dute hark sostengatzen duen errealitatearen ikusmoldea ere. Hartara, eguneroko bizitzako errealitate soziala ezarritako errealitatetzat jotzen da gizarte bateko kideek partekatzen duten ikuspegi arrunt horretan eta, ondorioz, eztabaidatu gabeko faktizitate edo nabaritasun gisa agertzen da irmotasun osoz. Beraz, ez du egiaztapenik ez sakoneko azterketarik behar. Errealitate horren oinarrian dagoen ezagutza arrunta bera «sen onean» funtsaturik dago, aurre-erreflexiboa eta ez-zientifikoa da, baina horrek ez dio eraginkortasun sozialik kentzen, ebidentzia baten indarra duelako.

Eguneroko bizitzari buruz herritarrek duten ezagutza edo mundu-ikusmolde arruntaren osagaien artean dago estatuak sortutako nazioaren ideia ere. Nazioaren kategoria —odena moral gisa— transmititu eta zabaldu eta nazio-kontzientzia gizabanakoen baitan ainguratzen dute etengabe estatuak sozializazio inguratzaile baten bitartez. Hartara, Michael Billig-ek modu egokian gogorarazten duenez, nazionalismoa ez da soilik estaturik gabeko mugimendu nazionalistek —aldaketa bultzatu nahian— garatzen duten jarduera mota, hau da, aktibismo politikoan eta ezohiko mobilizazio edo protestetan gauzaturiko jarduera «ikusgarria»; hori nazionalismoaren aurpegietako bat besterik ez da. Nazionalismoa, gehienbat, nazio-estatuak eguneroko ohikotasunean murgilduta burutzen duten jarduera «hotza» da. Kontua da ohikotasunaren ezaugarri horrek gehienetan ezkutatu egiten duela estatuaren aipatu jarduna; hartara, estatu-nazionalismoa oharkabean gelditzen da azterketa askotan. Hala, nazionalismoa aldagai politiko partikular gisa aztertu izan da sarritan, nazio-estatuak sortu nahian dabilzan taldeen berezko jardun modura. Eta ez da hartu dagoeneko ezarrita dauden estatuaren politikagintza, kulturagintza eta egintza arrunt guztien ezaugarritzat (Billig, 1998).

Horregatik, gehienetan ez dira azterketetan aintzat hartzen zeintzuk diren jadanik ezarrita dagoen nazio-estatuaren birsorkuntzarako bete beharreko baldintza kulturalak, ideologikoak eta politikoak. Izan ere, ahaztu egiten da estatu orok birsortu beharra duela irauteko, eta birsortze hori egitura objektiboetan nahiz subjektiboetan gauzatu behar dela, hau da, egitura instituzionaletan eta gizabanakoen kontzientzietan. Hain zuzen ere, azken birsortze horretarako estatuak eta haren inguruko erakundeek etengabeko funtzio ideologikoa eta sinboliko-kulturala bete behar dute, herritarren mundua errealitate sozialari buruzko sineste, irudikapen eta praktika sozial jakinez osatzeko. Modu horretan, nazio-estatuak gizabanakoen eguneroko munduan txertaturik dagoen errealitate eztabaida ezin bihurtu da, oharkabeko nonahikotasuna hartu duena gaur egungo estatu-gizarteetan. Nazio-estatuak sorturiko ordena horrek ez du eguneroko plebisziturik jasotzen. Aitzitik, borondatezko leialtasun kontzienteen ordezkari adostasun sistemikoen indarra ezartzen da egunerokotasunean. Eta ohiko jardunen bitartez, herritarrek nazio-estatuaren kide gisa sortzen eta birsortzen dira behartze-sentimendu barik, bai ikuspegi kulturaletik bai identitate-ikuspegitik.

Ildo horretatik, estatuak sortutako nazio-identitatea ezin da ulertu —gaur egungo hainbat testutan egiten den bezala— gizabanakoaren barne-egoeraren edo «ni»aren isla huts modura. Alderdi psikologikoa ukatu gabe ere, identitateek gizartearen eta historian kokatuta dauden bizimodu kolektibo jakinetan daukate beren euskarria. Beste modu batera esanda, nazio-identitateek —bestelako talde-identitateen antzera— kategoria eta irudikapen kolektiboak hartzen dituzte barnean, baita ohitura eta praktika sozialak ere. Nazio-identitatea munduan egoteko eta mundua ulertzeko eta hautemateko modu jakin bat da; aldi berean, mundu hori birsortzeko eta «natural» itxurarekin aurkeztu ahal izateko balio duena. Bizimodu izatean eta eguneroko esperientzia sozialetan erroturik egotean, bizipena hain egiten da ezaguna eta hurbilekoa non berezkoz jotzen den.

Hala, errealitate sozialari buruzko —besteak beste, nazioari buruzko— pentsamendu- eta hautemate-kategoriak gizabanakoen esperientzia praktikoa eta bizipenaren

bitartez birsortzen dira haien baitan, zeren estatuak bultzaturiko egitura kognitiboak eta sinbolikoak eguneroko praktika sozialetan txertaturik baitaude: eskola-ohituretan, etengabe gauzatu behar diren era guztietako praktika burokratikoetan, kontsumo mediatikoetan, kirol- eta kultura-jardueretan, hizkuntza-erabileretan, eta abar. Hitz egitean, eskolaratzean, administrazioekin harremanetan jartzean, telebista ikustean, kirol-ikusketan parte hartzean, ezkontzean, automobila matrikulatzean, osasun-zentrorra joatean edo, besterik gabe hiri-paisaia ikustean (eraikin ofizialak, banderak, kale-izenak, hizkuntza jakin batean idatziriko errotuluak...), estatu-gizarteko herritarrek identitate-marko nahiz mundu-ikusmolde jakin batzuk inskribaturik dauzkaten egitura kognitiboak itsatsitako praktika arruntak gauzatzen dituzte beren eguneroko bizitzan eta, hartara, egitura horiek bereganatzen dituzte modu naturalizatuan. Horrela birsortzen da nazio-estatuaren ordena sinbolikoa.

Jakina denez, birsortze arrunt horrez gain, identitate- eta kideza-sentimenduak biziberritzeko ezohiko abaguneak ere gertatzen dira noizbehinka estatu-bizitzan. Batzuetan ezusteko krisi-egoeren ondorioz sortutakoak izan ohi dira (nazioarteko krisiak, estatu-hiletak, beste estatu batzuekin izandako liskarrak...) eta beste batzuetan estatuak berariaz antolatutako egintzak («aberriaren», «independentziaren» edo armadaren egunaren kariaz egindako ospakizunak, adibidez). Horrelakoetan, ohikotasunaren hoztasuna alde batera utzi eta herritarren atxikimendu afektiboa pizteko baliabideak erabiltzen dira (Billig, 1998). Gaur egun, garrantzizko kirol-lehie eta beste gertakari kultural batzuei ere horrelako esanahia ematen zaie. Hala ere, aldiro-aldiro sentimenduak astintzen dituzten salbuespenezko gertakari horien ostean, ohiko birsortze arrunta izan ohi da berriz ere nagusi. Modu horretan, herritarren bizitza arruntaren oinarrian behin eta berriro sortzen eta haien eguneroko kontzientzian txertatzen den nazio-estatua dago. Eguneroko bizitzako *habitus* inkontziente horrek ohituraren oharkabeko gibelaldea osatzen du; haren bitartez eguneroko bizitza nazionalizaturik agertzen da, nazio-estatua bihurtu delako herritarren bizitzaren nonahiko testuinguru eta agertoki. Aipatu *habitus*ak memoria-eta ahanztura-egiturak jasotzen ditu —estatuaren etengabeko sozializazio-lanak, besteak beste, historiaren eta orainaren irakurketa eta interpretazioa hartzen ditu inplizituki barnean—, eta irakurketa horren arabera kokatzen ditu herritarren pertzepzio eta ikusmolde arruntak koordinatu sozial eta historiko jakinetan —eztabaidagabetuetan—, eta, aldi berean, naturalizatueta. Izan ere, gizarte-ordena eta ordena sinboliko jakin baten naturalizazioa da estatuaren erronkarik —eta lorpenik— handiena. Hain zuzen ere, estaturik gabeko nazio-taldeek ahalmen hori atzeman nahi dute beren estatua eraikiz.

Horrenbestez, zer esan dezakegu artikulu honen hasieran egindako galde-erretara itzulita? Gainbeheran al dago estatua? Eskain diezaioke sozialki irauteko eta birsortzeko bermerik hura aldarrikatzen dabilen gizarte-talde bati? Estatua errealitate konplexua da, aldatzen ari den aurpegi askotako instituzioa, inguruko gizarte-baldintza aldakorretara etengabe moldatuz dabilena. Ildo horretatik, globalizazio-prozesuek eta merkatu kapitalisten azkenaldi honetako eskakizunek eragin nabarmenak sortu dituzte haren egitura eta zereginetan. Badirudi eragin horien ondorioz haren ohiko subiranotasuna murriztuta geratu dela, batik bat esparru ekonomikoari dagokionez. Kulturaren arloan ere, merkatuen eta

populazioen jario globalek erresistentziak eta mugak jarri dizkiete haren behinolako integrazio- eta homogeneotasun-proiektuei. Baina, esan bezala, estatua aurpegi askotako instituzio dimentsioaniztuna da, era askotako ahalmenak eta eginkizunak bideratzen dituen instituzio moldagarria. Aipatu dimentsio horietako bat da artikulua honetan landu den botere sinboliko-kulturala. Gure ustez, metaturiko baliabide sinbolikoek estatu-gizarteko kideengan duten eragin sozializatzailea indartsua da oraindino. Eragin horri esker, gizarte-praktika guztien gibelalde ikusezina osatzen du estatuak ezarritako ordena sinbolikoak. Egiak, lurralde jakin batean buruturiko gizarte-praktiketan estatuaren nonahikotasuna ia erabatekoa izatean, instituzio hori gai izan ohi da gizarte-ordena bere esanetara sortzeko behin eta berriro. Jakina, birsortze hori ez da inoiz perfektua, ez da osoa edo biribila izaten. Horren lekuko dira estatuaren kultura-burujabetzaren aurkako erresistentziak eta tentsioak, kanpotik nahiz barrutik datozenak, eta egungo estatuak gero eta modu nabarmenagoan kudeatu behar dituenak. Haatik, azken urteetako zenbait joera indartsuk estatu-monopolioari aurre egiten dioten arren, sortzen ari diren bestelako instituzioek baino eraginkortasun handiagoa dauka gizarte-errealitatea herritarren eguneroko bizitzan modu sinbolikoan ekoizteko. Hala, birsortze sozialerako eskaintzen dituen baliabideek iraupen sozialerako ezinbesteko tresna egiten dute estatua, gaur egun ere.

BIBLIOGRAFIA

- Bauman, Z. (1997): "Is There a Postmodern Sociology?", in S. Seidman (arg.), *The Postmodern Turn. New Perspectives on Social Theory*, Cambridge University Press, New York, 187-204.
- Berger, P.; Luckmann, T. (1979): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Billig, M. (1998): "El nacionalismo banal y la reproducción de la identidad nacional", *Revista Mexicana de Sociología*, 60. bol., 1, 37-57.
- Bourdieu, P. (1995): *Las Reglas del Arte: Génesis y Estructura del Campo Literario*, Anagrama, Barcelona.
- , (1997): "Espíritus de estado. Génesis y estructura del campo burocrático", in P. Bourdieu (arg.), *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Barcelona, 91-125.
- Elias, N. (1993): *La sociedad cortesana*, Fondo de Cultura Económica, Madrid.
- , (1994): *El Proceso de Civilización. Investigaciones Psicogenéticas y Sociogenéticas*, Fondo de Cultura Económica, Madrid.
- Geertz, C. (1987): *La interpretación de las culturas*, Gedisa, Barcelona.
- Giddens, A. (1994): *Modernidad e Identidad del Yo: el Yo y la Sociedad en la Época Contemporánea*, Península, Barcelona.
- , (2000): *Un mundo desbocado*, Taurus, Madrid.
- Gurrutxaga, A. (2004): "El Estado-Nación en tiempos de incertidumbre", in A. Gurrutxaga (arg.), *El presente del Estado-Nación*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitaipen Zerbitzua, Bilbo, 17-47.
- Lamo de Espinosa, E. (2001): "La Sociología del siglo XXI", *REIS*, 96, 21-49.
- Larrinaga, A. (2007): *Kulturgileak eta kulturaren esparrua II. Euskal kulturgileak Euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

- Lopez, J. (zuz.) (2010): "Noves Estatalitats i Processos de Sobirania", *IDEES, Revista de Temes Contemporanis*, **33** (2010eko urria-abendua), 1-230.
- Mann, M. (1993): "Los Estados-Nación en Europa y en otros continentes", *Debats*, **46**, 102-112.
- , (2003): "¿Ha terminado la globalización con el imparable ascenso del estado-nacional?", in J. C. Monedero (arg.), *Cansancio del Leviatán. Problemas políticos en la mundialización*, Trotta, Madrid, 231-260.
- Monedero, J. C. (2003): "Reglobalización o barbarie", in J. C. Monedero (arg.), *Cansancio del Leviatán. Problemas políticos en la mundialización*, Trotta, Madrid, 9-38.
- Ramos Torres, R. (1995): "La Formación Histórica del Estado Nacional", in J. Benedicto eta M^a L. Morán (arg.), *Sociedad y Política. Temas de Sociología Política*, Alianza, Madrid, 435-471.
- Sassen, S. (2007): *Una Sociología de la globalización*, Katz Editores.
- Smith, A. D. (2000): "¿Gastronomía o Geología? El rol del nacionalismo en la reconstrucción de las naciones", in A. Fernández (arg.), *La invención de la nación. Lecturas de la identidad de Herder a Homi Bhabha*, Editorial Manantial, Buenos Aires, 185-209.
- Strange, S. (2001): *La retirada del Estado. La difusión del poder en la economía mundial*, Icaria, Bartzelona.
- Tilly, C. (1992): *Coerción, Capital y los Estados Europeos, 990-1990*, Alianza, Madrid.
- Weber, M. (1975): *El político y el científico*, Alianza, Madrid.
- , (1979): *Economía y Sociedad*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

2. Estatua, merkatua eta kultura: aurrera begirako erronkak

Josu Amezaga Albizu, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Kulturak leku garrantzitsua izan du nazio-estatuaren eraikuntzan, besteak beste nazioari homogeneotasuna ematen lagundu duelako. Gaur egun, ordea, mugatua da estatuek kultura nazional komuna ezartzeko duten ahalmena: globalizazioaren ondorioz merkatu nazionalak ahuldu egin dira, baita nazioan oinarritutako kultur merkatuak ere; eta kulturen arteko ukipena areagotu egin da, pertsonen eta informazioaren jarioek eraginda. Horri informazioaren teknologien garapena gehitu behar diogu, gure gizartearen barneko kultura-aniztasun hazkorra ulertzeko. Baldintza hauetan, zein behar du estatu batek nazio kulturala osatzeko? Posiblea ote da hori? Zer helbururekin? Eta zer tresna eta kultur politika erabiliz? Horren inguruko gogoeta egiten da artikulu honetan.

State, market and culture: guture challenges

Culture has played an important part in the building of nation states, among other reasons, because it has contributed to the nation's homogeneity. But today the ability of states to impose a common national culture has run up against a limitation: as a result of globalization national markets have been weakened, including nationally-based culture markets; and intercultural contact has intensified owing to the increased movement of people and information flow. Add to that the advances in information technology, and we have a formula for growing internal multiculturalism in present-day society. What does a state require in order to create a national culture in such conditions? Is it even possible? What is the purpose? Through what kind of cultural policies? This chapter addresses those questions.

1. ESTATUA ETA KULTURA

Historiak, ekonomiak eta botere politikoak gizartean sendo finkatutako estatua ahalbidetu duten tokietan, nazioa kulturaren homogeneoa den errealtate bat bezala ager dadin saiatu dira estatuak. Hauxe izan da, estatu arrakastatsuenak gauzatu diren tokietan, kulturaren auziari heltzeko modurik ohikoena, betiere komunitate politikoak eraiki eta boterea legitimatzeko asmoz. Halaxe da, izan ere, estatu modernoek beren sorreratik izan baitute beren inguruan nazioa eratu beharra, naziotzat ulertuz kidetasun-sentimendu bat partekatzen duen eta —ondorioz— bera ordezkatzeko eta «zaintzen» duen botere-egitura bat onartzen duen komunitate politikoak. Kontuan hartuta kultur komunitatea izan dela, historian zehar, talde etnikoen azpian agertzen ziren osagai nagusietako bat, kideak batuz eta talde-nortasuna emanez, nazioaren eraikuntzak ere kultura nazionalaren beharra zuen: hots, nazioa batuko zuen kultura homogeneoa. Hartara, batasun kulturala kolokan jar zezakeen guztia mehatxua zen ikuspegi honen arabera. Hala adierazi zuen 1794an Frantziako Iraultzaren ostean Segurtasun Publikoko Batzordeak:

Le fédéralisme et la superstition parle bas breton; l'émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur... Pour nous, nous devons à nos concitoyens, nous devons à l'affermissement de la République, de faire parler sur tout son territoire la langue dans laquelle est écrite la Déclaration des droits de l'homme (cfr. Cantera Ortiz de Urbina, 1992)³³.

Hartara, kultur bazterketa komunitate politikoaren oinarrian egon da, nazio-estatuan. Bazterketa hori ez da izan soilik estatuaren mendeko lurraldean bizi ziren gutxiengo etnikoen aurkakoa; aitzitik, arrotzen aurka ere erabili izan da, etorkinak ere nazioaren komunitatetik baztertuz (Robins, 2006).

Eskola izan zen, nazio-estatuaren hastapenean, kultura bateratzeko tresna eraginkorra. Bestalde, eskolarekin batera kultur politika bat diseinatzen eta gauzatzen hasi zen. Gaur egun kultur politikatzat ulertzen dugunaren lehen urratsak, seguru asko, Errenazimentuko Italian bilatu behar ditugu, non klase zuzendariak, beren boterea legitimatzeko, mezenasgoa abian jarri baitzuten, sorkuntza eta artea bultzatuz eta diruz lagunduz. Estatutik at ere mintza gintezke kulturaren eragiteko politikaz; besteak beste hor daude Elizaren neurri arautzaileak (abizenak ezartzea adibidez, euskal tradizioan etxearen izena hartzeko ohitura ezabatuz) edota errepresiboak (Inkiszioa). Baina mezenasgoarekin kulturaren eragiteko beste modu bat zabaldu zen. Haren ostean, estatu modernoak kultur politika nazionalizatzailea jarri zuen martxan, dena nazioa aintzatezteko eta eskolaren lana osatzeko: museo nazionalak, akademia nazionalak, eta abarrek erakusten digute asmo hori. Ezin ahaztu daiteke, bestalde, estatu modernoaren ilustrazioaren garaian eratzen dela, eta mugimendu horren azterketa ere aurkitzen dira estatu berrien kultur politikan: jakintza eta hezkuntza elite batzuen eskutik herri-sektore zabalagoetara hedatzeko ahalmenean ikusten da hori. Beste eragile bat, estatua kultur politika jakin batera eramanez, industrializazioa izan zen, horrek —besteak beste— populazioaren

33. Eta jarraian frantsesa ohiko hizkuntza ez zen eta frantsestu beharrekoak ziren lurralde guztietara eskola-maisuak bidaltzeko agindua eman zuen.

alfabetatzea eskatzen baitzuen. Horrela, Errenazimentutik hona osatuz joan zen, XX. mendera arte, autore batzuek kulturaren demokratizaziotzat (Zallo, 1995) definitu duten kultur politika. Baina, betiere, nazioa osatzea eta homogeneousasuna bete beharreko baldintzak zirela.

Komunikabideak ere izan dira, jakina, politika homogeneousatzaile horren tresna paregabeak: XVIII. eta XIX. mendeetako prentsatik hasi eta XX. mendeko ikus-entzunezko medioetaraino, medioek kultur espazio trinkoak osatzen lagundu zuten, non boterearen aldeko ideologiak zein nortasun nazionalerako ikurrak hedatzearekin batera kultura komun bat eraikitzen baitzen. Espazio horrek nazio-espazio politikoarekin ez eze, merkatuarekin ere bat egiten zuen neurrian, azken mende eta erdian garatu den kulturaren industria ere homogeneousotasun nazionalaren eragile izan da.

Nazio-estatuaren kultura nazional homogeneousoaren eredu hori izan da nagusi gure testuinguru soziohistorikoan. Baina ez soilik zapaltzen gaituzten estatuen aldetik, baita estatu horietatik askatzeko asmoz garatu diren diskurtso abertzaleen aldetik ere. Izan ere, Letamendiak azaltzen duenez (Letamendia, 1997), estatu zapaltzaileari aurre egiten dion talde etnikoak ispilu moduan jokatu ohi du haren aurrean, bere estatu propioa aldarrikatuz ez ezik, bere nazio-komunitatea ere eraikitzen ahaleginduz. Eta horretarako berak ere behar du bere kultura nazional propioa, kultura zapaltzaileez bestelakoa, eta bere bazterketa-saio propioari ekiten dio: «gurea» eta «kanpotarra» bereiziz, lehenaren barruan bereizten gaituena lehenetsiz eta bigarrenaren barruan berdintzen gaituena zokoratuz. Horrela, homogeneousotasuna bilatzen da, berriro ere, estatu zapaltzaileak ezartzen duen homogeneousotasunaren aurka.

Honaino iritsita kontua ez da, nire ustez, ispiluko jokaera hau kritikatu eta alboratzea, besterik gabe kultura batzuen bazterketa dakarrelako. Frantziako iraultzaileek mahai gainean jarri zuten arazoa (nola eraiki estatu berria hizkuntz eta kultur aniztasunaren erdian) ez da konpontzen aniztasunaren aldeko diskurtso erretoriko hutsez. Estatua nahi ote dugun ala ez eztabaidatu ahal izango dugu, baina baiezkotan orduan kulturaren auziari adarretatik heldu beharra dago. Eta ez da erraza.

Areago: lehen zaila zen, eta orain zailagoa. Izan ere, zenbait gauza aldatu dira paristarrek Bastilla hartu zutenetik hona, estatutik kulturaren eragiteko ahalmenetan. Lehenik, estatuak lekua galdu du merkatuaren aurrean, beste zenbait arlotan bezala kulturaren ere. Bigarrenik, globalizazioa deitzen dugun fenomeno multzoa hor dago, bere kapital-, populazio- eta informazio-jarioekin, homogeneousotasuna zein kultur-aniztasuna bultzatuz, biak aldi berean eta joera kontraesankorretan. Hirugarrenik, kulturak ere asko aldatu dira, haien arteko ukipena handiagoa da, eta kulturen arteko mugak zedarritzea —eta kultur sistemaz hitz egitea— oso konplexu bilakatu da. Azkenik, teknologiaren garapenak —eta bereziki digitalizazioak— aldaketa nabarmena eragin dezake kulturaren, aurreko garai historikoetan kulturaren euskarri berriak agertu direnean (idazkera, inprenta, edo telebista) eragindakoa bezain handiak gutxienez.

1.1. Estatu eta merkatua lehian

Negozio handia bilakatu den arte, merkatuak ez du nahikoa indar izan estatuaren kultur politikan gehiegi eragiteko. Aspalditxotik erabiltzen zen kultura sosak ateratzeko: kordeleko literatura, saltzen ziren bertso-paperak eta abar dira adibideak. Baina XVIII. eta XIX. mendeetan publiko bat osatuz doa, irakurtzen dakiena, eta hari egokitutako literatura bat sortzen da. Handik aurrera publiko hori zabalduz joango da, hari zuzendutako kultur produkzioa areagotu egingo da, euskarri berriak asmatuko dira (prentsa, irratia, zinema, telebista...) eta kulturaren industria sortuko da. Industria horrek gero eta indar handiagoa izango du, ekonomian bezala ideologian ere, eta estatuarekin kulturaren hegemonian lehiatzeko moduan jarriko da. Gaur egun, kulturaren industria modu zabalean hartuta (informazioaren industria barne), munduko lehen industria dela esan dezakegu³⁴.

Kapitalismoaren logikan sartuta, kulturaren industriak gero eta presio handiagoa egin die estatuei azken hamarkadetan, haiek ezarrita zeukaten zenbait muga altxatu arte. Paradigmatikoa izan zen, 70 eta 80ko hamarkadetan, Europako irratia eta telebistarekin gertatutakoa: ordura arte zerbitzu publikoaren izenean —eta estatuaren legitimazioaren asmotan— jabetza publikokoa izandako eremu hau desarautzen hasi zen, kapital pribatuari sarrera emanez. Gaur egun merkatuaren logika nagusitu da ikus-entzunezko komunikabide guztietan, ez pribatuetan soilik, publikoetan ere, estatuari ideal ilustratuetatik geratzen zitzaizkion azken asmoak —adibidez, telebistaren bidez jendearen heziketa bultzatu— zapuztuz.

Desarautze hori ez da ikus-entzunezko komunikabideetan soilik gertatu, eta kulturaren industria osora zabaldu da. Horrekin batera estatuaren kultur politikak norabidea aldatu du azken hamarkadetan, faktore ezberdinen ondorioz (Zallo, *op. cit.*): batetik gizarte-mugimendu berriak agertzeak zalantzan jarri zuen ordura arte indarrean zegoen kultur eredua, zeinaren arabera estatuaren egitekoa, bereziki, kultura landua herriarengana hedatzea baitzen; izan ere, gizarte-mugimendu horiek kolokan jartzen baitzuten kultura landuaren kontzeptua bera (*pop artea* da adibide bat). Bestetik, estatuak industriarekin lehiatu nahi izango du, herria publiko bihurtuz. Eta hirugarrenik, ongizatearen estatuaren eraispena hasiko da, eta horrekin batera zerbitzu publikoaren kontzeptua bera: krisi-garaietan kulturakoa izango da murriztu daitezkeen aurrekontuetako bat, eta bestalde zenbait egiteko arlo pribatuaren esku utziko dira.

Aldaketa horien ondorioz ekonomiaren logika gero eta barneratuago egongo da kulturen, ez industrian soilik, baizik eta kultur politikan ere. Azken mugimendua kultura sustapen ekonomikorako eta marketin-helburuekin erabiltzea litzateke; Euskal Herrian Guggenheim museoak (Bilbon zein Urdaibaiko asmoa) islatzen du ondoen ideia hori.

34. Eman dezakeen gainbalioa ikusteko, horra *Avatar* filma, inoiz gehien saldu dena: 460 milioi dolarreko kostua izanik (erdia produkzioan eta beste erdia marketinean), ia 3.000 milioiko sarrerak erakarri zituen bere lehenengo urtean (2009).

1.2. Globalizazioa

Ekonomiak kulturaren pisua irabaztearekin batera, kultur subiranotasunarekiko kezka zabalduz joan da munduan zehar. Izan ere, estatu modernoak eratzean, merkatu nazionalak arautzeko gai ziren neurrian kulturaren merkatua ere bidelagun zuten, beren proiektu bateratzailea aurrera eramateko. Hartara, kultur subiranotasunaren auzia oraindik estatu propiorik ez zuten komunitateen auzia zen: gutxiengo etnikoak, kolonizatutako herriak, eta abar. Nazio-izaera edota independentzia ukatzen zieten estatuen *kultur zapalkuntza* salatzen zuten haiek. Alabaina, XX. mendearen bigarren erdian gertatutako deskolonizazio-prozesuek auzi bat jarri zuten mahai gainean: subiranotasun politikoak ez zuela esan nahi subiranotasun ekonomikoa; ez eta subiranotasun kulturala. Azken hori oso nabarmen geratu zen 70eko hamarkadan, Nazioarteko Informazio eta Komunikazio Ordena Berriaren (*New World Information and Communication Order*, NWICO) inguruko eztabaidan. Eztabaida horien bultzatzaileek (MacBride, 1985) nabarmendu zuten, herrialde aberatsenetatik —bereziki AEBtik— planeta osora hedatzen ari ziren kultur ereduak eta komunikazio-agenteak mehatxua ziren herrialde txiroagoetako kultur eta komunikazio-beharretarako, herrialde horiek potentzia hegemonikoen mendeko bihurtuz, ekonomian bezala kultura-arloan ere. Kritika horien esanetan, kultur homogeneizazio horrek kolokan jartzen zuen munduko herri eta kultura gehien iraupena. Mehatxu hori ondoen deskribatzen zuen kontzeptua, 1970eko hamarkadan, *kultur inperialismoa* izan zen. Kontzeptu horrek balio izan zuen zera ulertzeko: nola kulturalki menderatutako gizarteak munduan nagusitutako eredu eta balioetara erakarriak eta itoak ziren, eta haien kultur sustriak balio gabetuak (Schiller, 1976). Esan gabe doa Hirugarren Munduko herrialdeetan hedapen handia izan zuen kontzeptu honek Euskal Herrian ere onarpen handia lortu zuela. Horrela, lehendik zegoen kultur zapalkuntzari (nazio-estatu espainolak zein frantsesak euskal kulturari eragiten ziotena) bereziki eredu anglosaxoietatik zetorrena gehitzen zitzaion.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, gune gutxi batzuetatik zetozen kultur ereduak ez ziren herrialde txiroentzako mehatxua soilik: gero eta gehiago, ekonomia sendoa zuten eta —beren barnera kultur homogeneizazioa oso aurreratuta zuten neurrian— nazio gisa ondo finkatutako eredu zutenetara ere hedatu zen beldurra. Beldur hori gardenki azaleratu zen globalizazioaren eragile nagusietako bat izan den Munduko Merkataritza Erakundearen inguruko negoziatioetan, 1995ean. Izan ere, NWICOren debetetik hamarkada batera, eta lehen mailako kultur eragile gisa estatuak industria pribatuaren aurrean eraginkortasun handia galdua zuen testuinguru hartan, zenbait estatuk aldarrikatu egin zuten, negoziatioetan, *kultur salbuespena*: hots, kultur eta komunikazio-produktuak merkantzien planeta mailako jarioetik salbuesteko eskubidea. Eskubide hori UNESCOk berretsi zuen handik hamar urtera (UNESCO, 2005), eta kultura zein komunikazioaren merkatuaren liberalizazioak beren kultur bateratze proiektu nazionala kolokan jartzeko beldurrez ezarri zuten zenbait estatu indartsuk; Frantzia da, berriz ere, paradigmaticoena

Herrialde gutxi batzuetako medio eta kultur industrietan gainerako herrialdeetan lortzen zuten nagusitasunaren inguruko debate hau, nolabait esateko, ordenatua izan zela esan dezakegu, hala estaturik gabeko herrien eta estatu menderatzaileen

arteko eztabaidaren mailan (kultur zapalkuntza), nola kolono-ohien eta metropolien artekoan (kultur inperialismoa) zein herrialde anglosaxoien eta gainerakoen artekoan (kultur salbuespena). Ordenatua diogu, argi agertzen baitzen kultur boterea gune gutxi batzuetan kontzentratzen zela, eta horietatik gainerako guneetara zabaldu. Globalizazioak aurrera egin ahala, ordea, debatea dezente korapilatu da. Izan ere John Tomlinson-ek dioen moduan (Tomlinson, 1991), inperialismoaren ostean dator globalizazioa, eta azken horren ezaugarri nagusietako bat zera da: konplexutasuna. Horrela, boteregune gutxi batzuek gainerako guztiei beren ereduak ezartzen dizkieten prozesu bat izan beharrean, aldagai ugari eta joera kontrajarri asko dituen prozesu bat da, non are eta ordura arte nagusi izandako herrialdeak ukituak izango baitira: «Globalizazioaren ondorioz nazio-estatu guztien kultur koherentzia da ahulduko dena, ekonomikoki indartsuenena —garai bateko botere inperialistena alegia— barne» (175. or.).

Gaur egun datu ugari ditugu Tomlinson-en analisiari eusteko. XVIII. mendearen amaierako iraultzaile frantziarrek nazio-batasunarentzako oztopotzat jotzen bazuten lurralde batzuetan frantses hizkuntzak lekurik ez izateak, nola baloratu behar dugu gaur AEBn etxean ingelesa ez den hizkuntza bat erabiltzen dutenen kopurua % 11tik % 20ra igo izana azken hogeita hamar urteetan (USA Census, 2010)? Edota herrialde horretako etorkinen artean etxeko hizkuntzari eusteko joera indartu izana (Siegel, Martin eta Bruno, 2000)? Australian ere, etxeko hizkuntza ingelesa ez duen populazioa hazi egin da, % 17tik % 22ra, azken bi hamarkadetan. Europako antzeko daturik ez dugu, baina kontinente zaharreko etorkinen hizkuntzen bizitasunari buruzko lan partzialek (Baker eta Eversley, 2000; Extra eta Yagmur, 2004) antzeko joerak iradokitzen dituzte.

Kultur batasunean oinarritutako batasun nazionala itxuraz lortua zuten herrialdeetan globalizazioaren ondorioz sortzen ari diren erreakzioek ere erakusten dute nazioen kultur koherentzia arriskuan dagoela. Frantzia Nazio Nortasunaren eta Immigrazioaren Ministerioa sortu izana; Europar Batasuneko gero eta herrialde gehiagok (dagoeneko Suedia, Irlanda, Zipre eta Espainiak³⁵ izan ezik beste guztiek) erresidentzia, herritartasuna edo antzeko eskubideak eskuratu ahal izateko hizkuntza nazionalaren ezagutza eskatzea; edota zenbait kultur talde —bereziki islamiarrak— nazio-komunitateko kide izan ote daitezkeen ezbaian jartzea (Sartori, 2001), ideia bera indartzen duten osagaiak dira.

1.3. Komunikabideak, kulturen arteko ukipena eta digitalizazioa

Gure garaiotan (eta seguru asko etorkizun hurbilean) kulturarekin zer gertatzen ari den hausnartzeko, ezinbestekoa dugu komunikazioen eremuan gertatzen ari diren eraldaketei erreparatzea. Komunikabideak ez dira noski kulturaren euskarri eta garraibide bakarrak, eta beste zenbait instituzioren batera egiten dute lan hori: familia, auzoa, eskola, eta abar. Hala izan ez balitz, euskararenak aspaldian egingo zuen, euskarri hori izan gabe iritsi baita XX. mendearen erdialdera. Alabaina, agente horien guztien pisua ez da berdina une historiko bakoitzean, eta gaur egun komunikabideek inoiz ez bezalako pisua hartu dute kulturaren birsorkuntzan, beste

35. Gogora dezagun Espainiako Konstituzioak espainiar guztiek gaztelania jakin beharra ezartzen duela. Beraz, oinarri legala egon liteke jarrita herritartasuna lortzeko —beraz, oinarritzko eskubide zibil eta politikoak lortzeko— hizkuntzaren ezagutza eskatzeko.

eragileen kaltetan. Zenbait arrazoi ageri dira horren atzean: laburki, esan dezakegu bitartekotutako komunikazioak leku handia kendu diola aurrez aurreko harremanari. Gizarte industrializatueta bizimodua atomizatu egin da, gizarte-sareak ahuldu, eta elkarrekintza soziala murriztu. Familiak (kulturaren transmisiorako eragile nagusietako bat) gero eta txikiagoak dira, hirietako bizimodua anonimoa da, populazioaren mugikortasuna hazi egin da, lan- eta bizi-baldintzen aldakortasuna gero eta handiagoa (finkatutako egituren zein ohituren eta tradizioaren kaltetan), eta abar. Egunean telebistaren edo Interneten aurrean batez beste hiru ordu baino gehiago ematen duen gizarte batean bizi gara, kontsumitzen dugun hori modu gero eta bakarkakoagoan kontsumitzen dugularik gainera. Eskolan bertan ere gero eta presentzia handiagoa daukate Interneteko edukiek, zuzenean zein eskola-eragileen bitartez. Honek guztionek, aldaketa teknologikoekin batera, bihurtzen ditu hain garrantzitsu komunikabideak kulturaren dinamiketan.

Alde batetik, komunikabideak, eta kulturaren industriak oro har, transnacionalizatzen ari dira. Horrek kolokan jarri du, jadanik esan dugun bezala, kultur espazio nazionala, duela berrogeita hamar urteko eztabaidek erakutsi zuten moduan. Baina azken hamarkadetan beste fenomeno bat ikus daiteke: migrazio-jario gero eta handiagoen ondorioz herri batetik bestera doazen migratzaileek gero eta eskurago dituzte beren jatorrizko herrietako komunikabideak eta, haatik, kultura. Adibide gisa satelite bidezko telebista jarri ahal dugu. AEBn etxean ingelesa ez den hizkuntza bat egiten dutenen % 90ek baino gehiagok aukera dute, satelitearen bidez, beren hizkuntzazko emanaldiak jasotzeko. Antzeko egoera aurkitzen dugu Australian; Europako datu zehatzik ez dago, baina «Europaz kanpoko hizkuntzek» kontinentera bideratutako emanaldietan duten presentziak joera bera iradokitzen du³⁶. Ikerketa ugari erakusten du, bestalde, etorkinek eta diasporako taldeek jatorriko komunikabideez egiten duten erabilera ez dela anekdotikoa, eta hizkuntzaren, kulturaren, erlijioaren eta nortasunaren birsorkuntzari oso lotuta daudela (bibliografia zehatzeko, ikus Amezaga, 2007).

Horrela, Tomlinson-ek iragarri zuen bezala, transnacionalizazioa ez da jadanik herrialde aberatsetako kultur ereduak gainerakoetara zabaltzera mugatzen; migratzaileek, hein handi batean, herri txiroetatik aberatsetara joaten diren neurrian, haietara eramaten dituzte beren kultur ereduak; eta jatorrizko komunikabideak eskura dituzten heinean, bertan birsortzen dituzte mailetan ekarritako kultura eta nortasuna. Horrela zenbait kontzeptu proposatu izan dira azken urteetan fenomeno hauek azaltzeko: besteak beste *globalizazioa azpitik*, kapital eta merkantzien jarioez gain populazioen jarioak suposatzen duena azaltzeko (Appadurai, 1996); *transnazionalismoa*, mugez haratagoko nazio-nortasunaren birsorkuntza definitzeko (University of Oxford, 2011); edota *transkulturalitatea*, aldi berean kultura eta komunitate ezberdinetan (jatorrizko herrikoa, gizarte hartzailekoa eta nazioarteko migratzaileen sareetako) murgilduta daudenen bizipena azaltzeko (Robins, *op. cit.*).

Jario hazkor horiek inoiz ez bezalako ukipenean jarri dituzte munduko kulturak. Horrela, lehenago kultura baten lurraldearen mugan gertatzen zen elkartrukea, gaur

36. «Europaz kanpoko hizkuntza» kontzeptua bera zalantza jartzerainoko puntura iritsi gara jadanik. Izan ere, hala har ote daiteke arabiera adibidez, kontinentean milioika hiztun dituela jakinda (eta historiari erreparatu gero, presentzia luzea izan duela gogoratu)?

egun lurralde eta maila guztietara hedatu da. Elkartruke hori, gainera, ez da bi edo hiru kulturaren arteko harremanetara mugatzen, kultura ugariren artean gertatzen da aldi berean. Horrela, kultur sistemen baitan betidanik egon diren joera zentrifugoen (hots, osagaiak sakabanatu eta beste kultura batzuen osagaiak barneratu) eta joera zentripetoen (osagaiak kohesionatu eta ardatz edo gune nagusi baten inguruan bildu) arteko oreka lehenengoan alde ebazten ari da. Ondorioz, gero eta zailagoa da kulturak sistema itxi eta zedarritu bezala ulertzea. «Zer da euskal kultura?» erako galderak, erantzun zailekoak lehenago, are erantzun konplexuagoak dira gaur egun.

Aldaketa teknikoek bestalde, eta digitalizazioak bereziki, areagotu egiten dituzte joera horiek. Horrela, satellite bidezko telebistari buruz adibide gisa eman ditugun datuak are altuagoak dira Internet bidezko komunikabideen erabilera (telebista, irratia, prentsa, eztabaidaguneak eta era guztietako edukiak) jotzen badugu. Kultura digitalizatzen ari da, eta horrek ekarriko dizkion aldaketen tamainaz hausnartzeko nahikoa da informazioaren euskarrietan historian zehar izan diren aldaketa nagusiek kulturari nola eragin dioten begiratzea: alegia, zer ekarri zion kulturari idazkuntzak, zer inprentak, zer telebistak. Digitalizazioak zer ekarriko duen ez dago argi, baina aldaketa handia izango da.

2. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

2.1. Kulturaren eragin?

Laburbil dezagun orain arte irudikatu dugun panorama. Batetik, estatuak espazio nazionalerako kultura bideratzeko duten ahalmena ahulduz doa, kulturaren industria pribatuaren eta merkatu globalizatuen mesedetan. Bestetik, kulturen arteko ukipena gero eta handiagoa da, populazioen zein komunikazioen planeta mailako jarioek eraginda. Hirugarrenik, munduko gizarteak, beren artean, gero eta homogeenagoak dira kulturari dagokionez; baina aldi berean, beren barnean gero eta heterogeenagoak. Azkenik, eta honen guztiaren ondorioz, edozein estaturentzat gero eta zailagoa da kultur politika eraginkor bat garatzea. Areago, panorama honen aurrean oinarritzko galdera batzuk egin beharra dago: garrantzitsua ote da kultura Euskal Estatuaren eraikitzeak? Hala bada, zein izan behar dira kulturaren eragitearen helburuak? Eta zein tresnak?

Lehenengo galderari dagokionez, Euskal Herrian ezagunak ditugu nazio-erakuntza kultur komunitatetik at egin beharra dagoela dioten planteamenduak: bereziki euskal nazionalismoa ukatzeko eta espainiar nazioa sendotzeko eginiko planteamenduak dira, euskaldunoi geure kultura garatzea oztopatu eta Espainia «erregio» ezberdinek osatutako proiektua dela defendatzen dutenak. Habermasen «konstituzioaren abertzaletasunaz» (Habermas, 1989) egin diren irakurketa interesatu hauek, alabaina, zerikusi txikia dute errealitatearekin: izan ere, kontzeptu horren jatorrizko defendatzaileak ukatzen duena ez baita kultur komunitatearen aukera, nazioa ardatz etniko soiletan oinarritzeko asmoa baizik (logikoa bestalde, nazismoa gainditu nahi zuen gizarte batetik etorrira). Eta historiak erakusten du konstituzio batean jaso daitezkeen ideologia politiko hutsek ez dutela nahikoa

trinkotzen nazioa. Horrela, Castells-ek dioen bezala (Castells, 1997), inoiz izan den estatutik indartsuena, SESB, ez zen gai izan ideologia politiko baten eta gizarte eraldatzeko asmo baten inguruan nazio sobietikoa eraikitzeke, eta estatua ahulduaz bat kultur komunitateetan oinarritutako hainbat naziotan hautsi zen. Berdin gertatu zen Jugoslavia ohian, eta are estatu gisa tradizio handiagoa izan duen Belgikan (azken urteotan ikusten ari garenez). Hartara, estatua eraikitzeke nolabaiteko kultur komunitatea beharrezkoa dela esan dezakegu. 1789an irekitako debatea (nola eraiki estatua kultur batasunik gabe) oraindik ez da amaitu.

Debate horri multikulturalismoarekin erantzun nahi izan diote zenbait herritan: kultur aniztasuna errespetatuz nazio-komunitatea eraikitzeke politikari esaten diogu hemen multikulturalismoa. Adibide nagusiak AEB eta Kanada dira. Lehenengoaren kasuan, gogora dezagun AEBn gizarte pluralari kohesioa eman zion kultura bat, bai, garatu zela XX. mendean: masa-kultura deritzona, zeinak etorkinen kultura askotatik jasotako osagaiez (hanburgestatik rock-eraino) herritarrei nortasun kulturala eman baitzien, nazioaren osagai garrantzitsu bilakaturik (beste osagai batzuekin batera, hala nola narrazio historikoa —indiarren aurkako kolonizazioa, independentzia-gerra—, amets amerikarra etab.). Kanadan, bestalde, nazioaren eredu bera jartzen du zalantzan Quebec-en independentzia-asmoak. Eta azken horretan garatu den kultur politikak oso argi utzi du multikulturalismoa ez dela bateraezina gutxieneko kultural komun batzuen ezarpenarekin: hizkuntza da horietatik behinena (Kymlicka, 2003).

Bestalde, kulturak komunitatea sortzeko espazioa eraikitzen laguntzen du. Kultura ez da nortasun-emaile soila, aitzitik, komunikaziorako oinarria ere bada. Hizkuntzaren adibidea dugu hemen: hizkuntza kulturaren osagai da, eta hizkuntzaren bidez komunikatzen gara. Kultur osagai hori partekatu ezean, nekez komunikatuko gara. Antzera gertatzen da gainerako kultur osagaiekin: zenbat eta gehiago partekatu, orduan eta komunikatzeko ahalmen handiagoa dugu. Eta hau aplikagarria zaie bai kultur edukiei (hizkuntza, balioak, ohiturak, etab.), bai kultur instituzioei (komunikabideak, kulturaren industria, etab.). Eta, jakina, komunikazioa ezinbestekoa da estatu demokratikoa osatzeko: eremu publikoa eratzeko alegia, non herritarrek parte hartu ahal izango duten, gizarte zibila eraikiko den, eta abar.

Beste maila batean, kultura errealitateari aurre egiteke garatzen dugun sistema dela gogoratu behar dugu. Eta herri bezala garatu nahi badugu, geure kultura behar dugu. Hemen oso garrantzitsua da ulertzea aurretik aipatu ditugun kultur fenomenoak (kultur zapalkuntza, kultur inperialismoa, eta globalizazioa) bakoitza aurrekoa ezabatu gabe ezarri direla, bata bestearen gainean pilatuz. Horrela, kultur inperialismoaren garaiak ez zuen ekarri, Euskal Herrian, Espainia eta Frantziatik pairatzen genuen kultur zapalkuntzaren ezabaketa; hori berdin-berdin mantendu zen, baina erronka berri bati egin behar zion aurre euskal kulturak: eredu anglosaxoien erasoari, alegia. Berdintsu gertatzen da orain, globalizazio-garaian. Globalizazioak dakartzan joera berriek (adibidez, etorkinen kulturen errotzea herrialde aberatsenetan, edota komunikazio-agente berrien agerpena) ez dute ezabatu lehengo kultur agente hegemonikoek zuten indarra³⁷. Horrela, bata bestearen gainean ezarritako geruza

37. Horren adibide, gaur egun dozena-erdi bat konpainiak dute planeta osoko komunikazioen merkatuaren zatirik handiena, konpainia horiek oso leku gutxitan kontzentratzen direlarik: AEB (Time-Warner, Disney, Viacom eta News Corporation), Japonia (Sony) eta Alemania (Bertelsmann) (Thussu, 2006).

ezberdinen antzera, maila ezberdinetan aurre egin behar dio, kulturari, Euskal Estatuaren proiektu batek. Zeren aurre egiten ez badio, proiektu hori babestuko lukeen gizartea, bere osotasunean, eta berau osatzen duten banakoak, beste kultur botere batzuen mende geratuko baitira.

2.2. Eragitearen helburuak

Orain arte ikusi dugunagatik, zaila dirudi nazio baten kultur homogeneousuna irudikatzeak. Zaila ez ezik, desiragarria ere ez dela esango nuke, horrek ezinbestean kultur zapalkuntza dakarrelako. Historian zehar herriak, hein handi batean, kulturen arabera bereizi izan dira, eta nazio-estatuak ezberdintasun horiek areagotu egin zituen, komunitate homogeneousen bila. Gaur egun ordea mugak lausoak dira.

Alabaina esana dugu gutxieneko komun batzuk beharrezkoak izango dituela balizko Euskal Estatu batek, baldin eta bere inguruan komunitate politikoa eratu nahi badu. Hizkuntza izan liteke, bere ezaugarriengatik, horietako bat: historiarekin lotzen gaitu, eskuragarria da, komunikatzeko sistema nagusia da, eta abar. Horixe da, bestalde, jadanik esan dugun moduan Europako estatuetakoa joera: hizkuntzaren ezagutza eskatzea, gutxieneko eskubide batzuk lortzeko. Hartara, nekez leporatu ahal izango dio inork Euskal Estatu bati planteamendu etnizista edo esentzialistari, hizkuntza ezartzeagatik.

Baina zalantzarik ez da, asko dagoela hemen eztabaidatzeko: hizkuntzaz gain, zein diren euskal komunitate politiko batek bere biziraupenerako ziurtatu behar dituen gutxieneko kulturalak: oroimena, balioak, praktikak, eta abar. Kultur politika batek horrelako helburuak ezarri behar izango baititu.

Etorkizun hurbilean pil-pilean egongo den beste debate bat multikulturalismoarena izango da, etorkinen jarioak dakarren kultur aniztasunari aurre egiteko politika gisa ulertuta. Herrialde aberatsetan garatu diren beste politikek, segregazioak eta akulturazioak, porrot egin dutela dirudi: lehenengoan, adierazgarriak izan ziren Angela Merkel-en hitzak 2010ean (*The Guardian*, 2010), etorkin kurdu eta turkiarrak nazioaren eraikuntzatik baztertzeko hamarkadetako politikaren porrota onartuz: «Uste genuen alde egingo zutela, eta bertan geratu dira!». Bigarren ereduari, etorkinak akulturizatzen eta nazionalizatzen gehien saiatutako herrialdeak, Frantziak alegia, ikusi du, hala Fronte Nazionalaren jarreretan nola 2005eko udazkenean hirugarren gizaldiko magrebtarrekin izandako istiluetan, nola kolokan jartzen zen integrazio-eredua. Hartara, badirudi gaur egun multikulturalismoa dela auziari aurre egiteko politika bakarra. Baita helburu zehatzak definitzen eta gauzatzen zailena ere, seguru asko.

Edozein kultur politikak kontuan hartu behar duen beste helburu bat, bestalde, kulturaren balioa bera aintzatestea da. Esan nahi baita, kulturak nazio-komunitateari osatzeko duen balioaz gain, pertsonak garatzeko eta gizataldeek beren errealitateari aurre egiteko ezinbesteko tresna da. Lan honetan arlo horri apenas jaramonik eman ez izanak ez du esan nahi gaiak gogoeta sakona behar ez duenik. Aitzitik, gaiak zeharkako trataera beharko luke atal bakoitzari buruzko gogoetan. Genero-zapalkuntzari, naturarekiko harremanari, justizia sozialari, eta abar luze bati aurre

egin ahal izateko, ezinbestean kulturari eragin behar zaio. Horregatik, kultur politika batek oso argi definitu behar ditu, bere helburuetan, nolako gizartea nahi duen, eta haren arabera politikak garatu. Eta zenbait kasutan, patriarkalismoan kasu, horrek kulturaren erro sakoneten esku hartzea dakar.

2.3. Kultur politika baterako tresnak

Behin kulturaren eragitearen helburuak zehaztuta, tresnak zein izango diren erabaki beharra dago.

Artikuluaren zehar erakusten saiatu garen bezala, gaur egungo estatuak lehen baino ahalmen txikiagoa dute kultur politika eraginkorra burutzeko; ekonomian gertatzen zaien bezala gertatzen zaie kulturari. Lehenago estrategia nagusi bi zeuzkaten horretarako: parte-hartze zuzena (beren mendeko erakundeekin bitartez), eta arautzea (herriaren zein ekimen pribatuaren jarduna kontrolatzeko). Orain, ordea, lehena merkatuaren logikaren baitan sartu da, eta bigarrena nabarmen murriztu da, dela globalizazioaren ondorioz (estatu batetik kontrolatzeko zailak diren kultur jario transnazionalak), teknologiaren ondorioz (informazioaren garraioa teknologikoki espazio nazionalera mugatzeko ezintasuna) edota ideologia neoliberalaren ondorioz. Honek guztionek asko zaildu du kultur politika.

Alabaina esan dugun moduan, estatu batek ezin dio muzin egin kulturari eragiteari, baldin eta bere biziraupena bermatu nahi badu eta, bereziki, gizarte askeago baterako tresna izan nahi badu. Kultura gauza garrantzitsuegia da merkatuaren edota beste estatu batzuen esku uzteko. Beraz, zailtasunak zailtasun, eragiteko bide berriak garatu beharko dira.

Historian zehar, hiru eragile nagusi agertu dira kulturen joan-etorrietan: herria-gizartea, boterea-estatu (Eliza barne hartuta), eta merkatua. Une historiko bakoitzean hiruretatik bat nagusitu da. Bakoitzaren nagusitzeak ez du ekarri besteen desagertzea, eta gaur egun hiru mailetan aurkitzen ditugu indar handiak kultur gintzan. Kultur politika batek, hartara, hiruak kontuan hartu beharko ditu bere helburuak betetzeko.

Herria-gizarteari dagokionez, Euskal Herrian tradizio handia eta sare sozial trinkoak eratu dira kultur gintzan, eta horiek sendotu eta garatzeak izan behar du helburu nagusia. Duela hamarkada batzuetako *herri-kulturaren* inguruko debatetik berreskuratu daitezkeenak berreskuratuz, baina egungo dinamikan oinarri jarritz, lehen mailako helburua izan behar da herritik datozen ekimen eta dinamika bultzatzea, hala tradizioari lotuago daudenak nola joera eta erabilera berriei lotuagoak: teknologia berrien erabilera esaterako. Azken horri dagokionez, kontuan hartu behar dugu XX. mendean kulturaren industriari botere handia eman dion faktore bat zera izan dela: komunikabideen kontzentrazioa eta norabide bakarreko izaera (igorle bat eta hartzaile asko), *masa-komunikazioa* izenez ezagutu dena, alegia. Gaur egun autore batzuk (Castells, 2009) *masen autokomunikazioa* mintzatzen dira, hartzaileak protagonismo gero eta handiagoa hartzen ari direla eta komunikazio-agente xume baina ugariak sortzen ari direla nabarmentzeko (web 2.0 erako fenomenoak). Ingurumari honek sortzen duen lilura alboratuta, eta

ondorio sendoak ateratzeko fenomeno berriegia dela ahaztu gabe, joera horri arreta berezia jarri behar dio kultur politika batek, herri-dinamikak bultzatzeko bide bat izan baitaiteke.

Lehenago esan dugun moduan, kultura digitalizatzen ari da, kultur edukiak gero eta gehiago euskarri digitalizatueta funtsatzen diren neurrian (honek dakarren garraio eta banaketarako erraztasunarekin). Horregatik, komeni da garapen bide horri arreta berezia jartzea, eta herri-dinamika bereziki garrantzitsua izan daiteke arlo honetan.

Estatuak zuzenean egin dezakeenari buruz, bere ahalmen handienetako bat arauak ezartzea da: neoliberalismoaren aurka, ezinbestekoa da marko bat ezartzea, non eragile guztiek jokatu beharko duten. Hizkuntzari buruzko arauak, edukiei buruzkoak, monopolioei buruzkoak, eta abar, ezin dira gelditu estatuaren eskumenetatik kanpo. European badira, jadanik aipatu dugun moduan, zenbait kasu aztertzeko baliagarriak izan daitezkeenak arlo honetan aurrera egiteko.

Baina estatuaren parte-hartzea ezin da mugatu arauketara, besteak beste horrek ere muga handiak baititu bizi garen munduan. Azaldu dugunez, oso murriztuta daude estatuaren ahalmenak zeregin honetan. Hortaz, bestelako esku-hartze moduak garatu beharko ditu, eta horietako bat euskal kultur produkzio propioa bultzatzea izango da, bai herri-ekimenetik datorrena, bai industriatik etor daitekeena. Digitalizazioarekin kultur produktu askoren banatze-bideak asko merkatzen dira eta oso eskuragarri bilakatzen dira (esaterako, ikus-entzunezkoak, musikagintza, edota literatura); esfortzua, beraz, produktu horien sorkuntzan jarri behar da, merkatua kultur politika orokorraren helburuekin bat datozen produktuez hornitzeko.

Estatuaren esku-hartze zuzenari dagokionez, haren ardura nagusietako bat da euskal kulturaren gune sendoak osatzea, kulturgintza berria elikatu dezakeen informazio-, ezagutza- eta erreferentzia-iturri izan daitezkeenak. Bestela esateko, euskal kulturaren tradizioa bildu, landu, eta eskuragarri jarri: museoak, liburutegiak, artxibategiak... herri honek duen kultur altxor historikoa balioetsi, alegia. Zentzu horretan, gutxiegitan balioesten da Euskal Herriak Europaren barnean duen balio kulturala, milaka urtetan bizirik iraun duen hizkuntza baten gordailu izanik. Kanpotik —eta bereziki kulturaren industria transnazioaletik zein beste estatuetatik— datozkigun ereduak kontrapisua egiteko balio behar du erreferentzia-iturri honek.

Azkenik, merkatuari dagokionez, jadanik esana dugu ahal den neurrian arautu beharra dagoela haren jarduna, baita kulturaren ere. Bestalde, ezin ahaztu daiteke kultur industria gaur egungo munduko ekonomiaren arlo handienetako bat dela, eta ez dago zertan joera horretatik apartatu: kulturaren balio ekonomikoa ere kontuan hartzekoa da beraz, eta ekonomia garatzeko arlo gisa ulertu. Horrela, kulturaren inbertitzea jardun ekonomiko gisa ere ikusi behar da. Baina betiere iparra galdu gabe: kulturaren egiteko nagusia ez baita dirua sortzea, gizarte libreago bat eta herri libreago bat eraikitzen laguntzea baizik. Zentzu horretan, oreka zailak egin beharko lituzke Euskal Estatu batek arlo honetan.

Pertsona libreek osatutako herri libre bat eraikitzeko, kultur propioa behar dugu, munduko gainerako kulturekin harremanetan egongo den kultura, eta herri bezala eratuko gaituena. Eta horretarako egungo joera homogeneousatzaile zein ukatzaileei aurre egingo dien kultur politika bat garatu beharra dago. Kultur politikak, baina, estatu-egitura propioa behar du atzetik, beste estatu batzuen mende edo merkatuaren esku geratuko ez bada. Hortik begiratuta, beraz, kulturaren bidez jendarte libreago bat eraikitzeko saioak estatu baten babesa beharko du. Eta, aldi berean, beste arlo askotan ere aurrera egin ahal izateko Euskal Herriak beharrezkoa duen estatu horrek kulturaren beharra izango du, bere inguruan nazioa bildu eta komunitate politikoa eratu ahal izateko. Euskal kulturak estatua behar du, eta Euskal Estatuak kultura behar du.

BIBLIOGRAFIA

- Amezaga, J. (2007): "Geolinguistic Regions and Diasporas in the Age of Satellite Television, *International Communication Gazette*", **69(3)**, 239-261.
- Appadurai, A. (1996): *Modernity at Large. Cultural Dimensions of Globalization* (1998), University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Baker, P. eta Eversley, J. (2000): *Multilingual capital: The languages of London's schoolchildren and their relevance to economic, social and educational policies*, Battlebridge Publications, Londres.
- Cantera Ortiz de Urbina, J. (1992): "'Lengua e imperio' en la política de la Revolución Francesa y sus antecedentes en la Península Ibérica en el siglo XVI (en el quinto centenario de la 'Gramática castellana' de Nebrija: 1492-1992)", [berreskuratua 2009-04-01: <<http://revistas.ucm.es/fll/11399368/articulos/THEL9292120029A.PDF>>].
- Castells, M. (1997). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura, 2. bol.: El poder de la identidad*, Alianza, Madril.
- , (2009): *Communication Power*. Oxford University Press, USA.
- Extra, G. eta Yagmur, K. (2004): *Urban Multilingualism in Europe. Immigrant minority languages at home and school*, Multilingual Matters Limited, Clevedon.
- Habermas, J. (1989): *Identidades nacionales y postnacionales* (1988 bol.), Tecnos, Madril.
- Kymlicka, W. (2003): *La Política Vernacula: Nacionalismo, Multiculturalismo y Ciudadanía*, Ediciones Paidós Iberica.
- Letamendia, F. (1997): *Juego de espejos. Conflictos nacionales centro-periferia*, Trotta, Madril.
- MacBride, S. (1985): *Many Voices, One World: Communication and Society, Today and Tomorrow* (bertsio laburtua), UNESCO.
- Robins, K. (2006): *The Challenge of Transcultural Diversities Cultural Policy And Cultural Diversity* (1. ed.), Council of Europe, Estrasburgo.
- Sartori, G. (2001). *La sociedad multiétnica: pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*, Taurus, Madril.
- Schiller, H. I. (1976). *Communication and Cultural Domination*, M.E. Sharpe.
- Siegel, P.; Martin, E. eta Bruno, R. (2000): *Language Use and Linguistic Isolation: Historical Data and Methodological Issues. Presented at the FCSM Statistical Policy Seminar*, US Census Bureau, Bethesda [berreskuratua: <<http://www.census.gov/hhes/socdemo/language/data/census/li-final.pdf>>].

- The Guardian (2010): "Angela Merkel: German multiculturalism has 'utterly failed'" (2010-10-17), Londres [berreskuratua: <<http://www.guardian.co.uk/world/2010/oct/17/angela-merkel-german-multiculturalism-failed>>].
- Thussu, D. (2006): *International Communication: Continuity and Change* (2. ed.), Bloomsbury USA.
- Tomlinson, J. (1991): *Cultural imperialism. A critical introduction*, The Johns Hopkins University Press, Baltimore.
- UNESCO (2005). *Convention on the Protection and Promotion of the Diversity of Cultural Expressions*, Paris [berreskuratua: <http://portal.unesco.org/en/ev.php-URL_ID=31038&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html>].
- USA Census (2010): *2010 Census* [berreskuratua 2011-03-03: <<http://2010.census.gov/2010census/>>].
- University of Oxford (2011): *Transnational Communities Programme* [berreskuratua 2011-01-14: <<http://www.transcomm.ox.ac.uk/>>].
- Zallo, R. (1995): *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

3. Euskal kulturaren adierazpideak: sendotasunak eta ahultasunak balizko Euskal Estatu baten aurrean

Patxi Juaristi Larrinaga, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakalea

Kultura guztiek bezala, euskal kulturak ere, bi eratako adierazpideak ditu: berbazko komunikazioan oinarritzen direnak (bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza, literatura, telebista, irratia, Internet, zinema, prentsa, liburugintza, aldizkarigintza, ipuin-kontagintza...) eta berbazkoa ez den komunikazioa darabiltenak (dantza, arte ederrak, arkitektura, urbanismoa, moda, diseinua, musika...)

Artikulu honetan, berbazko komunikazioan oinarritzen diren bost adierazpide kultural aztertzen dira (bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza, liburugintza eta zinema), euskal kulturaren alde sendo eta ahulak ezagutzeko, baita berau indartzeko bultzatu behar diren estrategiak zeintzuk diren jakiteko ere.

Basque cultural forms: strengths and weaknesses in a hypothetical basque state

Basque culture, like all cultures, adopts forms which can be classified into two broad types: those based on verbal communication, such as bertsolaritza, songwriting, drama, literature, television, radio, internet, cinema, the press, books, periodicals or storytelling; and those which use non-verbal media, such as dance, fine arts, architecture, town planning, fashion, design, music etc.

This chapter examines five cultural forms based on verbal communication —bertsolaritza, songwriting, drama, books and cinema— in an attempt to identify the strong and weak points of Basque culture, and asks what strategies need to be pursued in order to make them more effective.

SARRERA

Euskal Herrian nortasun eta kultura desberdinak bizi dira. Tradizioz euskaraz bizi izan direnen alboan, kultura eta nortasun espainiarra eta frantziarra daude, baita azken aldiaren etorritako etorkinen identitateak eta ohiturak ere (ikus Baxok eta beste batzuk, 2006). Hain lurralde txikian, horrenbeste mundu-ikuskera elkarren alboan, elkar ukitzuz edota nahastean bizitzearen ondorioz, desadostasun asko daude euskal kultura definitzerakoan. Batzuen iritziz, euskal kultura da euskara hutsez egiten dena (eredu linguistikoa); beste batzuen ustez, aldiz, euskal kultura Euskal Herria jaio edota bizi direnek egiten dute, edozein delarik darabilten hizkuntza (eredu administratibo-azotartasunarena).

Eztabaida hau ez da hutsala. Izan ere, definizio batean edo bestean oinarritzeak ondorio argiak ditu politika kulturalak zehaztu edota bultzatzerakoan. Eredu linguistikoaren alde egiten dutenen arabera, euskal kultura sendo bat edukitzeko, indarrak, diruak eta politikak euskarazko adierazpen kulturalak babestera bideratu behar dira, nagusiki. Sorguneak Ikertegiak “Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak” xostenean zioen bezala (2011: 14): «Euskara da herri honetako berezko hizkuntza minorizatua, eta beronen garapenaren aldeko ahalegina dagokie euskararen komunitateari eta botere publikoei. Horrek, kultur politika ulertzerakoan ere aldagai hau funtsezko aldagai bezala ulertzea esan nahi du».

Euskal Herriko eraikuntza kulturala Euskal Herria bizi diren kulturgileen administrazio-azotartasunean oinarrituta eraiki behar dela diotenen arabera, aldiz, Euskal Herria bizi direnek egiten dute euskal kultura, kontuan hartu gabe sorkuntzarako euskara, gaztelania, frantsesa edo beste hizkuntzaren bat erabiltzen duten. Beraz, edozein delarik darabilten mintzaera, euskal lurra sortzen diren adierazpen kultural guztiak modu berean lagundu eta babestu behar dira.

Eusko Jaurlaritzak 2010ean aurkeztu zuen *Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratura* (2010) izenburua duen kultura-planean, adibidez, euskarazko eta gaztelaniazko kulturei trataera bera emateaz hitz egiten da (www.euskadi.net): «Kulturen aldeko kontratu honek oso kontuan hartu du euskal gizartearen hizkuntza-aniztasuna, eta era berean eragiten die euskarazko zein gaztelaniazko jardueri...».

Euskal kulturari buruzko definizio eta estrategia desberdinen ondorioz, euskal kulturaren irakurketa, diagnostiko eta aurreikuspen, ez bakarrik desberdinak, kasu batzuetan, kontraesankorrak ere agertzen dira. Alegia, euskal kulturari buruz hartzen diren posizioak egiten den definizioaren arabera aldatzen dira. Euskarak bizi duen gutxiagotasun-egoeraren ondorioz, gehienetan, irizpide linguistikotik abiatzen direnek administrazio-azotartasunetik abiatzen direnek baino diagnostiko, aurreikuspen edota etorkizunari buruzko irakurketa ezkorragoak egiten dituzte.

Eztabaidak eztabaida, niretzat, euskal kultura euskaraz egiten den kultura da, eta, beraz, artikulua hau irizpide horretan oinarrituta idatzita dago.

1. EUSKAL KULTURAREN ADIERAZPIDEAK

Kultura guztiek bezala, euskal kulturak ere bi eratako adierazpideak ditu. Batetik, berbazko komunikazioan oinarritzen direnak daude: bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza, literatura, telebista, irratia, Internet, zinema, prentsa, liburugintza, aldizkarigintza, ipuin-kontagintza... Bestetik, ez-berbazko komunikazioa darabilten adierazpideak ditugu: dantza, arte ederrak, arkitektura, urbanismoa, moda, diseinua, musika...

Artikulu honetan, berbazko komunikazioan oinarritzen diren bost adierazpide kultural aztertuko ditut (bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza, liburugintza eta zinema), eta albo batera utziko ditut ez-berbazkoak direnak, nahiz eta dakidan euskal kulturaren parte garrantzitsua direla. Aukeraketa hau egiteko arrazoia da, berbazko komunikazioari loturiko adierazpideetan jokatzeko delako, batez ere, euskararen etorkizuna, eta, horrenbestez, baita euskal kulturarena eta euskal hiztunen komunitatearena ere. Are gehiago: nire ustez, bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza, liburugintza eta zinema aztertuta, balizko Euskal Estatu bat eraikitzeke prozesuan, euskal kulturaren alde sendo eta ahulak ezagutzera hurbil gintezke, baita berau indartzeko bultzatu behar ditugun estrategiak ere.

1.1. Bertsolaritza

Bertsolaritza antzinako adierazpide kulturala da (Amuriza, 1996 eta Urkizu, 1996: 13). Dena dela, azken 30 urteotan, berrizatzeko eta modernizatzeko gaitasuna izan du, eta euskal kulturaren adierazpiderik arrakastatsuenetarikoa bihurtu da (Siadeco, 1995 eta Aierdi eta beste batzuk, 2007). Horretan, hainbat faktorek izan dute eragina, baina nik elkarri lotuta dauden lau faktore aipatuko ditut: bertso-eskolak, Bertsozale Elkarteak, txapelketak eta bertso-saioak.

Aro modernoko lehen bertso-eskola Aretxabaletako Almen ikastolan sortu zen, 1974an. Handik abiatuta, 80ko hamarkadan zehar, hainbat bertso-eskola ireki izan ziren.

Eskola horiek lan bikaina egin dute azken 30 urte hauetan. Irudi berria eman diote «hitzaren kirol nazionala»ri, eta profil berriko bertsolariak sortu dituzte. Eskolek egindako lanaren erakusle ona da 1997ko txapelketan parte hartu zuten 47 bertsolarietako 26 unibertsitatetik pasatutakoak zirela.

Baina bertsolariak sortzeaz gain, eskolek herritarrak bertsozaletu dituzte, eta bertsolaritzaren fundamentuak sozializatu. Agian gehiegi esatea da, baina iruditzen zait inoiz ez dela izan bertso on eta txarren artean desberdintzen duen horrenbeste bertsozale.

Bertsolaritzaren biziberritzean Bertsozale Elkarteak ere garrantzi handia izan du (<http://www.bertsozale.com>). 1987an, Bertsolari Elkarteak sortu zen, 1995ean, Bertsozale Elkarteak izena hartu zuelarik. Elkarteak oso ondo jakin du bertsolaritzaren inguruko indarrak biltzen, eta momentu honetan, 2.400 bertsolari, gai-jartzaile eta bertsozale batzen ditu. Elkarteari esker, txapelketak eta bertso-saioak hobeto antolatzen dira, eta hainbat ekimen eta azpiegitura bultzatu dira: telebista-programak

(lehena 1988an); material didaktikoak (lehengoak 1988an); *Bertsozale* berripapera (1989an sortua); Xenpelar Dokumentazio Zentroa (1991) edo Lanku enpresa (1999).

Bertsolaritzaren indartzean eragina izan duen hirugarren faktorea, nire ustez, bertsolari-txapelketak izan dira.

Batzuen ustez, txapelketek sortzen duten dinamika konpetitiboak kalte egiten dio bertsolaritzari, bertsolari on asko beldurtu egiten direlako eta bertsolaritzatik kanpo gelditzen direlako.

Hori gertatzen dela ukatu gabe, nire irudiko txapelketek indartu egin dute bertsolaritza. Izan ere, komunikabideen arreta erakarri dute, bertsolaritza sozializatu dute eta jende asko bertsozaletu. Kontuan izan, 2009. urteko Txapelketa Nagusiko finalean, 14.500 ikus-entzule bildu zirela, sarrerak bi aste lehenago amaituta zeudela, eta telebista eta irratietatik milaka bertsozalek jarraitu zutela zortzi bertsolarien arteko lehia.

Bertso-jaialdiak dira bertsolaritza indartu duten laugarren faktorea.

Bertso-eskolek, Bertsozale Elkartearen ekimenez eta bertsolari-txapelketek bertsolaritzarentzako testuinguru egokia sortu zuten 80ko hamarkadan, eta bertso-saioak ugaritzen hasi ziren hamarkada horren bukaeran. Horrela, 90eko hamarkadaren hasieran, bertsolaritzak izugarritzko boom-a ezagutu zuen. 1992. urtean, adibidez, 715 bertso-saio burutu ziren Euskal Herrian, 250.000-300.000 ikus-entzule inguru erakarri zituztelarik (Siadeco, 1995: 23).

Azken urteotan, 90eko hamarkadako bertso-saio eta ikus-entzule kopuruak apur bat murriztu egin dira. Hala ere, bertso-jaialdiek jende asko erakartzen dute oraindik ere. Egia esan, bertsolaritzak une gozoa bizi du. Aierdi, Aldaz, Alkorta, Retortillo eta Zubirik dioten bezala, hamar euskaldunetik lau inguru bertsozaleak dira (2007: 11). Haien arabera, bertsozale sutsuak bertsozaleen herena dira gutxi gorabehera eta, beraz, euskaldun guztien % 10-%15³⁸.

1995ean, Siadecok zioen bertsolaritza oraindik oso ongi nora zihoan ez zekien abiadura azkarreko tren zela (Siadeco, 1995: 27). Gaur egun, abiadura apur bat moteldu egin du tren honek, baina helmuga eta bertara heltzeko bideak eta bitartekoak argiago daudela iruditzen zait. Bertsolaritzak erakutsi du ez dela azkar puztu eta berehala husten den globoa. Etengabeko lanari esker, kultur adierazpide honek oinarri sendoak ditu, eta gauzak asko ez badira okertzen, badirudi etorkizun oparoa izango duela.

90eko hamarkadan, batzuek zioten bertsolaritzak bizi zuen boom delakoa euskal kulturaren etorkizunerako arriskutsua izan zitekeela. Zenbaiten ustez,

38. Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak egin zuen *Kultura Ohiturak, Praktikak, Kontsumoa* inkestak (2007-2008) datu desberdinak ematen ditu. Euskal Herriko biztanleria elebidunaren % 17,3 bertsolariak entzutera joan da azken urtean. Dena dela, ikerketa horren arabera, gutxiago dira bertsozale sutsuak. Hain zuzen ere, Euskal Herriko biztanleria elebidunaren % 8,1ek du bertsolariak entzuteko ohitura; hau da, azken hiruhilabetekoan, bertso-emanaldietara joan dira. Inkesta horren arabera, bertsolariak entzutera joaten direnen artean, % 24,4 hiru-lau alditan edo gehiagotan joan da azken hiruhilabetekoan bertsolariak entzutera. Hau da, inkesta horren arabera bertsozale sutsuak bertsozaleen laurdena dira.

bertsolaritza ez zegozkion espazio eta funtzioak eskuratzen ari zen, eta, ondorioz, beste kultur agenteei (musikari, antzerkiari...) lekua kentzen (Atxaga, 1992). Alegia, bertsolaritzak irakaskuntzan, komunikabideetan edota edozein eratako jaialdietan zuen jarraipenak beste adierazpen kultural batzuen bilakaera oztopatzen zuen (Siadeco, 1995: 31). Gaur egun, argi gelditu da bertsolaritzaren indarra ondo egindako lanaren emaitza dela, eta euskal kulturaren munduan gertatzen dena, badarik ere, bertsolaritzaren gehiegizko presentzia baino gehiago, beste esparru kultural gehienen ahultasuna dela.

1.2. Kantagintza

Aspaldikoa da euskaldunon kantatzeko ohitura. Elizan, tabernan, jai eta ekimen berezietan (Santa Ageda bezperetan, inauterietan, Gabonetan...) edo jatorduen osteetan, abesteko joera handia izan dugu, eta gure herri, elkarte, parrokia eta auzoetan aspaldikoak dira abesbatzak eta zortzikoteak. Han eta hemen, kantari fin asko sortu dira Euskal Herrian (Jose Maria Iparragirre, Luis Mariano...). Dena dela, 50eko hamarkadan euskal kantagintza basamortua zen (Agote, www.badok.info). Francoren diktaduraren ondorioz, euskal kultura eta euskara itota zeuden, egoera ahulean, eta horrek sorkuntza kulturala zein edozein motatako kultur ekimenak oztopatzen zituen. Kantagintza ez zen salbuespena. Dena dela, 60ko hamarkadan, gero eta ozenagoak ziren aldarrikapen politiko eta sozialak, baita euskararen eta euskal kulturaren aldeko eskaerak ere. Ondorioz, euskal kulturak pizkunde garrantzitsua ezagutu zuen hamarkada horretan, eta gaur eguneko euskal kulturaren oinarrietariko asko ezarri ziren: 1957an, Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu zuen; 1958. urtean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa antolatu zuen Euskaltzaindiak; 1960an antzerkira joera modernoak ekarri zituen Jarrai antzerki taldea sortu zen; 1964an, Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* lana argitaratu zen; 1965ean, Gerediaga Elkartek Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen; eta 1968an, Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek *Ama Lur* dokumentala estreinatu zuten.

Testuinguru politiko, sozial eta kultural nahasi baina sortzaile horretan, Euskal Kantagintza Berria sortu zen, 1961ean.

Hainbat kantari eta talde kokatu zen mugimendu horretan, baina adierazgarrienetakoa 1965. urtean eratutako Ez Dok Amairu taldea izan zen. Kantagintza tradizionaletik abiatuta, Ez Dok Amairukoek euskal kantagintzarentzako bide berriak ireki zituzten. Horrela, taldea 1972an desegin zen, baina ez zen ezeren amaiera izan, hasiera baizik. Ez Dok Amairun ibilitako kantautore askok (Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi...) bakarkako ibilbide oparoa hasi zuten, eta gaur eguneko euskal kantagintzaren oinarrietariko asko jarri zituzten.

Ez dok Amairu taldeak eta, oro har, Euskal Kantagintza Berriak arnasa eman zioten euskal kantagintzari eta, oro har, euskal kulturari. Aldarrikapen sozial, politiko eta kulturalak egiteko bideak eraikitzeaz gain, kantari eta kanta berriak eta kantatzeko modu eta estetika berritzaileak ekarri zituzten. Dena dela, 1980ko hamarkada hasteaz bat bukatu zen mugimendua. Izan ere, rock eta folk taldeek (Errobi, Itoiz, Izukaitez, Haizea, Oskorri...) bigarren planora pasarazi zituzten kantautoreak, eta

apur bat geroago, Eusko Rock Erradikalaren agerpenak erabateko etena ekarri zuen (Agote, www.badok.info).

Eusko Rock Erradikala deituriko mugimendua indartsu sartu zen euskal kantagintzan 80ko hamarkadaren hasieran, eta gutxi gorabehera 1990. urtera arte iraun zuen. Nahiz eta mugimendu horren baitan kokatzen ziren talde gehienek erdaraz abesten zuten, talde euskaldun batzuk ere egon ziren, eta horrek indarberritu egin zuen euskal kantagintza. Are gehiago: nahiz eta mugimendua 90eko hamarkadaren hasieran bukatu zen, orduan sortutako erritmo, musika, estetika eta letrek eragin handia izan dute ordutik sortu diren euskal talde askorengan.

Eusko Rock Erradikala bere azken urteetan zegoela, trikiti-jotzaile batzuek, midi formatua erabiliz, trikiti-rock taldeak sortu zituzten 80ko hamarkadaren bukaeran, eta 2000. urtera arte, indartsu aritu ziren diskoak grabatzen eta plazarik plaza jotzen (Markez, www.badok.info).

Trikiti-rock talde horiek haize berria sartu zuten euskal kantagintzan, eta, nahiz eta 2000. urtean desagertzen hasi ziren, eragin handia izan dute gaur eguneko euskal kantariengan. Arrakasta duten euskal talde askok (Gose-k edo Esne Beltza-k, adibidez) garai hartan sortutako mugimendutik edaten dute. Gainera, trikiti-rock taldeen eraginez, soinu txikiak eta, oro har, trikitiak inoiz ez bezalako ospea hartu zuten 90eko hamarkadatik aurrera. Horrela, trikiti-eskolak ugaritu ziren, eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarte asko indartu zen³⁹.

Urte gutxitan, bide luzea egin du euskal kantagintzak. 60ko hamarkadako basamortutik gaur egunera, milaka disko, kanta, letra, musika eta talde sortu dira. Euskal musikari eta kantariak proposamen eta saiakera asko egin dituzte, eta emaitzak onak izan dira. Gainera, 1990. urtearen bueltan, Euskal Kantuzaleen Elkarte (www.kantuzale.net) sortu zen, eta, ondorioz, azken urteotan ugaritu egin dira kantari berrien kantu-txapelketak eta jaialdiak.

Hala ere, euskal kantagintza krisi sakonean dagoela iruditzen zait. Izan ere, ez da sortu bizi ditugun garaien isla izango den kantagintza-mugimendu berritzailerik, eta, ondorioz, gaur eguneko kantagintzan, gehiegizko pisua dute Euskal Kantagintza Berriak, Eusko Rock Erradikalak eta trikiti-rock taldeek. Beste berba batzuekin esanda, estetika, erritmo, musika eta letra berriak sortuko dituzten talde eta kantariak falta dira Euskal Herrian (Berri Txarrak eta Ken Zazpi dira azken talde arrakastatsuenak, eta dagoeneko igaro da hamarkada bat sortu zirela).

Hutsune horren ondorioz, kanpoko taldeek hartu dute euskal taldeek 80ko eta 90eko hamarkadetan betetzen zuten tokia. Are gehiago: talde eta abeslari berrien gabeziak eraginda, iruditzen zait iraganeko ereduera bueltatzen ari garela; hau da, talde berrien faltan, 60ko hamarkadaren amaieratik 80koaren hasierara bitartean ezagun egin ziren kantu eta kantarien berpizkundea ezagutzen ari gara⁴⁰.

39. Elkarte 1990. urtean sortu zen. Boluntarioekin aritu ostean, 2001ean lehen kudeatzaileak sartu ziren lanera. Gaur egun, 300 bazkideetik gora ditu elkarteak (<http://www.trikitixa.net>).

40. Nire ustez, *Gu Gira* CDa eta kontzertuak, Ez Dok Hamairu taldeari buruzko dokumentala eta Zarama taldearen itzulera nostalgia horren adierazle batzuk izan daitezke.

Zergatik sorkuntza-gabezia hau? Zergatik dago euskal kantagintza krisian? Hainbat arrazoi daude, baina nik lau aipatuko ditut:

Lehen arrazoa da euskal kantariak erakunde publikoen babes eta laguntza gutxi dutela (Mendibil, 2008).

Bigarren arrazoa izan daiteke euskaldunok, bereziki gazteek, hemengo kantariak baino nahiago ditugula publizitate-kanpaina indartsuen bidez iragartzen dizkiguten atzerriko kantariak. Nire ustez, gorpil zoro batean sarturik gaude: euskal kantagintza berriak ez da sortzen eta, ondorioz, gazteek atzerriko kantariak entzuten dituzte nagusiki; horrek, bere aldetik, zaildu egiten du euskal kantari eta talde berriak sortzea.

Hirugarrenik, aipatzekoa da Euskal Herriko hiriburuetan egiten diren kontzertu erraldoietan, zein herrietako jaietan eta kultur programazioetan euskal kantariak toki gutxi dutela (Mendibil, 2008).

Azkenik, kontuan hartu behar da Interneti eta baliabide teknologiko berriei esker musika entzun eta kontsumitzeko moduak aldatu egin direla azken hamarkadan. Ondorioz, munduko kantari askok bezala, euskal kantariak ere orain dela urte batzuk baino gutxiago saltzen dute.

Arazoi honek eta aipatu ditudan beste guztiek eragin zuzena dute euskal musikari eta kantarien diskoen ekoizpenean zein salmentetan. Gainera, diskoetxeak ere urritu egin dira. Euskal kantagintza modernoaren baitan urteko disko-ekoizpen handiena duen diskoetxea Elkar da (Oihuka ere Elkarren marka bat da). 2000. urtean 43 disko-erreferentzia izan zituen. Iaz, aldiz, 21 baino ez ziren izan (Erostarbe, 2011-3-10).

Esan bezala, euskal kantagintza krisian dago, eta neurriak hartu behar dira. Baina zeintzuk dira neurri horiek? Gontzal Mendibilek, beste herri batzuetan bezala, irrati, telebista eta kultur programazioetan euskal kantariantzako kuotak zehaztea aipatzen du (Mendibil, 2008). Lagundu daitekeen irtenbide bat izan daitekeela ukatu gabe, nire aburuz, sormena eta talde eta kantari berrien agerpena sustatzeko, garrantzitsuagoa da hezkuntza-proposamenak, diru-laguntzak, kontzertuak eta kantarien ezagutza ziurtatzea.

1.3. Antzerkigintza

Antzerkigintzak tradizio luzea dauka Euskal Herrian. Maskaradak, pastoralak, asto-lasterrak aspaldikoak dira hemen (Urkizu, 1996: 75). Gainera, Bigarren Errepublikako urteetan, euskal antzerkiak dinamika indartsua lortu zuen Hego Euskal Herrian, besteak beste, antzerkia herritarrak abertzaletasunera erakartzeko eta propagandarako tresna baliagarria bihurtu zelako (Urkizu, 1996: 75).

Frankoren diktadurak euskara eta euskal kultura debekatu zituen, eta euskarazko antzerkia ia desagertu egin zen. Dena dela, 60ko hamarkadako eta 70eko hamarkadaren hasierako testuinguru soziopolitiko berezian, antzerki-joera modernoak ekarri zituzten taldeak ugaldtu ziren (Jarrai, 1960. urtean sortu zen; Goaz, 1974. urtean; Geroa...). Orduetik, euskaraz aritu diren talde asko sortu dira.

Are gehiago: badirudi azken 15 urteotan, ugaritu egin direla euskaraz aritzen diren talde amateur zein profesionalak. Horretan eragina nabarmena izan du azken 30 urteotan hainbat antzerki-eskola ireki izanak.

Modu berean, orain dela urte batzuk baino euskarazko antzerki-emanaldi gehiago daude. Diru-laguntza publikoek bultzatuta, antzerki bera bi hizkuntzetan eskaintzeko joera izan da azken urteotan, eta horrek antzerkia euskaraz ikusteko aukerak ugaritu ditu.

Euskal antzerkiaren indartzean eragin positiboa izan du, baita ere, 90eko hamarkadaren hasieran, antzokien sare bat sortu eta egonkortzeak Euskal Autonomia Erkidegoan⁴¹.

60ko hamarkadarekin alderatuta, euskal antzerkiaren egoera asko hobetu da. Are gehiago: etorkizunean euskal antzerkigintza are eta egoera hobegoan egongo dela pentsa daiteke, hain zuzen ere, azken urteotan, euskal antzerkia indartu dezaketen hiru egitasmo sortu direlako: Eszenika, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE) eta Mintzola.

Mintzola Fundazioa 2008an sortu zen, ahozko tradizioa ikertzeko helburuarekin. Nire ustez, haren jarduera garrantzitsua izan daiteke bertsogintzan, antzerkigintzan, kantagintzan edo ipuin-kontalaritzan sorkuntza indartzeko (<http://www.mintzola.com>).

Mintzolarekin batera, euskal antzerkigintza bultzatzeko erabakigarria izan daiteke 2010ean sortu zen Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE). Izan ere, elkartearen helburua da euskal antzerkiaren inguruan dauden indar sakabanatuak (profesionalak zein amateurak) biltzea, eta euskara Euskal Herriko antzerkian txertatzea, benetako euskal antzerkia eraikitzeke (<http://www.antzerkizale.com>).

Azkenik, Eszenika aipatu nahi nuke; hau da, 2012-2013 ikasturtean, Bilbon irekiko den arte dramatikoa, dantza eta eszena-tekniken goi-mailako zentroa. Eskola horrek arte dramatikoko eta dantzako bost gradu eskainiko ditu, eta pentsatu behar da euskal antzerkigintza asko indartuko dela.

Hala ere, urteetan, eskoletan lanean aritu diren irakasle eta arduradun askok beldurra diote Eszenikari. Izan ere, uste dute antzerki-eskolak krisian sartuko direla; ez bakarrik ikasle gutxiago izango dituztelako, baizik eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diru-laguntzak murriztu egingo dituelako.

Hemen dago, nire ustez, euskal antzerkigintzaren erronketariko bat. Alegia, oreka lortu behar da betiko eskolen eta Eszenikaren artean. Eskolak zaindu egin behar dira, ikasleak Eszenikan sartzeko ondo prestatu ditzaten. Hau da, eskolek zubi lana egin behar dute, baita hain ugaria den antzerki amateurrarentzako erreferente bat izan ere.

Euskal antzerkiak eta, zehazki, Eszenikak duen beste erronka bat da hizkuntza. Zentzu horretan, Eszenikak ez luke ahaztu behar, azken urteotan, gora egin duela

41. Sarea, Euskadiko Antzoki Sarea, Euskal Autonomia Erkidegoko 51 espazio eszenikok osatzen dute, eta haren helburua da arte eszenikoak antzetzeko azpiegitura eskaintzea.

arte eszenikoak euskaraz ikasten dituzten ikasleen kopuruak, eta erakundean euskarari emango zaion tokiak eragin nabarmena izango duela etorkizuneko euskal antzerkigintzan.

Euskal antzerkiaren beste erronka bat da antzerki elebidunen aurrean hartu behar den posizioa. Batzuek diote, diru-laguntza publikoen bidez antzerki bera bi hizkuntzetan eskaintzeko joera ona izan dela euskal antzerkia indartzeko. Beste batzuentzat, aldiz, joera horrek kalte egin dio euskal antzerkigintzari. Sorguneak Ikertegiaren arabera (2011), bi hizkuntzetan jardun duten kultur diziplinetan, gatzelania bihurtu da hegemoniko, bai sorkuntzan baita zabaltzeko aukeretan ere.

1.4. Liburugintza

Euskal kulturgintzako beste adierazpideek bezala, euskal liburugintzak ere bide luzea egin du 60ko hamarkadatik. 1965ean, Gerediaga Elkarrekin Durangoko Liburu eta Disko Azokaren lehen edizioa egin zuenetik gaur egunera, liburuak, argitaletxeak zein idazleak ugaritu egin dira, eta apurka-apurka, liburugintzaren sektorea egituratuz eta indartuz joan da⁴².

Liburuen ekoizpenari dagokionez, 90eko hamarkadan, 1.100-1.200 liburu argitaratzen ziren urtero (Torrealdai, 1997: 90), eta 2000ko hamarkadan, gutxi gorabehera, 1.900 bat liburu (Torrealdai, 2011: 23).

Berrargitarapenei begiratzen badiegu, 2009. urtean, 2008an baino liburu gutxiago berrargitaratu ziren, baina azken 10 urteetako joera orokorra goranzkoa izan da, eta horrek esan nahi du, nire ustez, euskarazko liburuen berrargitaratzeen panorama finkatu egin dela (2009. urtean, ekoizpen osoaren % 29 berrargitaratu zen).

Euskarazko liburuen ekoizpena handitzearen arrazoiatariko bat da, orain dela gutxi arte, Eusko Jaurlaritzak euskarazko liburuak subentzionatzea, edizio bakoitzaren ale kopuru bat erosiz.

Bigarren arrazoa izan daiteke euskal gizartean inoiz baino euskaraz alfabetatuta dauden pertsona gehiago egotea⁴³.

Hirugarren arrazoa da inoiz baino euskal idazle gehiago egotea⁴⁴. Horietariko batzuek, gainera, gure hizkuntzaren mugak gainditu dituzten lanak idatzi dituzte (Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, Andu Lertxundi, Joseba Sarrionaindia...).

Laugarrenik, aipatzekoa da 2004-005 ikasturtetik, Bergarako Idazle Eskola (<http://ieskola.asmoz.org/>) idazleak prestatzen ari dela, eta horrek eragin positiboa duela euskal literaturan, liburugintzan eta kulturgintzan.

42. Durangoko Liburu eta Disko Azokaren lehen ekitaldi hartan, 19 argitaletzek parte hartu zuten, eta nobedade gutxi batzuk aurkeztu ziren. 2010eko ekitaldian (45.ean), 138 eragilek erakutsi zuten euren ekoizpena, 285 salmahaitan. Gainera, 505 nobedade aurkeztu ziren (www.berri.info).

43. EAEko biztanleen % 27k ongi irakurtzen du euskaraz, eta % 13k nahiko ongi (Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 21).

44. Euskal Idazleen Elkarrekin 350etik gora bazkide ditu (www.idazleak.org).

Azkenik, azken urteotan, idazleak, editoreak zein irakurtzeko zaletasuna bultzatzen duten eragileak antolatu egin dira, eta horrek izugarritzko mesedea egin dio, nire ustez, euskal liburugintzari⁴⁵.

Hala ere, euskal liburugintzak hutsune nabarmenak ditu. Lehen hutsunea da euskarazko irakurle gutxi egotea. Nahiz eta onartu behar den nagusiki euskaraz irakurtzen duten irakurleen taldea handitzen ari dela⁴⁶, oraindik ere kopuru hori txikiegia da, nire ustez, euskal irakurle go indartsu bat osatzen ari garela esateko. Zentzu horretan, euskal liburugintza sustatzeko, ezinbestekoa da euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea, bereziki umeen artean⁴⁷.

Euskal liburugintzaren beste hutsune bat da euskal editorialak txikiegiak izatea, eta horrek eragin ezkorra du ekoizpenean (Torrealdai, 2011: 25).

Euskal liburugintzaren beste hutsune batek liburuen salmentarekin du zerikusia. Liburuak ekoitzi ekoizten dira, baina gero oso gaizki iragartzen dira, eta, ondorioz, gutxi saltzen dira. Euskal idazle gehienen liburuei marketin gutxi egiten zaie, edota eurak arduratu behar dira liburuaren promozioarekin. Euskal liburuak iragartzeko eta saltzeko plan orokor bat behar da.

1.5. Euskal zinema

Euskal Herrian aspalditik egiten da zinema (Gutierrez, 1994: 279-295). Dena dela, aditu eta ikertzaileak bat datoz esatean, euskal zinemaren inflexio-puntuetariko bat Nestor Basterretxearen eta Fernando Larrukerten *Ama Lur* filmak (1968) ezarri zuela. Izan ere, Basterretxeak eta Larrukertek narrazio zinematografikoa osatzeko modu berriak sortu zituzten, eta estilo berri bat ireki.

Geroztik hainbat film egin dira Euskal Herrian; hori bai, ia denak erdaraz. Euskal zinemari buruzko legedia egon badago, baina euskal zinema-industria ahula da ekoizpenaren zein bikoizketaren ikuspuntutik. Euskal Telebistaren inguruan ikus-entzunezkoak ekoizteko eta itzultzeko industria bat sortu bazen ere, horrek ez du behar bezalako zinema-industriarik bultzatu. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Zinema Euskaraz programa sortu zuen, baina gure herri eta hirietan euskarazko pelikulak ikusteko aukera gutxi dago (Zinema Euskaraz programarekin, hilean pelikula bat eskaintzen da hiriburuetan)⁴⁸.

45. Euskal Idazleen Elkarte (EIE) 1982an sortu zen (www.idazleak.org). Bi urte geroago, 1984an, Euskal Editoreen Elkarte (EEE) eratu zen (<http://www.editoreak.com/>). 1990ean, Galtzagorri Elkarte sortu zen, haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko eta euskarazko haur- eta gazte-literatura sustatzeko eta ezagutarazteko (<http://www.galtzagorri.org>).

46. 2003. urtean egin zen *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi* txostenaren arabera, EAEko biztanleen % 20,4k erdaraz irakurtzen zuen gehienbat, baina baita euskaraz ere; % 0,6k bakarrik euskaraz irakurtzen zuen. 2005ean egin zen ikerketa bera, eta orduan, emaitzetariko bat izan zen EAEko irakurleen % 27,3k erdaraz irakurtzen zuela baina baita euskaraz ere, eta biztanleriaren % 3,1ek euskaraz irakurtzen zuela, batez ere (www.euskadi.net).

47. Zentzu horretan, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit *Berria* egunkariak zapaturgo argitaratzen duen *Mantangorri* gehigarria edota *Bularretik mintzora* bezalako egitasmoak.

48. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak zinema-aretoetako hizkuntzaren erabilerari buruzko azterketa egin zuen 2007an, eta Euskal Herri osoko 29 areto aztertu ondoren, euskararen lekua oso txikia zela ondorioztatu zuen. Euskaraz eskaintzen ziren pelikula gehienak umeentzat ziren, eta 10 film arrakastatsuenen artean, euskara ez zen inondik inora agertzen.

Batzuen ustez, euskal zinema-industria ahula da merkaturik ez dagoelako. Euskaldun kopurua txikiegia da eskaintza zabal bat izateko, eta errentagarritasunez funtzionatzeko. Euskaraz ekoizten edo bikoizten den apurra diru-laguntza publikoen bidez egin behar da, eta epe luzera hori ez da errentagarria.

Horrekin batera, beste batzuek diote, euskal zineman talentua falta dela, eta benetako merkatuetan lehiatzeko gaitasunik ez dagoela (Erostarbe, www.berria.info).

Basquewood bat sortzea oso zaila dela onartuta ere, iruditzen zait Euskal Herriak badituela alde sendo batzuk nolabaiteko zinema-industria bat sortzeko: tradizio txiki bat badago, eta zuzendari, aktore eta teknikari trebatuak ditugu. Bestalde, Ipar Euskal Herriko zein Hegoaldeko unibertsitate ia denek ikus-entzunezkoekin zerikusia duten graduak eskaintzen dituzte. Gainera, Andoaingo Zine eta Bideo Eskola (ZIBIES) 1986. urtetik ari da ikus-entzunezkoen sektorea profesionalaz elikatzen, eta azken urteotan, gidoiak egiten ikasteko hainbat ikastaro eta mintegi antolatu dira.

Horrekin batera, nire ustez, euskal zinemagintzak badauka etorkizuna, zinema egiteko beste bide edo eredu batzuk jorratzen badira. Zinema komertzialaren munduan lehiatzeko aukera gutxi dugunez, autore-zinema egitea bide duina izan daiteke euskal zinemagileentzat.

Euskal zinemak arazo asko ditu. Hori ez dago ukatzerik. Dena dela, gauzak behar bezala egiten badira, euskarazko zinemarentzako merkatu bat egon daitekeela iruditzen zait. Kontuan hartu behar da 2006ko Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatu zen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma 29.000 lagun inguruk ikusi zutela estreinatu eta aste gutxira, eta *Nömadak TX* film dokumentalak ere arrakasta itzela izan zuela.

2. EUSKAL KULTURAREN SENDOTASUNAK ETA AHULTASUNAK BALIZKO EUSKAL ESTATU BATEN AURREAN

Kulturaren auzia gai garrantzitsua da estatu batentzat. Kulturak identitatea eta kohesioa ematen dio gizarteari, eta horrekin, baita irauteko arrazoiak, oinarriak edota sinboloak ere. Euren kultura galdu eta beste kultura batek asimilatzen dituen komunitateetan arazo izugarriak sortzen dira, eta gizarteko kideek era askotako desorekak izaten dituzte.

Baina nola eman kohesio kulturala hain plurala eta konplexua den euskal gizarteari? Nire ustez, balizko Euskal Estatu batek ziurtatu behar du Euskal Herrian bizi diren nortasun-sentimendu, kultur adierazpide edota nazio-identitate guztiek garatzeko aukera dutela, baina, era berean, Euskal Herriaren izaera ziurtatu behar du. Eta horrek esan nahi du bereziki euskarazko adierazpen kulturalak babestu behar direla; hain zuzen ere, euskal kulturaren gutxiagotasun- edota mendekotasun-egoera gainditu beharra dagoelako. Zentzu horretan, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batzuetan ari diren komunitate linguistiko eta kulturek onartu egin behar dute euren hizkuntza eta kulturek badutela munduan zehar nork babestu eta indarra eman; euskarak, ordea, Euskal Herrian bakarrik dauka sortzeko eta birsortzeko aukera. Euskara da herri honetako berezko hizkuntza, eta beronen garapenaren aldeko ahalegina egitea dagokio balizko Euskal Estatu bati.

2.1. Euskal kulturaren ahultasunak eta sendotasunak balizko Euskal Estatu baten aurrean

Tradiziotik abiatuta, euskal kulturak modernizatzen, birsortzen edota garai berrietara egokitzen jakin du. Gerraosteko basamortu kulturaletik gaur egunera, milaka disko, liburu, bertso, elkarte, antzerki, erakunde, kanta, talde, pelikula... sortu dira. Euskal kultur eragileek proposamen, ekimen eta saiakera asko eta onak egin dituzte, eta horrek gure kultura biziberritzea eta XXI. mendera arte heltzea ahalbidetu du. Hutsune nabarmenak egon direla eta daudela ukatu gabe (berezi zinema munduan), berbazko adierazpen kulturalen sormena etengabekoa izan da. 50 urteko ibilbideak argi erakutsi du euskaldunok, gutxi izanda ere, berrikuntza kulturalerako eta sorkuntzarako gaitasuna daukagula.

Horrekin batera, euskal kulturaren beste alde sendo bat da 80ko eta 90eko hamarkadetan, berbarekin aritzen ziren euskal kultur eragileak edota kultur gileak antolatu egin zirela; hau da, euren interesak eta euskal kulturarenak babesteko erakundeak edota elkarteak sortu zituzten (Bertsozale Elkarte, Euskal Kantuzaleen Elkarte, Euskal Herriko Tikitixa Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte, Mintzola...).

Ahultasun eta diru-arazo ugari badituzte ere, elkarte horiek indarrak bildu dituzte, iritzi publikoan eta erakunde publikoetan eragin dute, eta, ondorioz, aurretik inoiz baino babes, onarpen eta diru gehiago lortu da euskal kulturarentzat (ez behar beste, baina bai gehiago). Aipatu ditugun elkarteen, eta beste batzuen, lanaren eta presioaren eraginez, euskal kultura ezagutarazi egin da, bere prestigioa hobetu egin da, euskal kultura babestearen alde agertzen diren herritarren kopurua handitu egin da, eta jende gehiago hurbildu da euskal kultur produktu eta ekimenetara. Gainera, sortu diren kultur elkarte ia guztiak muga politiko edota administratiboan gainetik lan egiten dute, eta horrek eragin positiboa izango du etorkizunari begira, euskal kulturari kohesioa eta indarra emango diolako. Aipagarria ere bada aztertutako elkarte guztiak profesionalak dituztela kudeaketa-lanetan, eta guztiak dutela web orria edota teknologia berriak erabiltzen dituztela. Ahultasunak ahultasun, iruditzen zait euskal kultur erakundeak etorkizunari aurre egiteko posizio egokian daudela.

Berbazko komunikazioan oinarritzen diren kultur adierazpideek ezagutu duten erakundetze honen ondorioz, eta erakunde publikoen diru-laguntzen bidez, azpiegiturak hobeagotu egin dira eta kantaldi, bertso-saio, antzerki-jaialdi edota kultur asteak antolatzeko gaitasuna beste edozein kultur ekimenen mailara heldu da. Modu berean, hezkuntza-azpiegitura minimo bat sortu da. Azken 30 urteotan, bertso-eskolak, antzerki-eskolak, idazle-eskolak eta ikus-entzunezkoekin zerikusia duten ikasketak eskaintzen dituzten fakultate eta eskolak agertu dira, eta, horrekin batera, material didaktikoa ere sortu da.

Esandako guztiak nolabaiteko baikortasunera bagaramatza ere, begitantzen zait euskarak eta euskal kulturak ahultasun asko dituztela balizko Euskal Estatu sendo bat sortzeko.

Lehen ahultasuna da Euskal Herriko biztanle gehienek ez dakitela euskaraz. Gainera, euskararen egoera ez da batere ona erabilerari dagokionez. Azterketek erakusten dutenaren arabera, gutxiengoa dira euskara eguneroko harremanetan erabiltzen dutenak (Juaristi, 2007). Ondorioz, euskara ez dago presente Euskal Herrian egiten diren ekimen kultural gehienetan. Alegia, euskal kulturak aurrerapauso asko eman baditu ere, Euskal Herriko panorama kulturean erdara da nagusi.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da euskaldun gehienak ez direla euskal kulturako ekimen, liburu, antzerki edo pelikuletara hurbiltzen. Maialen Lujanbiok zioenez, 9.000 pertsona besterik ez dira euskal kulturaren ohiko kontsumitzaileak (www.berria.info).

Horren guztiaren ondorioz, euskal kultur produktuen merkatua txikiegia da, eta ez da errentagarria ekimen pribatuarentzat. Ezinbestean, euskaraz sortzen edo ekoizten diren liburu, disko, antzerki edo pelikulek erakunde publikoen diru-laguntzak behar dituzte aurrera egiteko. Egoera horretan, asko dira diotenak euskal kultura gezur sozial batean bizi dela. Liburuak, CDak, pelikulak, antzerkiak... ekoitzi, saltzen edota kontsumitzen direnak baino askoz gehiago ekoizten dira, eta jendeak, irakurtzen, entzuten edo ikusten duena baino gehiago erosten du.

Euskal kulturaren beste ahultasun bat da euskal kulturaren inguruan sortu diren enpresak (argitaletxeak, antzerki-ekoizleak, kantariak eta aktoreak ordezkatzeko dituzten enpresak, zinema-ekoizleak...) ahulegiak eta txikiegia direla kultur politika bat markatzeko eta euskal kultura etorkizunean ere ziurtatzeko. Are gehiago: erakundeak, azpiegiturak edota elkarteak sortu, sortu dira, baina horietariko askok baliabide gutxiegia dituzte euskal kulturari benetako zerbitzu bat emateko. Ia denak, erakunde publikoen diru-laguntzekiko mendekotasun handiegia dute. Eta gehienetan, erakunde publikoen diru-laguntzak aldakorrek edota juxtuegiak izaten dira.

2.2. Etorkizunerako estrategiak

Balizko Euskal Estatu bat eraikitzeke prozesuan, argi dago euskal kultura sendotu beharra dagoela. Horretarako, euskal kulturak zazpi probintziak kontuan hartuko dituen kultur plan orokor bat behar du. Besteak beste, egitasmo orokor horrek zera izan beharko luke kontuan:

Esperientziak erakusten du tradizioetik abiatu eta zerbait berria sortzeko gai izan diren adierazpide kulturelek arrakasta izan dutela. Zentzu horretan, euskal kulturak aurrera egingo badu, euskaldunok zerbait berria baina zerbait gurea sortzeko gai izan behar gara (Barandiaran, 1999: 239).

Euskal kultur eragileak gehiago babestu behar dira. Kantariek, bertsolariek, antzezleek, zinemagileek edo idazleek ikusi behar dute erakunde publikoek euren lana baloratzen dutela, diru-laguntzak emanez, ekoizten dituzten produktuak promozionatuz, euren iritzi eta beharrianak kontuan hartuz, eta ekimen kulturalak sustatuz eta bultzatuz.

Azken urteotan kultur elkarteek, erakunde publikoek eta eragileek sortu dituzten eskolak sendotu behar dira, eta berriak sortu. Euskal kultura indartzeko eta sormena bultzatzeko hezkuntza kontuan hartuko duen plan orokorra behar da.

Kulturaren arlo eta maila guztietan elkarre geiago sortu behar dira, eta daudenak indartu. Izan ere, elkarre-sare trinkoa duten kulturek hezkuntza-sistema, azpiegitura eta antolaketa-gaitasun hobegoak izaten dituzte. Modu berean, errazagoa da botere publikoetan zein iritzi publikoan eragitea, eta kulturarentzat diru, babes eta laguntza geiago lortzea.

Ezinbestekoa da euskara dakitenak euskal kulturara erakartzea. Horretarako, euskal kulturgile eta eragileek kalitatezko produktuak sortu behar dituzte, eta, kanpaina egokien bidez, jendea produktu horietara erakarri behar da. Horrek euskal kultur produktuen merkatua handituko luke, eta hain ahul dagoen euskal industria kulturala indartuko.

Euskal kulturak Euskal Herria osoko antzokiek osatuko duten sare bat behar du. Alegia, zazpi probintzietan euskarazko produktuen programazio egonkor bat sustatuko duen azpiegitura bat behar da. Izan ere, antzerki-eskolak, bertso-eskolak, idazle-eskolak... sortzea alferrikakoa da, gero horien antzezenak egiteko tokirik ez badago.

Azkenik, argi izan behar dugu euskal kultura sendotzeko, esparru kultural guztietan, euskarari orain duen baino sarbide handiagoa eman behar zaiola.

BIBLIOGRAFIA

- Agote, G.: "Kantagintza berriaren sorrera", Euskal Kantagintzaren Webgunea: <<http://www.badok.info>>.
- Aierdi, Aldaz, Alkorta, Retortillo eta Zubiri (2007): *Bertsolaritza. Tradizio modernoa*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Zarautz.
- Amuriza, X. (1996): *Bertsolaritzaren historia*, Egin, Donostia.
- Atxaga, M. (1992): "Euskal Kultura 1992", *Jakin*, **73**.
- Barandiaran, J. M. (1999): "Breve estudio sobre la Etnia y sus raíces", *Etnografía del Pueblo Vasco*, Etor-Ostoa, Lasarte-Oria.
- Baxok, Etxegoin, Lekunberri, Martinez de Luna, Mendizabal, Ahedo, Itzaina eta Jimeno: *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, Astigarraga.
- Erostarbe, G. (2011): "Diskogintza (I). Sektorearen Egoera", *Berria* egunkaria (2011-03-10).
- , : "Arkaitz Basterra eta Koldo Almandoz", *Berria* egunkaria.
- Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2011): *Euskal iritzi publikoaren urtekaria 2010*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2010): *Kulturaren euskal planetik kulturen aldeko herritartasun kontratura* (www.euskadi.net).
- , (2010): *Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratura* (www.euskadi.net).
- , (2003): *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2003* (www.euskadi.net).
- , (2005): *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2005* (www.euskadi.net).

- Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia (2007-2008): *Kultura Ohiturak, Praktikak, Kontsumoa inkesta* (www.euskadi.net).
- Gutierrez, J. M. (1994): "Euskal Zinea. Cine Vasco", *Riev*, **2**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 277-295.
- Juaristi, P. (2007): "Euskararen kale erabilera Bizkaian", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, Andoain.
- Markez, M.: "Trikitixa, baserritik kalera", Euskal Kantagintzaren Webgunea: <<http://www.badok.info>>.
- Mendibil, G. (2008): "Euskal kantagintza", *Berria* egunkaria (2008-12-28).
- Otamendi, K.: "RRVren eztanda", Euskal Kantagintzaren Webgunea: <<http://www.badok.info>>.
- Siadeco (1995): "Bertsozaletasunari buruzko azterketa", *Jakin*, **87**.
- Sorguneak Ikertegia (2011): "Euskal kulturgintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat", *Jakin*, martxo-ekaina, **183-184**.
- Torrealdai, J.M. (1994): "Euskal Liburugintza 1993", *Jakin*, **85**.
- , (1997): "Euskal Liburugintza 1996", *Jakin*, **103**.
- , (2011): "Euskal Liburugintza 2009", *Jakin*, **182**.
- Urkizu, P. (1996): *Historia del teatro vasco*, Egin, Donostia.

AIPATUTAKO WEB ORRIAK

- Bergarako Idazle Eskola: <http://ieskola.asmoz.org/>
Berria egunkaria: <http://www.berria.info/>
Bertsozale Elkarte: <http://www.bertsozale.com>
Euskal Editoreen Elkarte: <http://www.editoreak.com/>
Euskal Idazleen Elkarte: www.idazleak.org
Euskal Kantagintzaren Webgunea: <http://www.badok.info>
Euskal Kantuzaleen Elkarte: <http://www.kantuzale.net/>
Eusko Jaurlaritza: <http://www.euskadi.net>
Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE): <http://www.antzerkizale.com/>
Euskal Herriko Trikitixa Elkarte: <http://www.trikitixa.net/>
Euskal Idazleen Elkarte: <http://www.idazleak.org>
Mintzola Fundazioa: <http://www.mintzola.com/>
Galtzagorri Elkarte: <http://www.galtzagorri.org/>

4. Euskal Herriaren hezkuntza-eskubideak. Europako zenbait hezkuntza-eredu aztergai

Fito Rodríguez Bornaetxea, Hezkuntza Zientzietan doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Ezinezkoa da euskal hezkuntza normalizatzea Euskal Herriko lurraldean euskarari buruzko bost egoera normatibo desberdin pairatu behar direnean.

Hizkuntza-ereduak erabiltzen dituen irakaskuntzaren partez, bertako haur guztiek euskaraz ikasi ahal izateko eskubidea eta berau bermatuko duen eskola-sistema ditugu aldarri.

Unibertsitateak titulatu berri guztiek Euskal Herriko hizkuntza nazionala ezagutzen dutela bermatu beharko luke (Finlandian, Quebecen edo Belgikan egiten denaren antzera). Burujabetzaren bideak euskal hezkuntzaren premia eduki badu. Bide hori jorratzeko, bada, bereziki Finlandian erabilitako hezkuntza-sistemari so egingo diogu, baita Herbehereek eta Estoniak garatu dituztenei ere.

Basque education rights: a look at some european school systems

It is impossible to achieve the normalization of Basque schools when they are subjected to five sets of regulations on the use of the Basque language in different parts of Euskal Herria.

Instead of an education system that differentiates between various language models, what is needed is a school system that recognises the right of all Basque children to be educated in Basque and provides the necessary means to achieve this.

As in Finland, Quebec or Belgium, so in Euskal Herria too it should be a given that all future university graduates must know the national language. The road to independence is incomplete without education in Basque. This chapter explores ways to improve this situation by looking at how things are done in Finland, in particular, and in the Netherlands and Estonia.

SARRERA

Euskal Herriaren hezkuntza-sistemaz arduratzen diren bi estatuek, bakoitzak bere kultura gizarteratzeari ekin dio historikoki balizko euskal curriculumaren kaltetan, eta horrek ondorioak eduki ditu, eta badauzka, hezkuntza-politika eta legerian, hizkuntzen babes asimetrikoan eta heziketa-erkidegoaren garapen orekatua bermatzerakoan.

Alde batetik, Frantziako hezkuntza nazionalak ez du inoiz onartu bere egituratik kanpo zeuden eskola-sistemak laguntzerik. Espainiako Erresuman, berriz, gaztelania izan da irakaskuntzarako onartutako hizkuntza bakarra. Horretaz gain, hezkuntzaren egituraketa osoa bi estatuen arabera antolatua izan da, historikoki Euskal Herriak izan dituen heziketa-beharrak baztertuz eta haien estatuen hezkuntza-politika ezarriz.

Frantziako zein Espainiako estatuen eraikuntzak beren lurraldeetan zeuden hizkuntzen eta kulturen artean bakar bat hautatzea eta garatzea ekarri zuen. Horrela, aipatu tokietan aukeratu gabe geratu ziren hizkuntzak eta kulturak baztertuak edota debekatuak izan ziren. Hala bretoiakerak, alsazierak, okzitanierak nola katalanak, galegoak edo euskarak ezin izan zuten estatuak babesten zuen hezkuntza-sistema baliatu. Aitzitik, hezkuntza-sistema publiko eta ofizialetik at geratzera kondenaturik izan ziren. Ez da gurea, ordea, kultura helarazi eta besterenganatzeko hezkuntza publikoa erabiltzeko adibide bakarra munduan. Erresuma Batuan, adibidez, gaelikoa, gaeliko eskoziarra eta beste hizkuntza eta kultura zeltikoak hezkuntza estataletik baztertuak izan ziren; Belgikan flandierak (nederlandera) ez zuen hezkuntza publikoan behar bezalako tratamendua eskuratzerik izan Belgika erresuma federal bihurtu arte (1932an Flandrian 108 eskola publiko zeuden eta 101 pribatu, denek frantsesa besterik ez zuten erabiltzen)... eta abar (Rodríguez, 2011).

Beraz, Frantziako hezkuntza nazionalak ez du inoiz onartu bere egituratik kanpo zeuden ikastetxeak laguntzerik. Denon gogoan daude 1794ko Barèreren hitzak: «Le fédéralisme eta la superstition parlent bas breton, l'émigration et la haine de la République parlent allemand, la contre-revolution parle italien, et le fanatisme parle basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur». Irakaskuntza legeztatzeko egindako saiakera historiko guztiek (Mirabeau 1740-1791, Talleyrand 1758-1838, Condorcet 1743-1793...) eta batik bat Napoleon Bonapartek egindako hezkuntzaren birmoldaketan (1799-1815) ez da frantses kulturaren kanpokoentzat inolako begirune positiborik, ukazioa baizik. 1794ko azaroaren 17ko Dekretuak Frantzian emandako lehenengo eskola guztiek frantsesez behar zutela izan erabaki eta betearazi zuen. Ildo horretatik, Baionako Udalak 1796ko apirilean zabalduko gomendioan, eta 1802an Mauleko prefetak zabaldukoan ere, hezkuntzan frantsesa bakarrik erabiltzea agintzen da. Gauza bera gertatu zen Donibane Garazin prefetak 1819an emandako aginduaz eta horrela euskara pertsegitua izan zen Ipar Euskal Herriko hezkuntza osoan: «J'ai exigé des instituteurs l'abolition entière de l'usage de la langue basque en classe» (Mauleko Hezkuntza-ikuskaria, 1833), «Le Règlement interdit de parler basque» (Donapaleuko Komiteak, 1846). Horrela, era sistematikoan, frantsesak euskarari zegokion tokia kendu behar izan zion: «Nos écoles au Pays Basque ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au basque» (Behe Pirinioetako prefeta, 1846)... Frantziako

hezkuntza nazionalak ez du onartu bere egitura publikoan berea ez den kultura edo hizkuntzarik eta, era berean, ez du lagundu hezkuntza publikoaz kanpoko esperientziarik, harik eta 1959ko abenduaren 11ko Hitzarmen Legea argitaratu arte, zeinean, esan bezala, hezkuntza nazionala «ikastetxe pribatu»ei banakako laguntzak ematen hasi zen (Rodríguez, 1996).

Bestaldetik, Espainiako Erresuman gaztelania izan da irakaskuntzarako onartutako hizkuntza bakarra: «Mando que la enseñanza de las primeras letras se haga en lengua castellana generalmente y dondequiera que no se practique, cuidando de su cumplimiento las audiencias y justicias respectivas para su exacta observancia y diligencia en extender el idioma general de la nación» (1768ko ekainaren 23an Karlos III.ak emandako aginduaren VIII. artikulua). Moyano Legea argitaratu zenean argi eta garbi geratu zen gaztelania izango zela hezkuntzarako onartuko zen hizkuntza bakarra: «La gramática y ortografía de la Academia Española, serán texto obligatorio y único para estas materias en la enseñanza pública» (Moyano Legea-Ley de Instrucción Pública, 1857ko irailaren 7an, 85. artikulua).

Aipatutakoaz geroztik kaleratutako euskarazko eskola-liburuak (*Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras*, Iturriaga 1842; *Diccionario manual vascongado y castellano*, Astigarraga 1825; *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*, Eguren 1867... Hegoaldean; edo *Uskara eta franzes gramatika uskalerrietako haurrentzat egiña*, Archu 1852...) elebidunak izanda ere, deseuskaldunizatzeari zuten helburu baina orduko haur gehienak elebakarrak izanik euskara erabili ohi zuten gaztelania edo frantsesa erakusteko (Rodríguez, 1999).

Horretaz gain, hezkuntzaren egituraketa osoa bi estatuen arabera antolatua izan zen (Espainiako estatuan 1874ko Dekretu Legearen arabera). Tokian tokiko administrazioek maisu-maistrak kontratatuzko gaitasuna galdu zuten. Irakasleria estatuala sortu zen eta ikasketen antolaketa nahiz titulazioa emateko gaitasuna estatuen menpe geratu zen orain arte (Espainiako estatuan 1902an).

Bitartean 1988ko Giza Eskubideen Aldarrikapenean, 26. artikuluan zehazkiago, gizaki guztion hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen da inolako diskriminaziorik onartu gabe. Euskal Herriak aipatu eskubidea antolatzea ukatua izan du historikoki.

1. EGUNGOAREN AZTERKETA

1978ko Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, irakaskuntzaren askatasuna bermatzeko badago ere, euskal heziketa garatu ahal izateko muga zehatzak jartzen ditu. 27. artikulua, aldiz, hezkuntza-eskubideei ekiten die. Horren arabera, Espainiako estatuak espainiar guztien hezkuntza-eskubideak bermatzeko eta tokian tokiko hizkuntza zein hezkuntza-eskumenetik gain aritzeko aukera gordetzen du.

Esandakoaren arabera, beraz, eta nahiz Hego Euskal Herrian bi autonomia politiko desberdin egon, biek hezkuntza-eskumenak dituztenak, estatuen esku gertzen da irakaskuntza-sistema bere osotasunean eratu ahal izateko ahalmena. Hau da, goian esan bezala, Euskal Herriari hezkuntza antolatzeko gaitasuna ukatzen zaio.

Orain arte aipatu dugunaren ildotik, Frantziako Errepublikak ez du bere hezkuntza-eskuduntza inorekin partekatzen. Hezkuntza eta hizkuntza nazional bakarra da frantsesena. Espainiako estatuan, berriz, hezkuntzaren eskuduntzak Espainiako Konstituzioak garatzen ditu 20., 27. eta 149. artikuluetan eta haien arabera argitaratutako legedian. Hori guztia Konstituzioaren 148. artikulua baldintzatzen du. Goazen, beraz, ikustera zertara mugatzen diren Hego Euskal Herriko hezkuntza-eskubideak.

1978ko Konstituzioaren 20. artikulua, irakaskuntzaren askatasuna bermatzeko badago ere, muga zehatzak jartzen ditu. Funtsezkoena, Konstituzioari hezkuntza ez-unibertsitarioan edozein kritika egitea galarazten du (Antonio Embid Irujo, 1984) eta, beraz, Euskal Herriaren aldarrikapena ekidinik garatzen da.

27. artikulua, berriz, hezkuntza-eskubideei ekiten die. Horren arabera Espainiako estatuak espainiar guztien hezkuntza-eskubideak bermatzeko tokian tokiko hizkuntza- zein hezkuntza-eskumenetik gain aritzeko aukera gordetzen du: «Velar por el cumplimiento de las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de sus derechos y deberes en materia de educación, así como de sus derechos lingüísticos, y en particular el derecho de recibir enseñanza en la lengua oficial del estado» (Real Decreto 480 1981 de 6 de marzo sobre la Alta Inspección del Estado en materia de enseñanza no universitaria en el País Vasco y Cataluña).

Laburbilduta, hona hemen espainiar berezko hezkuntza-eskuduntzak:

1. Hezkuntza-sistemaren antolaketa: egituratzeko ahalmena (mailak, zikloak... haien arteko loturak), irakasleriaren baldintzak, eskolatzeko-aldeak, ikastetxeen taxutzea, batez besteko arauzko ikasleria... 2. Gutxieneko irakaspenak: curriculumaren helburuak eta edukiak, ebaluazioaren irizpideak, eskola-liburuen baldintza orokorrak... 3. Tituluaren diseinua zein baliokidetzak: ikasketa-planak, gutxieneko kredituak, funtsezko ikasgaiak, jakintza-arloak... 4. Irakaskuntzaren egituratzea: eskola-lanpostuak, baliabideak, eta abar. 5. Goi-mailako ikuskaritza: goian aipaturikoa betetzen ote den jakiteko bideak, espainolen aurka diskriminaziorik ote dagoen antzeman, tituluak eskuratzeko baldintzak errespetatzen ote diren ziurtatzeko.

Horretaz aparte onartu ziren Gernikako Estatutua (Ley Orgánica 3-1979) eta Nafarroako foru-hobekuntza (Ley Orgánica 13-1982). Gernikako Estatutuan hiru artikulua daude irakaskuntzarekin lotura daukatenak: 6. art. (Hizkuntza Ofizialei buruzkoa), 10. art. (Kultura, orokorki harturik) eta 16. art. (Hezkuntzari buruz zuzenean). Nafarroakoak honako hauek dira, hurrenkera berdinean: 9., 44. eta 47. artikulua. Aipatu lege organiko horien artikuluen arabera suertatu dira Konstituzioaren 148. artikulua aurreikusten zituen hezkuntza-eskumenen transferentziak.

Hala eta guztiz ere, Konstituzioaren 149. artikulua baldintzatu egiten ditu emandako transferentzia haiek, zeren estatuak beretzat gorde egiten dituen eskuduntzak zerrendatzen baititu eta, haien artean, funtzionaritza, tituluak emateko gaitasuna, Goi-inspekzioak eta abar estatuarentzat gordeta geratzen dira berez.

Funtzionaritzaren, hala ere irakaskuntza publikoan estatuaren berezko eskuduntza da Bravo Murilloren Legetik (1852), nahiz eta Hego Euskal Herrian egun indarrean dagoen oinarrizko legea 1918koa izan, eta 1964an birmoldatua eta 1978ko Konstituzioan berronartua. Ipar Euskal Herrian, Bigarren Mundu Gerraren ondoren birmoldaturiko 1946ko Funtzio Publikoaren Legea 1959an indarrean geratuko zen orain arte.

Esandakoaren arabera, beraz, eta nahiz Hego Euskal Herrian bi autonomia politiko desberdin egon, biek hezkuntza-eskumenak dituztenak, estatuen esku geratzen da irakaskuntza-sistema bere osotasunean eratu ahal izateko ahalmena. Hau da, goian esan bezala, Euskal Herriari ukatzen zaio zehatz-mehatz:

1. Hezkuntza-sistemaren antolaketa.
 - 1.1. Hezkuntza-sistema egituratzeko ahalmena (mailak, zikloak... haien arteko loturak).
 - 1.2. Irakasleriaren baldintzak erabakitzea.
 - 1.3. Eskolartasun-aldiak finkatzea.
 - 1.4. Ikastetxeen taxutzea beren beharren arabera aske kudeatzea.
 - 1.5. Batez besteko arauzko ikasleria gauzatzea.
2. Gutxieneko irakaspenak erabakitzea.
 - 2.1. Hezkuntzaren hizkuntzatzat euskara bakarrik hautatu ahal izatea.
 - 2.2. Curriculumaren helburuak eta edukiak finkatzea.
 - 2.3. Ebaluazioaren irizpideak ezartzea.
 - 2.4. Eskola-liburuen baldintza orokorrak legeztatzea.
3. Tituluak sortzea eta baliokidetzea.
 - 3.1. Ikasketa-plan osoak bere kabuz eratzea.
 - 3.2. Funtsezko ikasgaiak eta jakintza-arloak finkatzea.
4. Irakaskuntza libroki egituratzea.
 - 4.1. Eskola-lanpostuak banatzea.
 - 4.2. Hezkuntza-baliabideak bermatzea.
5. Erabateko ikuskaritza aipaturiko guztia betetzen ote den jakiteko, euskaldunen aurka diskriminaziorik ote dagoen antzemateko eta tituluak eskuratze-ko baldintzak errespetatzen ote diren ziurtatzeko.

Hemen zerrendatutakoak edozein estatuk hezkuntza-eskubidearen bermea ziurtatzeko dituen eskuduntzak dira. Era berean, hauek ditugu, Hegoaldeko transferentziak eta guzti, Euskal Herriari ukatzen zaizkion eskumenak. Arlo honetan lortu beharrekoak, alegia.

2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

Euskal hezkuntza normalizatzea ezinezkoa da Euskal Herriko lurraldean euskarari buruzko bost goera normatibo desberdin pairatu behar direnean.

Hizkuntza-ereduak erabiltzen dituen irakaskuntzaren partez, bertako haur guztiek euskaraz ikasi ahal izateko eskubidea eta berau bermatuko duen eskola-sistema ditugu aldarri.

Horretarako euskal ikasleria, hau da, titulazioak emateko eskubidea eta irakasleak antolatzeko gaitasuna lortu beharra dago.

Ildo horretatik dator irakasleak sortzeko eskola eta fakultateak birmoldatzeko beharra. Unibertsitateak titulatu berri guztiek Euskal Herriko hizkuntza nazionala ezagutzen dutela bermatu beharko luke (Finlandian, Quebecen edo Belgikan egiten denaren antzera). Burujabetzaren bideak euskal hezkuntzaren premia dauka. Bide hori jorratzeko, bada, bereziki Finlandian erabilitako hezkuntza-sistemari kasu egingo diogu, baita Herbehereek eta Estoniak garatu dituztenei ere. Izan ere, lehenengoenetan abiapuntuko egoera soziolinguistikoa elebiduna izateaz gain, heziketa-eskubidea herri osoarentzat behar bezala zabaltzea lortu dute eta, egun, heziketaren kalitatean adierazle gorenak eskuratzen dituzte denek etorkizunari begira, prospektiba egokiena aurreikusi ahal izateko bideak izanik, bada.

2.1. Hekuntza finlandiarra

PISAko datuak ezagututa eta herrialdeak konparatuta, 15 urteko gazte finlandiarrak dira irakurmena, matematika eta zientzien neurketetan emaitza altuenak atera izan dituztenak. Arlo horiei begiratuta, Finlandiako hezkuntza-sistema eredugarritzat hartzen da. Beste hainbat arlo ere neurtu beharko lirateke hezkuntzaren osasuna zein den jakiteko, gaitasun horietara mugatu gabe, alegia. Edonola ere, Finlandiako eredutik hainbat gauza ikas daitezke, eta halaxe egiaztatuta dute hainbat euskal herritarrek. Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioko eta HETELEko hainbat irakasle, zuzendari eta hezkuntzako profesional bertan izan dira. Ikusi, hausnartu, baloratu eta hemengorako baliagarri izan daitekeena aztertu dute (*Hik Hasi*, monografikoa, **23**, 2008).

Ereduaren gakoak

Munduko hainbat herrialdetan haurrak eskolatzea edo alfabetatzea oraindik ere guztiz lortu gabeko helburua da. Beste leku askotan, ordea, haur guztiak daude alfabetatuta eta eskolara joaten dira, oinarrizko eskubide hori bermatua dago. Horien kasuan, hezkuntza-sistema hobetzea da erronka: baliabideak eta azpiegiturak, alderdi pedagogikoa, langileen eta ikasleen egoera, parte-hartzea, eta abar. Zentzu horretan, hezkuntza-sistemen osasuna zein den jakiteko hainbat neurketa egiten dira. Horietako bat da PISA (Programme for International Student Assessment). Hiru urterik behin egiten da azterketa hori. Lehendabizikoa 2000. urtean egin zen eta 43 herrialdetako egoera aztertu zen. Bigarrena 2003an burutu zen 41 herrialdetan, eta hirugarrena 58 herrialdetan 2006an, hain zuzen. Irakurmena, matematika eta zientzietako gaitasuna neurtzen ditu PISAk. Orain arteko emaitzak ikusita,

Finlandiako eskola-sistemak lortu ditu emaitzarik onenak. 2003an 2000. urtean baino emaitza hobekiago lortu zituzten 15 urteko gazte finlandiarrek matematika eta zientzien atalean. Irakurmenari dagokionez, Finlandiak lehen postuari eusten dio. «Bizitzarako garrantzitsuak diren ezagutza eta gaitasunei lotutako konpetentzia klabeetan» ikasle finlandiarrek lortu dituzte emaitzarik onenak. Eta ez hori bakarrik; beste herrialdeekin konparatuta, ikasleen artean ekitate gehien dagoen herrialdea da. Beste modu batera esanda, neska-mutilen, ikastetxeen eta eskualdeen artean dagoen aldea txikiagoa da Finlandian beste lekuetan baino. Zer du, bada, Finlandiako hezkuntza-sistemak hain emaitza onak lortzeko? Zer-nolako antolaketa eta prestakuntza dituzte? Besteak beste, honako ezaugarriek bideratzen dute arrakasta hori: Finlandia 5.200.000 biztanle dituen herrialdea da. Kohesio eta homogeneotasun sozial handia dago herritarren artean. Munduko alfabetatze-tasarik altuena du (% 100). XX. mendearen hasieran analfabetismoa ez zela existitzen esan daiteke. Hezkuntzari dagokionez, funtsezkoa izan da mendetan zehar suediarren eta errusiarren menpe egon den herrialde honentzat. Nortasun nazionalari eusteko eta independentzia lortzeko bidea izan da berau.

Hezitzaileen prestakuntza unibertsitatean

Irakasleek etengabeko formazioaren bitartez eguneratu dezakete euren prestakuntza eta eskaintza hori udalen esku dago. Gobernuaren laguntzarekin antolatzen dituzte ikastaroak. Dena dela, hasierako formazioari adinako garrantzirik ez zaio ematen.

Irakasle izan nahi dutenek, bestalde, unibertsitateara jo behar dute. Eta horri, bai, ematen diote garrantzia. Gaur egun unibertsitateko eskaintza, eskaera baino txikiagoa da eta % 10-15ek soilik lortzen du ikasketa horiek egitea.

Unibertsitatean hiru oinarrizko titulazio dituzte aukeran:

- Haur Hezkuntzako diplomatura: 2-3 urteko ikasketak.
- Lehen Hezkuntzako irakaslea: 4-5 urteko iraupena du.
- Gai edo arlo zehatzeko irakaslea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasgai bat edo biren ardura izaten dute. Bi ibilbide egiten dituzte unibertsitatean:
 1. Gaiari lotutakoa: matematika, kimika, geografia...
 2. Irakasle izateko ibilbidea: irakasle izateko prestatzeko formazio berezi bat da eta Hezkuntza Fakultatean ikasten dute hori.

Horiez gain, hainbat espezialitatetako masterrak daude: heziketa berezia, plastika, musika, familia-ekonomia...

Espezialitatea edozein delarik ere, eduki pedagogikoekin lotutako 35 kreditu komun dituzte denek, eta hor definitzen dira hezitzaileen prestakuntzako printzipio orokorrak:

- Ikerketa-ekintzan oinarritutako formazioa: etengabeko elkarrekintza dago ikertzen dutenaren eta praktikan jartzen dutenaren artean programaren hasieratik.

- *Practicuma*: praktikak ikasmaita guztietan eta garai guztietan egiten dira. Modulu bat bukatzen duten bakoitzean, hari lotutako ekintza bat egiten dute: behaketa, egonaldia... teorian ikasi dutena praktikan ikusteko. Praktiketako edukiak eta helburuak programako edukiekin erlazionatuta daude. Hasieran behatzen hasten dira eta benetako praktika profesionala eginez amaitzen dute: irakasle jarduten dute eta eskolako ekintza guztietan parte hartzen dute: irakasleen bilerak... Ikasle talde baten jarraipena egin dezakete urtez urte, eta horrela taldearen garapena ikus dezakete.
- Teoriaren eta praktikaren arteko lotura estua dago. Horrela, ezagutza teorikoan oinarrituz, eguneroko lanean sortzen diren arazoei irtenbidea ematen ikasten dute. Ez dute metodologia bakar bat erabiltzen; hainbat metodo lantzen dituzte, gero lanean dabiltzanean egokiena suertatzen zaiena hautatzeko.

Udalen gertutasuna

Udalen zereginak pisu handia du. Udalak planifikatzen, eraikitzen eta mantentzen ditu zentroak. Langileak berak kontratatzen ditu (beti zuzendaritzaren lana gainbegiraturaz). Zuzendaritza ere berak izendatzen du. Azken finean, ikastetxearen funtzionamenduaren ardura berea da, bera baita titularra. Berak ezartzen ditu zentroaren autonomiaren oinarriak.

Beste aldetik, zentroa eta irakasleak (batez ere zuzendaritza) dira eskolaren funtzionamenduaren arduradunak udalaren aurrean. Irakasleek autonomia handia dute funtzionatzeko eta curriculum nazionala ezartzeko eta egokitzeko. Nahiz eta zuzendaritzak eta udalak gainbegiratzen jardun, ez daude mugatuta.

Ikastetxeko estamentuek zentroko batzordeetan parte hartzen dute, baita herriko hezkuntza-batzordean ere.

Deszentralizazioaren bidea

Finlandiako hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat deszentralizazioa da. 20 urteko deszentralizazio-prozesu bat eraman dute aurrera hezkuntza hobetzeko helburuarekin. Gaur egun administrazioen zeregina honela banatzen da:

Hezkuntza Ministerioa:

- Hezkuntza-legedia eta estrategia.
- Hezkuntza-planen garapena.
- Hezkuntzarako aurrekontuak.
- Helburu orokorrak.
- Lortu beharreko emaitzak.
- Akordio europarrak eta nazioartekoak.

Hezkuntza Batzorde Nazionala (hezkuntzako adituek osatutako batzordea eta Hezkuntza Ministerioaren laguntzailea):

- Etapa bakoitzeko curriculumen diseinua.
- Abilezien eta ikasketen ebaluazioa.
- Hezkuntzarako kudeaketa-sistemak.
- Zerbitzuak ministerioarentzat, eskolentzat, hezitzaileentzat...

Toki-administrazioa, hezkuntza-batzordek eta herrien arteko federazioak:

- Tokiko eta eskualdeko estrategia.
- Tokiko eskola-sarea.
- Tokiko curriculumak.
- Irakasleen, zuzendarien eta beste zerbitzuen kontratazioa.
- Matrikulazioen antolaketa.
- Toki bakoitzean ikastetxeek besteen esku uzten dutena desberdina da.

Hautaprobak

Derrigorrezko Hezkuntza bukatu ostean, ordea, aukera-zabaltasun hori asko murrizten delako sentazioa hartu dute Euskal Herritik joan direnek. Batxilergoa ikasi nahi duten % 30-35 kanpoan gelditzen dira. «Institutu bakoitzak bere hautaketa proba propioak ditu: batzuek azken hiru urtetako notak hartzen dituzten kontuan, beste batzuek espezializazioaren araberrako probak eginarazten dituzte, beste batzuek gutxienerako nota eskatzen dute...», «hemen aukera gehiago dago goi mailako ikasketak egiteko. Ez dut baloratzen gizarte batentzat egokia den edo ez hainbeste goi mailako tituludun izatea, baina aukera aldetik, hemen aukera gehiago dago» diote adituek (ikus *Hik Hasi*, monografikoa, **23**, 2008).

Batxilergoko institutuak espezializatuak dira. Vantaa-ko Vaskivuori ikastetxea, esate baterako, musikan eta dantzan espezializatutakoa da. Ikasle guztiek derrigorrez ikasi behar duten oinarrizko curriculumak ordutegiaren % 63-68 betetzen du, eta gainerakoa norberak hautatzen du. Ordutegi oso malgua dute eta bakoitzak antolatzen ditu bere moduluak. Normalean hiru urtetan egiten dira Batxilergoko ikasketak, baina batzuek bitan egiten dituzte eta beste batzuek lautan.

Lanbide-eskoletatik hartzeko modukoa

Nahiz eta titulurik ez eduki, lanbide bat ezagutzen dutela frogatzen dutenei gaitasun hori onartzen zaie, titulua ere emanez batzuetan. Orain dela 10 urte hasi ziren horrekin eta hemen berriki hasi dira.

Biztanleriaren % 54 etengabeko formazioan aritzen da, eta horrek lanbide-eskolen garrantzia areagotu egiten du.

Irakasleen prestigioa eta prestakuntza

Oso garrantzitsua da irakasleek duten prestigioa eta loturik dago irakasle-ikasketak egiteko dagoen hautaketa-prozesuarekin eta unibertsitatean ematen duten prestakuntzarekin. Hezkuntza Fakultatean aurkezten diren ikaslegaietatik % 15 baino

ez dute aukeratzen. «Irakasle lana hain baloratua izateko arrazoia zein den galdetu genuen unibertsitatean eta arrazoia historikoa zela erantzun ziguten» azaltzen digu Marian Bilbatua HUHEZILko irakasleak (*ibidem*). «Finlandia mendeetan zehar egon da Suedia eta Errusiaren menpe eta euren kultura mantentzeko zeukaten eremu bakarrenetarikoa hezkuntza zen. Hortik dator hezkuntzari ematen dioten garrantzia».

Ikasketen ardatza hausnarketa da. «Formazioaren azken xedea irakasleei tresnak ematea da, egoeraz eta jardueraz hausnartzeko eta hobetzeko» argitzen du Marianek. «Ikasleek karrera hasten dutenean, dena dakitela uste dute, hezkuntzan esperientzia luzea dutelako. Euren lan garrantzitsuena esperientzia hori berrikustea, aztertzea, baliagarriak diren gauzak positiboki baloratzea... da. Alegia, hausnarketa bat egitea norberaren esperientziaren gainean, gero hobetzen joateko».

Hausnarketa eta teoriaren eta praktikaren arteko lotura estua, horiek dira prestakuntzaren giltzarriak.

2.2. Estoniako hezkuntza-sistema

Oso atzera egin behar da Estoniako hezkuntza-sistemaren hastapenetara iristeko. XIII. mendean lehen eskolak sortu zirenean hasi baitzen hezkuntza formalaren historia Estonian. Alemaniar eta daniar feudoen menpeko zen orduan Estonia, eta hezkuntza-sistema historiaren gorabehereri jarraituz joan da, orain Finlandiaren menpeko, Suediaren menpeko gero, Alemania, Errusia... Baina hezkuntza jasotzeak berebiziko garrantzia izan du estoniarrentzat. Estoniako lehen unibertsitatea, hau da Tartuko Unibertsitatea, 1632an sortu zen, eta XVIII. mendearen bukaeran hiru estoniarretik bik irakurtzen zekiten, eta 1881eko eroldaren arabera, estoniarren % 90 alfabetatua zen. Orain, independentzia lorturik, bi helburu nagusi ditu Estoniako hezkuntza-sistemak: bata, haur guztiak eskolatzea; eta bestea, ama-hizkuntza bat duten haur guztiak estonierara ekartzea. Hezkuntza-sistema hizkuntzari oso lotua dago Estonian, eta ez gaur egun independentzia-arloan bakarrik; horren aurretik, 1940-1990 bitarteko sobietarren okupazio-garaian, eskolek borroka handiak egin zituzten hezkuntza estonieraz garatu ahal izateko, Errusiak hezkuntza-hizkuntza errusiera ezarri baitzuen. Gaur egun, errusiarren komunitateak Estoniako gutxiengo garrantzitsua osatzen du, herritarren % 26 errusiarra da, eta Tallinn hiriburuan, aldiz, herritarren erdia errusiarra da. Herrialde subiranoa denetik estoniera da errepublika baltiko honetako hizkuntza ofizial bakarra, baita eskolako hizkuntza ere. Derrigorrezko Hezkuntzan (7-15 urte) % 60 gutxienez, estonieraz irakatsi behar dute, hala, Batxilergoa eta unibertsitatea estonieraz ikasi ahal izango dituzte. Eskoletako bigarren hizkuntza errusiera da. Hizkuntzaren berreskurapenean eskola egiten ari den lanak erakarririk, *Hik Hasik* Tallinnera bidaia egin du, hango hezkuntza-sistema gertutik ezagutzeko helburuarekin.

Hezkuntza-sistemaren antolaketa

Derrigorrezko Hezkuntza 7 urtetik 15era bitartekoa da Estonian, baina Estoniako hezkuntza-sistemak Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Hezkuntza, goi-mailakoa eta helduen hezkuntza hartzen ditu bere gain. Ikastetxe gehienak estatuko gobernuak edo udal-gobernuek sortuak dira,

nahiz eta bakan batzuk kapital pribatuarekin sortuak izan diren. Estatuko Hezkuntza Ministerioak ildo nagusiak ezartzen ditu, eta honako hauek dira: nortasunaren, familiaren eta nazio estoniarraren garapena bultzatuko duten baldintza egokiak sortzea; Estoniako kultura, politika, ekonomia eta gutxiengo etnikoen garapena bultzatzea; herritartasun-balioak irakastea; eta azkenik, bizitza guztiko ikasketa-tradizio nazionala sortzeko baldintzak eskaintzea. Alabaina, udal bakoitzak bere hezkuntza-batzordea du, eta bere hezkuntza-politika garatzeko eskumena. Urte eta erditik (18 hilabete) aurrera eskolatu daitezke haurrak, urte eta erditik 7 urtera bitartekoak baitira haur-eskolak. 3 urtera bitarte haurtzaindegietan egoten dira haurrak gaur egun. Duela gutxi arte, aldiz, amarekin eta etxean egon ohi ziren seme-alabak, amei lanpostua gordetzen baitzitzairen eta ia soldata osoa kobratzen baitzuten. Aldiz, krisiaren ondorioz, amatasun-baja eta eszedentziaren baldintzak okertu egin dira, eta haurrak 3 urte egin arte gordetzen zaion arren amari lanpostua, diru-sarrerara ia erdiraino jaisten dio Estatuko Ministerioak gaur egun. Datuetan agerikoa da krisiaren eragin hori: 2003. urtean, 15.698 haur zeuden eskolatuak Tallinn hiriburuan, eta iaz, aldiz, 21.512. zazpi urtean ia % 40 igo da beraz eskolaturiko haurren kopurua. Haur-eskolen kasuan, ikasle bakoitzeko diru kopuru bat ematen dio udalak ikastetxeari, izan publikoa nahiz pribatua. Gaur egun, esate baterako, Tallinnen ikasle bakoitzeko 1.279 euro ematen dizkie udalak haur-eskolei. Horrez gain, gurasoek 22 euro ordaintzen dituzte hilean ikasle bakoitzeko. Eskolan jaten duten egun bakoitzeko (3 otordu bero egunean) 1,6 euro. Udalak ematen duen diru kopuru horrekin eta gurasoek hileroko ordaintzen duten kuotarekin langileei ordaintzen zaie eta eskolaren mantenu-lanak egiten dira.

1,5-3 urte bitarteko geletan 14 haur egoten dira bi hezitzaileekin, nahiz eta beharren arabera beste bi edo lau haur ere har ditzakeen gela bakoitzak. Talde bakoitzean irakasle bat eta zerbitzuko langile bat egongo dira haur-eskoletan. Alabaina 14 haur horietatik erdiak inguru joaten dira egunero eskolara, haurren batez besteko asistentzia % 50ekoa baita. 3-7 urte bitartean, berriz, 24 haurrek osatzen dute gela, eta haur horiek ere bi hezitzaileekin egoten dira. Haur-eskola bakoitzak bere norabidea marka dezakeen arren, oro har, Estoniako haur-eskolek —eta bereziki *Hik Hask* Tallinnen bisitaturikoek— ezaugarri komun batzuk dituzte. Haur bakoitzaren nortasunaren errespetuan oinarritzen da hezkuntza-sistema txiki-txikitatik, eta ikasketa jolasean eta haurren arteko elkarbizitza demokratikoan oinarritzen da. Hezitzaileez gain, psikomotrizitate, musika eta logopediako espezialistak daude zentroetan, eta haurren hezkuntzaren arduradun, hezitzaile horiek guztiak eta, noski, familiak direla ulertzen da. Ondorioz, eskolaren eta familiaren arteko harreman estua lantzen da haur-eskoletan. Gurasoei erraztasunak emate aldera, gainera, haur-eskolak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara egoten dira irekita, nahiz eta eskola-orduen hasiera formala 9etan izaten den, eta arratsaldeko 5etan amaitzen den. Horrez gain, lanagatik, edo beharragatik, haurra gaez etxean izan ezin duten gurasoentzat gaueko zaintza egiten duten eskolak daude, Tallinnen esate baterako, gisa horretako hiru ikastetxe daude. Behar berezietako haurrentzat ikastetxe berezituak daude estatu osoan, baina gurasoek hala erabakiz gero, ikastetxe arruntetara ere eraman ditzakete haurrak. Tallinnen adibidez, behar bereziko bi eskola daude, baina gurasoek hiriko beste 13 eskolatan ere matrikula dezakete haurra, behar arruntetako hiru ikasleko behar bereziko haur bat onartzen

baitute eskolek. Ildo pedagogikoari dagokionez, eskola bakoitzak erabakitzen du bere ildo, baina badira Estoniako eskoletan nagusitzen diren pedagogo batzuk: Maria Montessori, Loris Malaguzzi (Regio Emilia) eta Johannes Kais estoniarra (1900). Kaisen ildo pedagogikoaren funtsak bi dira: inguruarekin harreman integrala bideratzea, eta jolasa ikasketaren oinarri gisa erabiltzea. Jolasak presentzia berezia du haur-eskoletan, haurren heziketako baliabide funtsezkotzat hartzen baita. Egunero ordu eta erdiz kanpoan jolasten dira haurrak, eta udaberrian eta udazkenean egunak luzeagoak direnean, ordu eta erdiko bi saio egiten dituzte kanpoan. Eskolak, alabaina, ez dira edukiak transmititzeko zentro bakarrik, haurrek egunean hiru jatordu bero jasotzen dituzte ikastetxean, 9etan, 12etan eta 15:30ean, eta bazkaldu ondoren, 7 urte bitarteko ume guztiek ordu eta erdiko edo bi orduko lo-kuluxka egiten dute. Ikusi bezala, eskolak lotura handia du osasungintzarekin, eta haurren jolasaz, loaz, eta otorduez gain, garrantzia handia ematen diote, baita ere, ariketa fisikoari; Estoniako neguetan hotz handia egiten duenez, izerdia botatzeko saunak erabiltzen dituzte ikasle guztiekin: 18 hilabetetik 3 urtera bitarteko haurrek 10 minutu igarotzen dituzte 60 graduko saunan; eta 3-7 urte bitartekoek, aldiz, 20 minutu 65 graduko saunan. Osasungintzarekin loturik, botikina egoten da gela guztietan, eta erizain bat dago eskolako. Jolasaz gain, gaur egungo ikasketa-plana lau zutabetan oinarritzen da: jolasa, sormena, ingurumena eta kultura. Estoniako kulturaren transmisiorako tresna garrantzitsuak dira eskolak, bai hizkuntza biziberritzeko eta irakasteko, bai kultura bera transmititzeko, batik bat ahozko kultura. 18 hilabetetik 15 urtera bitarteko ikasleekin irakasle izateko gradu-mailako ikasketak egin behar dituzte irakaslegaiak, hau da unibertsitateko lau urteko karrera. Lau ikasturte horietan zehar 11 asteko praktikak egin beharko dituzte eskoletan. Bestalde, ikastetxeko zuzendari izateko, lau urteko karreraz gain, graduoko masterra eduki behar dute hautagaiak. Ondoren, bi urterik behin ebaluazio bat pasatzen du ikastetxeko zuzendariak, eta bi ebaluazio jarraian gainditzen ez baditu, postu hori utzi beharko du, bere ordezkari bat sartzeko. Irakasle guztiek bost urterik behin etengabeko prestakuntzan parte hartu beharra dute. Horrez gain, irakasle guztiek eskola barruko ebaluazioa izaten dute urtero-urtero, horretarako 2006tik ebaluazio-irizpideak eta tresnak jarriak baititu Hezkuntza Ministerioak, eta hiru urterik behin eskolaz kanpoko ebaluazioa egiten dute. Zuzendaritza eta irakasle nahiz langileriaren ebaluazioaz gain, eskola-giroko elkarlana, Administrazioaren lana (bereziki aurrekontuak) eta proiektu pedagogikoak ebaluatzen dira urtero. Ebaluazioaz gain, sariketa ugaritan hartzen dute parte irakasle zein eskolek, batik bat udaletatik bideraturik eta irakasleriaren eta langileriaren lana sustatzeko, ezagutarazteko eta animatzeko. Lanpostuak esleitzeko garaian, zuzendariaren aukeraketatik hasten da prozesua. Zuzendari-posturako dei publikoa jasotzen dute Pedagogiako ikasketez gain zuzendari izateko masterra egina duten irakasleek. Behin zuzendaria aukeratu denean, kontratu mugagabea egiten zaio, eta zuzendari horrek behar dituen irakasleak eta gainerako langileak aukeratu ditu udal-ordezkarri baten, arduradun pedagogikoaren, irakasleen ordezkarien eta gurasoen ordezkari baten laguntzarekin. Ordezkarri horiek guztiek hezkuntzako udal-batzordea osatzen dute. Behin irakasleak aukeratu, haiei ere behin betiko kontratua egingo zaie. Lanpostuen esleipen-sistema berdina da sare publikoko nahiz pribatuak zentroetan. Ikastetxe berrien kasuan, esate baterako, herri edo hiri bakoitzeko udaletik bideratzen da esleipena. Irakasleen oinarritzko soldata 750

eurokoa da, Estoniako batez besteko soldata baino 100 euro baxuagoa, beraz. Haatik, lanean bost urte egin ondoren, hobekuntza ekonomikoak lor ditzakete irakasleek. Estatuko gutxienezko irabazia 300 eurokoa da errepublika honetan. Seme-alaba 18 hilabeterekin haur-eskolara eraman ez eta etxean haztea erabakitzen duten gurasoei haur-zaintzaileen ikasketak eginak dituzten hezitzaileak aukeratzeko aholkatzen zaie gurasoei. Pedagogia, psikologia, lan soziala, osasungintza eta segurtasun-arloko irakasgaiekin 160 orduko ikasketa jasotzen baitute hezitzaile horiek.

Derrigorrezko Hezkuntza

2006az geroztik 601 ikastetxe daude Estonian, horietako 85 haur-eskolak dira (escuela primari), 264 Oinarrizko Hezkuntzakoak; 236 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta 16 Helduentzako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolak. Horiei Hezkuntza Bereziko ikastetxeak eta ofizio-eskolak gehitu behar zaizkie. Haur gehienak 18 hilabeterekin eskolatzen dituzten arren, Derrigorrezko Hezkuntza 7 urterekin hasten da errepublika baltiko honetan, eta 15 urte bitarteko ikasketak egin behar dituzte. Oinarrizko Hezkuntzak bederatzi maila ditu, eta estatuak eta udal-gobernuak finantzatzen dute. Oinarrizko Hezkuntzako bederatzi mailen ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzen dira gaztetxoak, eta Batxilergoko ikasketak amaitzeko beste hiru ikasturte egin behar dituzte; derrigorrezko ikasketak burutu dituzten ikasleen % 72k aukeratzen du Batxilergoa, eta ondoren, % 70 unibertsitatera joaten da, eta Batxilergoa amaitu duten ikasleen % 28k Lanbide Heziketaren alde egiten du. Aldiz, Derrigorrezko Hezkuntza burutu dutenen gainerako % 28k Lanbide Heziketa egiten du, horretarako estatu osoan dauden 48 ikastetxeetan. Azken 8 urteetan indartu da bereziki Lanbide Heziketa, ikastetxe publiko zein pribatuen arteko sareak eginez, irakasgaiak elkarren artean osatuz. Lanbide Heziketako ikastetxeek gain, Derrigorrezko Hezkuntza amaitzeko zailtasunak dituzten ikasleei bideraturiko 80 ofizio-eskola daude Tallinnen. Derrigorrezko Hezkuntzan, haur-eskoletan bezala, Hezkuntza Ministerioak hainbat ildo eta bete beharreko gutxieneko batzuk ezartzen dituen arren, zentro bakoitzak aukeratzen du curriculumetik kanpoko zein ikasketa landu nahi dituen, baita curriculumeko zein ikasketa indartu nahi dituen ere. Irakasleek estatutik datozen hiru azterketa gainditu behar dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diploma jaso ahal izateko (*Hik Hasi* aldizkaria, 160, 2011.)

2.3. Herbehereetako hezkuntza-sistema

Herrialdearen ezaugarriak

Herbehereetako eremua Euskal Herriaren bikoitza da (41.500 km²). Biztanleria, berriz, bost aldiz handiagoa da (16 milioi). Horrek, oso herrialde populatua dela adierazten du.

Estatuaren hiriburua Amsterdam bada ere, gobernu eta ministerioak Haga (Den Haag nederlanderaz) hirian kokatuta daude. Mundu osoan hain ezaguna den Hagako auzitegia, bertan da.

Hiru milioi pasatxo immigrante, biztanleriaren ia % 20, daude Herbehereetan. Erdiak, joan berriak dira (lehen belaunaldikoak), eta, beste erdiak, bertan jaiotakoak (bigarren belaunaldikoak).

Etorikin gehienak turkiarrak (% 22), surinamdarrak (% 21), marokoarrak (% 20), Antilla Holandarretakoak (% 8), eta beste hainbat, haien kolonietatik joandakoak dira. Ikasleen sorlekuari buruz ari direnean, autoktonoak (bertakoak) eta aloktonoak (kanpotik etorritakoak) terminoak erabiltzen dituzte.

Hezkuntza-sistemaren ezaugarriak

Hezkuntza Ministerioak ildo orokorrak ezartzen ditu: legeak arautu, diruz hornitu eta jarraipena egin. Hau da, Gobernuak ZER lortu behar den diseinatzen du eta horretarako behar diren bitartekoez arduratzen da.

1. Legeak arautu:

- Eskolak sortzeko bete behar diren baldintzak ezartzen ditu.
- Irakasleak izateko betebeharrak finkatzen ditu.
- Ikasleek 12 urterekin lortu beharreko oinarritzko curriculuma zehazten du, 58 helburu orokor jarrita.

2. Diruz hornitu:

Printzipioz, Derrigorrezko Hezkuntza doakoa da denentzat (4-18 urte).

- Ikasle bakoitzari zer diru kopuru dagokion finkatzen du. Une honetan, kopuruak biribilduz, honela litzateke: 4.000 euro Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzeko, 6.000 euro Bigarren Hezkuntzakoentzat, eta behar bereziak dituztenentzat hiru aldiz gehiago ikasleko.
- Irakasle guztiek tratamendu bera jasotzen dute. Oinarria bera da denentzat, antzintasuna kontuan hartzen da eta 45 urtetik gorakoek gainfinantzaketa berezia dute.
- Eskola bakoitzak Administrazioetik ikasleen finantzaketagatik jasotzen duen diruaren % 80-85 irakasleen soldatetan inbertitzen dela esan liteke, eta, gainerakoa funtzionamendurako gastuetan.

3. Jarraipena egin:

- 12 urterekin, CITO deitzen den estatu-azterketa pasatzen dute ikasle guztiek. Ebaluazio-proba hori, Administrazioetik kanpokoa den institutu independente batek egiten du. Emaitzak, publikoak egiten ditu, Interneten zintzilikatuz eta herritar guztien eskura jarritz.
- Ikasle bakoitza neurtzeko, CITO azterketaz gain, eskolak ikasle bakoitzari buruz egiten duen balorazioa kontuan hartzen da, eta bien batez bestekoa egiten da.
- Horren guztiaren emaitzak ondorengo ikasketen aukera asko baldintzatzen du, Bigarren Hezkuntzako hiru ibilbide baitaude.

- Emaidza baxuak dituzten ikastetxeek inspektzioaren jarraipen zuzena jasotzen dute, haientzat bitarteko bereziak jarri. Hala ere, hobekuntzarik ez badute lortzen, neurri sakonagoak hartzen dira, eta zentroa itxi liteke.
- Inspektzioaren egiteko nagusia eskolen jarraipena egitea eta hobekuntzan eragitea da.
- PISA eta beste nazioarteko neurketen jarraipena ere egiten du. Ohartu direnez, CITO eta PISA emaitzen artean erlazio nahiko zuzena dago.

Ikastetxeen lana

Autonomia eta malgutasuna dira ezaugarriak nabarmenenak.

Ikastetxe bakoitzak behar dituen langileak kontratatzen ditu, hezkuntza-proiektua finkatzen du, curriculuma zehazten du, metodologia garatzen du, eta bitartekoak eskuratzen ditu. Hau da, legeak ezartzen duen ZER hori, NOLA lortu zehazten du eta praktikara eramaten du. Betiere, eskolak eta bere auzoak, herriak edo inguru hurbilak dituzten beharrei eta lehentasunei ahalik eta egokien erantzun nahian.

Herritarren eskubidea

Neska-mutilak zer eskolara bidali etxeokoe erabakitzen dute.

Une honetan, ikastetxeen % 33 publikoa da, udalenak ia guztiak. Udalak, askotan, partaide izanik ere, fundazio baten esku uzten du eskolaren kudeaketa. % 66 eskola «espezialak» edo ekimen sozialekoak dira; sortzeko inizatiba, herritarren taldeetatik, kongregazioetatik edo fundazioetatik etor daitekeelarik. Eta, ia % 1 pribatuak edo bereziak dira.

Bigarren Hezkuntza egiteko hiru aukera

LHko 8 ikasturteak amaitu ondoren, CITO azterketa egiten dute. Eskolak, ikasle bakoitzari BHko zein ibilbide egin aholkatzen dio. Eta, azken erabakia, gurasoek hartzen dute:

1. Lanbide Heziketa (4 urte).
2. Goi-mailako orokorra (5 urte).
3. Unibertsitate aurrekoa (6 urte).

3. LABURREAN

Lan honen oinarrian neronek egindako ikerketak badaude ere, eta bereziki «Schools and linguistic normalization: some comparative examples» (Digit-hum/UOC.2002), ezin izango nuen hau burutu *Hik Hasi* aldizkariak urteetan zehar eginiko ekarpena kontuan hartu gabe, eta, jakina, PISA ebaluazioak emandako datuei erreparatu gabe. Zer da PISA ebaluazioa? Nazioarteko ikerketa bat. Zer aztertzen du? Ikasleen gaitasuna ikasitakoa bizitza errealean aplikatzeko. Zein da haren helburua? Zer ebaluatzen zaie? Irakurmena, Natur Zientziak eta Matematika (2009 Hizkuntza).

Nork eramaten du aurrera ikerketa? OCDE/ELGAK antolatzen du.

Hona hemen non egiten den:

ELGAko HERRIALDEAK	ELGAkoak EZ DIREN HERRIALDEAK	AUTONOMIA-ERKIDEGOAK	BESTE BATZUK
Alemania	Albania	Andaluzia	Flandes
Australia	Argentina	Aragoi	Eskozia
Austria	Azerbaijan	Asturias	Liguria
Belgika	Brasil	Balear uharteak	Lonbardia
Kanada	Bulgaria	Kanariar uharteak	Emilia
Korea	Kolonia	Kantabria	Romagna
Txile	Txina Taipei	Gaztela eta Leon	Campania
Danimarka	Kroazia	Katalunia	Piamonte
Eslovenia	Dubai	Ceuta eta Melilla	Sardinia
Espainia	Estonia	Euskadi	Sizilia
Estatu Batuak	Errusiar Federakundea	Galizia	Trento
Finlandia	Hong Kong-Txina	Errioxa	Veneto
Frantzia	Indonesia	Madril	...
Grezia	Israel	Murtzia	
Herbehereak	Jordania	Nafarroa	
Hungaria	Kazakhstan		
Irlanda	Kirgizistan		
Islandia	Letonia		
Italia	Liechtestein		
Japonia	Lituania		
Luxenburgo	Macao – Txina		
Mexiko	Montenegroko Errepublika		
Norvegia	Panama		
Zeelanda Berria	Peru		
Polonia	Qatar		
Portugal	Serbiar Errepublika		
Erresuma Batua	Errumania		
Txekiar Errepublika	Shanghai - Txina		
Eslovakiar Errepublika	Singapur		
Suedia	Thailandia		
Suitza	Trinidad eta Tobago		
Turkia	Tunisia		
	Uruguai		

Beraz, hizkuntza-gaitasuna eta irakurmena izanik aipatu herrietan PISA ebaluazioak neurtzen duena, honako emaitza hauek lortu ziren:

PISA 2009. IRAKURKETAKO EMAITZEN BATEZ BESTEKOA HERRIALDEEN ARABERA:

Herrialdea	Batez bestekoa
Finlandia	536
Kanada	524
Japonia	520
Herbehereak	508
Belgika	506
Norvegia	503
Estonia	501
Suitza	501
Polonia	500
AEB	500
Suedia	497
Alemania	497
Irlanda	496
Frantzia	496
Danimarka	495
Euskadi	494
Britainia Handia	494
Hungaria	494
ELGA	493
Portugal	489
Italia	486
Letonia	484
Espainia	481
Txekiar Errepublika	478
Eslovakiar Errepublika	477
Luxenburgo	472
Lituania	468
Turkia	464
Txile	449
Bulgaria	429

Azterketa honek, bada, kasu egin die hurrenkeraren erpinean urtez urte lehena izaten denari (Finlandia), Euskal Herriaren antzekoa den eta, era berean, PISA ebaluazioan lehenengo postuetan dagoen Herbehereei, eta duela gutxi independentzia eskuratu duen gure herriaren moduko beste bati (Estonia); hauek guztiak, bai estatu europarrak bai historikoki hizkuntza-ukipeneko egoeran bizi izan direnak, eta, azkenik, ikuspegi konpentsatorio batetik begiraturik, gizarte-asimetria kulturalak orekatzeko ereduak izan diren hezkuntza-sistemak dira.

Euskal Estatuaren bideak hezkuntza-antolaketaren premia eduki badu. Bide hori jorrazteko, bada, bereziki Finlandian erabilitako hezkuntza-sistemari kasu eginez gero, honakoak azpimarratuko genituzke: irakasle izan nahi dutenek unibertsitatara jo behar dute; horrez gain, hainbat espezialitatetako masterrak daude: Heziketa Berezia, plastika, musika, familia-ekonomia...; udalen zereginak pisu handia du. Udalak planifikatzen, eraikitzen eta mantentzen ditu zentroak (Espainiako estatuan XX. mendearen hasieran galdutako eskumena...) eta langileak kontratatzen ditu. Finlandiako hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat deszentralizazioa da eta, halaber, irakasleek duten prestigioa. Hausnarketa eta teoriaren eta praktikaren arteko lotura estua, horiek izan dira haien prestakuntzaren giltzarri.

Herbehereetan, berriz, hezkuntzarako legeak arautzeaz gain, diruz ere hornitu eta behar bezalako jarraipenak egiten ditu. Beraz, inspekzioaren egiteko nagusia, eskolen jarraipena egitea eta hobekuntzan eragitea da.

Estonian, independentzia lorturik, bi helburu nagusi izan ditu Estoniako hezkuntza-sistemak: bata, haur guztiak eskolatzea; eta bestea, estonieratik at ama-hizkuntza duten haur guztiak estonierara ekartzea.

Azkenik, ez da ahaztu behar hezkuntza-sistema haietan helduen hezkuntza, goi-mailako institutu pedagogikoak, osasuna eta hezkuntza nahiz irakaslearen papera eta alfabetatze-programak landu dituztela nazio-heziketaren ardatz.

Beraz, aipatu estatuetan abiapuntuko egoera soziolinguistikoa elebiduna izateaz gain, kasu guztietan heziketa-eskubidea herri osoarentzat behar bezala zabaltzea lortu dute eta, egun, heziketaren kalitatean adierazle gorenak eskuratzen dituzte PISA ebaluazioan parte ez hartu arren.

3.1. Indarguneak eta ahulguneak

Euskal Herriko hezkuntza-esperientziak heziketa-erkidegoari garrantzi berezia eman izan dio. Horra hor ikastolen historia, non, hizkuntzaren aldarriarekin batera, hala tokian tokiko udalen parte-hartzea nola derrigorrezko estatuen hezkuntza-sistemaren aurrean benetako desobedientzia zibila gizarteratzen eta gauzatzen joan den. Ikusi dugun moduan, Finlandiaren eredia udalen gertutasunean eta deszentralizazioan oinarritu da gurean ere eginkizuna baino egingarria izan dena (Rodríguez, 1996).

Irakaslearen prestigioa izan da, ordea, beste giltzarrietako bat eta, Euskal Herrian euskal irakaslearen aldeko gizarte-jarrera positiboa egon bada ere, lege ezarrita dagoen espainiar curriculumaren mendekotasunak baldintzatzen du haien formazioa, eta ahulgune bihurtu (Rodríguez, 2011).

Irakasleen formazioarekin batera, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren eta unibertsitarioaren arteko zubiak eraiki beharra dago. Aipatu eruedetan hala da eta 1931ko Lizarrako Autonomia Estatutuan halaxe aurreikusten zen, nahiz eta egungo legediek aukera hura galarazi, guretzat ahulgune (Rodríguez, 1999).

Curriculumari dagokionez, alde batetik, irakurmena izaten da PISA txostenak herrialde bateko hezkuntzaren balioa neurtzeko erabili ohi duen funtsezko irizpidea, eta gurean, balizko euskal irakurleria ezagutzeko alegia, ez da inoiz behar bezalako ikerketarik egin, are gutxiago irakurketa-plangintza diseinatzeko proposamenik landu. Ahulgunea.

Bestetik, Euskal Herrian Heziketa Berezia, plastika, musika nahiz familia-hezkuntza landu izan dira inguruko estatuen hezkuntzetan ez bezala, eta hori indargunea litzateke heziketa gizarteratzearen alde.

Gogoeta pedagogikoaren eta praktikaren arteko lotura eta irakasleriaren etengabeko prestakuntza giltzarriak izan dira historian zehar garatu diren euskal irakasleen jardunetan (*Isilik* eta *Hik hasi* aldizkariak, *irakasleen elkarte*, *adarra*,

UEU, etab.), erakundeetatik at gauzatutako praktika teoriko horrek gaurkotzearen «habitus»a egonkortu du sektorean indargunea izanik.

Aldiz, hezkuntzarako legeak arautzeko aukera murrizta da oso. Ahulgunea. Diruz hornitzeko eta behar bezalako jarraipenak egiteko bidea, beraz, inspekzioaren egiteko nagusia galarazia dago Euskal Herrian estatuei dagokielako. Ahulgunea, bada. Halaber, eskolen jarraipena egitea eta hobekuntzan eragiteko jardunak mugatuta daude oso. Ahulgunea ere bai.

3.2. Balizko estatu baten ekarpenak

Estonian, independentzia lorturik, bi helburu nagusi izan ditu Estoniako hezkuntza-sistemak: alde batetik, haur guztiak eskolatzea; eta bestetik, estonieraz aparte ama-hizkuntza duten haur guztiak estonierara ekartzea.

Gurean, berriz, lehenengo helburua lorturik egon arren, bigarrena, aldiz, lortzeke dago, eta estatu independente batek ahalbidetuko lukeen hezkuntza-legendien antolaketa berriaren bidez soilik lor liteke.

Argiago adierazita eta, lan honetan zehar azaldutakoa laburtze aldera, hona hemen:

Hezkuntza-sistemaren antolaketa osoa estatu berriaren erabaki politikoen arabera antolatu ahal izatea, hau da: hezkuntza-sistema egituratzeko ahalmena (mailak, zikloak... haien arteko loturak); irakasleriaren baldintzak erabakitzea; eskolartasun-aldiak finkatzea; ikastetxeen taxutzea beren beharren arabera aske kudeatzea; batez besteko arauzko ikasleria gauzatzea.

Horrekin batera, gutxieneko irakaspenak erabakitzea; hezkuntzaren hizkuntzatza euskara bakarrik hautatu ahal izatea; curriculumaren helburuak eta edukiak finkatzea; ebaluazioaren irizpideak ezartzea; eskola-liburuen baldintza orokorrak legeztatzea.

Horren ondorioz, beharko liratekeen tituluak sortzea eta baliokidetzea; ikasketan osoak bere kabuz eratzea; funtsezko ikasgaiak eta jakintza-arloak finkatzea.

Eta hori guztia, jakina, irakaskuntza libroki egituratzeko, eskola-lanpostuak banatzeko nahiz hezkuntza-baliabideen bermea ziurtatzeko.

Horretarako, erabateko ikuskaritza aipaturiko guztia betetzen ote den jakiteko, euskaldunen aurka diskriminaziorik ote dagoen antzemateko, eta tituluak eskuratzeko baldintzak errespetatzen ote diren ziurtatzeko, antolatzeko aukera egongo litzateke.

Hemen azaldutakoa, bada, edozein estatuk hezkuntza-eskubidearen bermeaz arduratzeko dituen eskuduntzak dira eta, noski, balizko estatu independente batek irakaskuntzaren arlo hau guztia bere beharren eta eginkizunen arabera eratu beharko luke, egungo egoeran, bistan da, ezinezkoa dena.

Edonola ere, badago, egon, estatu independente batek edozein eremu arautzeko duen legeztatze ahalmenaz gain, hizkuntza/hezkuntza arloan bereziki landu dezakeena: udal-politikaren eta irakaskuntzaren arteko lotura, hain zuzen ere.

Ikusitakoaren arabera, bai nazio-hizkuntzari eman beharreko babesari begira, baita tokian tokiko hezkuntza-antolaketa bermatzeari begira ere, PISA txostenaren arabera erpinean dauden herrialdeek (Finlandia, Kanada, Herbehereak, Belgika, Estonia, Suitza...) heziketa deszentralizatuaren alde egin dute apustua. Horretarako, eta hizkuntzari dagokionez behintzat, lurraldetasunaren hizkuntza-eskubideak hautatu ohi dituzte pertsonatasunaren gainetik (Txillardeggi, 1999) eta zonaldeen erroldaren arabera eratu dituzte hezkuntzaren hizkuntzen erabilera. Aipatu hizkuntza-erroldaren araberrako hezkuntza-eraketa proposatu dute gurean Udalbiltzak nahiz UEMAK eta, goian adierazitako udal-antolaketa berri baterako, bideak eskaini dituzte dagoeneko (Rodríguez, 1993). Horrek guztiak aukerak ematen ditu euskal hezkuntza nahiz hizkuntza babestu eta helarazi beharreko nazio-kultura moduan lantzeko eta ez hizkuntza gutxitu bezala soilik (Rodríguez, 1993). Beraz, «Sisifokeriari» aurre eginez, Euskal Herriak behar duen hezkuntza-antolaketa berriaren bidean zeregin handia egon arren, dagoeneko egindakorik badago, egon, eta balizko estatu berri batek arlo honetan badu nondik ikasi, barnetik zein kanpotik.

BIBLIOGRAFIA

BAT soziolinguistika aldizkaria, **30**, 1999.

Hik hasi, monografikoa, **23**, 2008.

PISA txostenaren ebaluazio diagnostikoa 2010. emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisia (isei-ivei), 2011ko otsaila.

Rodríguez, F. (1993): "Hizkuntzen erabilera Europar Batasunari begira", *Agalia* aldizkaria, **38**, Associacon Galega da Língua, Coruña, 136-148.

Rodríguez, F. (1993): "Euskararen herritik erdal mundura", *Tanttak* aldizkaria, **9**, UPV/EHU, Bilbo, 61-73.

—————, (1996): *Ikastolak eta Euskal Eskolak*, Orain, Donostia.

—————, (1999): *Construir o destruir naciones*, Besatari, Bilbo.

—————, (2002): "Schools and linguistic normalization: some comparative examples", *Digit-hum/UOC*.

—————, (2011): *Nacionalismo y Educación*, Delta, Madril.

—————, (2009): "Mita kuuluu?", *Hegats*, **42**, Euskal Idazleen Elkartea, 11-25.

Txillardeggi (1990) : "Soziolinguistika egunak", *Hizkuntza/Hezkuntza*, UPV/EHU, Bilbo, 55-62.

5. Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak

Iñaki Mtz. de Luna Pérez de Arriba, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Zein da euskararen egoera? Zein izan da azken hamarkadetan hizkuntza horrek izan duen bilakaera eta zein egungo baldintzak? Zein dira aurrera begira euskarak dituen erronkak? Galdera horiei erantzun egokia ematea bilatzen du artikuluak, ahalegin horretan hainbat puntu jorratuz: geografia-eremu bakoitzeko estatus juridikoak eta hizkuntza-politikak; hizkuntza-transmisioa eta eragileak; hizkuntza-gaitasuna, erabilera, jarrerak, iritziak eta irudikapenak. Oinarri horietatik abiatuz, azken gogoetek aukera ematen dute euskarak egun gainditu beharko dituen erronka nagusiak etorkizun oparoa izan dezan, hala nola euskal hiztunek pairatzen duten bortizkeria sinbolikoa, gizartean dagoen ezjakintasun soziolinguistikoa eta iritzi publikoaren bataila irabaztea.

The situation and outlook for the basque language at the beginning of 21st century: the challenges that lie ahead

What is the situation of the Basque language? How has the language fared in recent years, and where do things stand today? What challenges will Basque face in the future? Attempting to answer these questions, this chapter touches on issues such as the language's legal status and language policy in each part of Euskal Herria; language transmission and language work; linguistic competence, language use, attitudes, opinions and representations. The chapter ends with some thoughts about the main challenges Basque will now have to face in order to stake out a satisfactory future for the language, including issues like the symbolic violence to which Basque speakers are still subjected today, the sociolinguistic ignorance that runs rife in this society, and the battle to win over public opinion.

1. EUSKARAREN EGUNGO BALDINTZAK

1.1. Eremu juridiko-administratiboak

Euskal Herria —euskararen herria, etimologikoki— lau esparru juridiko-politikotan dago banatuta, non euskarak sei estatus juridiko ezberdin dituen: bost Euskal Herriko Hegoaldean (Espainiako estatuan) eta bakarra Iparraldean (Frantziako estatuan).

Hegoaldean, hizkuntza-eremu bat da Euskadiko Autonomia Erkidegokoa (EAE, hemendik aurrera); beste hiru eremu daude Nafarroako Foru Erkidegoan: euskalduna, mistoa eta erdalduna; bosgarrena Trebiñu Konderrian, alegia Arabako (EAEko) bihotzean dagoen Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoari dagokion enklabean, eta seigarren eremua Valle de Villaverden (Villaverde Turtzioz⁴⁹), Bizkaiko lurretan kokatuta dagoen Kantabriako Autonomia Erkidegoari dagokion enklabea. Azkenik, Iparraldean beste hizkuntza-eremu bat dago, Frantziako Errepublika osorako den berbera.

1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen ditu Euskal Herriko Hegoaldeko sei eremu horietan euskarak egun dituen baldintza juridiko-politikoak. Konstituzio horren 3.1 artikulua gaztelania estatuko hizkuntza ofiziala dela esateaz gain, beste hizkuntzak ere ofizialak izan daitezkeela dio, zein bere autonomia-erkidegoan eta lekuan lekuko estatutuaren arabera (3.2 artikulua). Hala ere, gaztelania ez bezala, hizkuntza horiek jakin beharrik ez du ezartzen Konstituzioak. Hortaz, beste hizkuntza horiek ustez gaztelaniaren maila bera izan arren, oinarrizko asimetria dago gaztelaniaren eta beste horien artean (Bilbao eta Casares, 2010: 29-30).

Espainiako Konstituzioa abiapuntu, EAEko (1979) eta Nafarroako Foru Erkidegoko (1981) Autonomia Estatutuek ofizialtasun motaren bat aitortzen diote euskarari, bakoitzari dagozkion lurraldeetan. Gaztela eta Leongo eta Kantabriako Estatutuek, aldiz, ez dute euskara aintzat hartzen Trebiñu Konderrirako eta Valle de Villaverde udalerrirako, hurrenez hurren.

Frantziako Errepublikan kokatua den Iparraldeari ez zaio berariazko izaera juridikorik onartzen, ez eta berariazko hizkuntza-eremurik ere. Hala ere, aldaketak antzematen dira XX. mendearen azken laurdenean eta euskara nortasun-markatzat hartzen duen nolabaiteko atxikimendua agertzen da gizartean, hizkuntza horren biziraupenaz kezkatzen hasiz. Era horretan EAEn eta Nafarroan sasoi berean abian dagoen gizarte-mugimenduarekin bat egiten da, neurri batean. (Barandiaran, 2009: 250).

1.2. Estatus juridikoak eta hizkuntza-politikak

Hasteko, ezinbesteko erreferentea da Europako araudia, batez ere Europako Kontseiluak 1992an onartu duen *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* —edo *Ituna*—. Bertan arlo publikoan eskualdeetako edo eremu

49. Ordura arte Villaverde de Trucíos izenarekin ezagutzen zen udalerrria izenez aldatzea eta Valle de Villaverde batailatzea erabaki zuen 2008ko urtarrilaren 28ko udalaren osoko bilkurak, era horretan Bizkaiko udalerrria den Turcios-Turtziozekin gertatu ohi zen nahasmenarekin amaitzeko asmoz.

urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko neurriak aurreikusten dira hainbat esparrutan, hala nola irakaskuntzan, justizian, administrazio-agintari eta zerbitzu publikoetan, komunikabideetan, kultur ekintza eta zerbitzuetan, ekonomia- eta gizarte-esparruan, eta mugaldeen arteko trukeetan. Estatuak aldian-aldian txostena aurkezten diote Europako Kontseiluko idazkari orokorrari, Gutunean aurreikusitako neurrien betetze-mailari buruz; legezko erakunde edo elkarteek ere txostenak aurkez ditzakete. Horiek baloratu ondoren, Europako Kontseilutik oharrak eta gomendioak egiten zaizkie estatuak.

Gutun hori Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi du eta, horren ondorioz, indarrean dago Espainiako lurraldean (BOE, 15-9-2001). Hala ere, aurrerapauso handiak egitea ez da erraza eta Gutunaren aplikazioaz hirugarren txostenean egindako gomendioak, neurri handian, lehen eta bigarren txostenetan egindako berberak dira (Hizkuntz Eskubideen Behatokia, 2011: 150). Frantziak Gutuna 1999an sinatu du, baina ondoren berretsi ez duenez, ez da bere lurraldean aplikatzen, Iparraldea barne (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011a).

EAEan, 3/1979 abenduaren 18ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoak ofizialtzat jotzen ditu euskara zein gaztelania lurralde osoan, eta jasotzen du biztanle guztiek hizkuntza bi horiek ezagutzeko eta ahoz zein idatziz erabiltzeko duten eskubidea.

Autonomia Estatutuan xedatzen den hori, Eusko Legebiltzarrak garatzen du azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena arautzen duena onartuz. Lege horrek euskararen garapen eta normalizazioaren aldeko neurriak hainbat esparrutan hartu behar direla ezartzen du: hala nola administrazio publikoan, hezkuntzan, helduen alfabetatze-euskalduntzean eta komunikabideetan. Neurri horiek aplikatzerakoan, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharko dela ere finkatzen du Legeak (Barandiaran, 2009: 251).

Ondoren, beste funtsezko lege batzuk datoz lege hori osatzera eta garatzera: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa eta abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. Horiek ez ezik, badira beste arau, dekretu edo agindu batzuk, non zenbait neurri eta irizpide ezartzen diren euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruan: hezkuntzan, komunikabideetan, osasun-zerbitzuetan, garraio eta bide-segurtasunean, Ertzaintzan, ongizate-zerbitzuetan, eta abarretan. Dena den, araudi horiek aitortzen dituzten eskubideak bermatzea zenbait kasutan nahiko zaila gertatuko dela diote Bilbao eta Casaresek (2010: 50-51).

EAEko hizkuntza-politikaren ardura Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean kokatua dagoen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gain gelditzen da. Erakunde horren ardura da, era berean, EAEko erakunde publikoek (foru-aldundiek, udalek, EHUK, eta abarrek) hizkuntza-eremuan duten eginkizuna bete dezatela zaintzea.

Horren ondorioz, 1998an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartzen da, hiru helburu estrategiko hauekin: a) euskararen transmisioa; b) hizkuntza hori gizarteak erabiltzea; c) hizkuntza horren kalitatea zaintzea (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 1999); planteamendu orokor hori 2005ean berresten da. Urte

batzuk geroago, 2011n, EBPnren Marko Orokorrak euskararen aldeko motibazioa, euskararen ezagutza edo erabilera bultzatzea ditu helburu, honako esparruetan: 1) familia; 2) herritarrak; 3) irakaskuntza; 4) administrazioa, 5) lan-mundua; 6) aisia; 7) kirola; 8) kulturgintza; 9) komunikabideak; 10) teknologia berriak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011b).

Foru Erkidegoan (Nafarroa, hemendik aurrera) euskarari dagozkion oinarritzko bi arau daude: lehena, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzekoa eta, bigarrena, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, euskarari buruzkoa. Lege horiek xedatzen dutenez, hortik aurrera euskara eta gaztelania ofizialak izango dira Nafarroako gune euskaldunetan eta gaztelania baino ez gune horietatik kanpo.

Bi lege horien helburuak dira Foru Erkidegoko herritarren hizkuntza-eskubideen defentsa egitea, euskara biziberritzea eta beraren erabilera areagotuko duten neurriak finkatzea. Baina, Nafarroa hiru hizkuntza-eremutan banatzearen ondorioz, nafar batzuei ukatzen zaizkie arestian esandako eskubideak, lurraldetasunaren arabeko eskubideak norbanako eskubideen aurretik jarriz (Barandiaran, 2009: 257): a) *eremu euskalduna*, 56 udalerri, non euskara ofiziala den (EAEko maila bertsuari); b) *eremu mistoa*, 48 udalerri, non herritar euskaldunei zenbait hizkuntza eskubide aitortzen zaien; c) *eremu ez-euskalduna*, 168 udalerri, non herritarrei ia ez zaie euskararekiko eskubiderik onartzen. Zatikatze horrek nafarren arteko bereizkeria eta herritarren eskubideen urraketa ekarri ditu (Bilbao eta Casares, 2010: 43-45).

Euskara erabiltzeko eskubidea onartzen zaie nafar batzuei, beraz, hala nola hezkuntzan, komunikabideetan, osasun-zerbitzuetan, garraio eta bide-segurtasunean, foru-polizian, gizarte-zerbitzuetan, eta abarretan. Baina, lantzeke daude, EAEn ez bezala, kontsumitzaileen edo erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak eta justizia-administrazioaren esparruko eskubideak bermatuko dituzten araudiak (Bilbao eta Casares 2010: 43-45, 51).

1995etik 2000ra legedia bi aldiz aldatzen da: 1995ean Nafarroako Gobernuak 1994ko foru-dekretu bat (135/1994) berreskuratu eta baliatu zuen euskararen erabilera Administrazio Publikoan normalizatzeko asmoz. Baina, 2000n gobernu berri batek dekretu berri bat (372/2000) kaleratzen du, aurrekoaren irakurketa murriztagoa egiteko. Gorabehera horiek begi-bistan uzten dituzte nafar politikaren zatiketa eta jarrera kontrajarriak, euskararen zein hizkuntza-politikaren inguruan (Barandiaran 2009: 257). Horren ondorioz zenbait egilek lege-egoera horren izaera murriztailea azpimarratu dute (Bilbao eta Casares, 2010: 46).

2000tik aurrera hizkuntza-politikak bere horretan dirau, oro har; alegia, tira-bira handiekin. Adibidez, otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuak euskararen erabilera arautzen du Nafarroako Administrazio Publikoan (2003ko otsailaren 12ko NAO), baina Nafarroako Auzitegi Nagusiak maiatzaren 20an emandako 585/2004 epaiaren bidez dekretu horren aurka jarritako errekursoaren ebazpena kaleratzen du: dekretuaren artikulua batzuk baliorik gabe utzi ez ezik, arautzen du aplikatu beharreko euskararen derrigorrezko ezagutza eta, gune euskaldun eta mistorako

xedapen bereziak jasoz, lanpostuak hornitzeko erabili beharreko balorazioa (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011a).

2008tik aurrera Nafarroako hizkuntza-politikaren ardura Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence izeneko erakundearen gain dago, izen horrekin birbatailatzen baita ordura arte Euskararen Nafar Institutua izandakoa. Lau dira haren lan-ildo nagusiak: a) erakunde publikoei aholkuak ematea hizkuntzaren inguruan, horren premia adierazten dutenean; b) Europako hizkuntza gutxituei eta Nafarroako euskarari buruzko ikerlan linguistiko eta soziolinguistikoak burutzea eta bultzatzea; c) zenbait programa bultzatzea, hala nola herritarrek euskara ezagutu eta erakunde publikoekin erabiltzeko duten eskubidearena, edo gizarte-eremuetan euskara berreskuratzeko eta garatzeko edota hizkuntza horren aldeko jarrerak bultzatzearena; d) helduen eta, espezifikoki, administrazio publikoetako langileen euskalduntzeko eskaerari erantzutea (Euskarabidea Institutua, 2010)

Trebiñu Konderrian eta Valle de Villaverde udalerrian euskarak ez du inolako onarpenik edo aintzatespenik. Izan ere, Espainiako Konstituzioak lekuan lekuko hizkuntzen estatusa ezartzea eta zedarritzea autonomia-erkidegoetako estatutuen gain uzten du. Trebiñu Konderrian eta Valle de Villaverde udalerrian euskarak duen egoeraz Gaztela eta Leongo eta Kantabriako Estatutuek, hurrenez hurren, ez dute ezertxo ere esaten. Bestalde, *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak* ere ez ditu EAEn kokatuta dauden lurralde horiek aipatzen.

Trebiñu Konderrian, hala ere, herri-ekimenari esker euskararen aldeko hainbat jarduera burutu dira bertan, azpimarragarriena ikastola baten sorrera, nahiz eta Gaztela eta Leongo agintariek ez dituzten ekimen horiek babestu (Hizkuntz Eskubideen Behatokia, 2007: 12). Bi kasu horietan ezer ez egitea ere hizkuntza-politika mota jakin bat izan daiteke⁵⁰.

Iparraldean euskarak duen estatusa Frantziako legedi orokorraren (Loi 75-1349, 1975eko abenduaren 31koa, Relative a l'emploi de la Langue Française) menpe dago, non ez zaion inolako berezitasun soziolinguistikorik aitortzen euskal lurralde horri. Testuinguru horretan, 1992an Frantziak bere Konstituzioaren 2. artikulua aldatu zuen Errepublikako hizkuntza frantsesa dela argi utziz.

Beste bi legek babesten dute frantsesaren estatusa eta erabilera (1975eko abenduaren 31ko 75-1349 Legea eta 1994ko abuztuaren 4ko 94-665 Legea). Azken hori —ingelesaren eraginari aurre egiteko, batez ere— frantsesaren erabilera bermatzeko sortua da. Hortaz, frantsesak ez beste hizkuntzek ez dute lege-babesik, baizik eta tolerantzia hutsa (Bilbao eta Casares 2010: 25-26).

Frantziak *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* berretsi eta aplikatu ez badu ere, 2000tik aurrera hasi zen erregioetako hizkuntzen eskubide batzuk aintzat hartzen, betiere Frantzia osoan hizkuntza horien aurrean frantsesak duen nagusitasuna argi utzita (Barandiaran, 2009: 270).

Ildo horretatik, Frantziako *Assemblée Nationale*an Konstituzioa aldatzeko proposamen bat aurkeztu zen, 2002an, erregioetako hizkuntzei zor zaizkien begirunea

50. Kantabriako Valle de Villaverde udalerrian euskarak duen estatusari buruz ez da daturik aurkitu.

eta defentsa gehitzeko asmoz, baina ahaleginak porrot egiten du. 2008an izandako aldaketaren ondoren, Konstituzioak *ondare frantsestzat* jotzen ditu hizkuntza horiek, baina aitorten horrek berez ez du inolako eskubide edo askatasunik bermatzen, *Conseil Constitutionnel* delakoaren arabera (Portalingua, 2011).

Iparraldeko hizkuntza-politikari dagokionez, 2004an Euskararen Erakunde Publikoa - Office Publique de la Langue Basque (EEP-OPLB) sortu zen, modu esperimentalean. Erakunde horretan Iparraldean eskumenen bat duten erakunde publiko guztiak ordezkaturik daude.

2006an, erakunde horrek hizkuntza-politikaren egitasmoa prestatu zuen, euskara honako eremu hauetan bultzatzeko asmoz: 1) transmisioa familiaren, haurtzaindegien eta hezkuntzaren bitartez; 2) erabilera komunikabideetan, aisialdian, argitalpenetan, toponimian eta gizarteko egunerokotasunean; 3) helduen ikaskuntza, *corpusaren* kalitatea, ikerkuntza soziolinguistikoa eta motibazioa (Dalmas, Simoni, Dupuit eta Pradeaux, 2010: 33-34).

2006-2010 bitartean lortutako emaitzak Frantziako Gobernuak ontzat emanda, EEP-OPLBri bizitza luzatu zaio eta 2010ean *Cadre Opérationnel 2011-2016 pour la politique linguistique* izeneko plan berria prestatu eta abiatu da, azpititulu esanguratsu honekin: *Helburu nagusia: hiztun osoak. Xede-taldea: belaunaldi gazteak*. Plan horrek 2006ko hiru ardatz beretan sakontzea bilatzen du (EEP-OPLB, 2010: 5).

1.3. Hizkuntza-transmisioren eragileak


XX. mendearen bigarren erditik aurrera euskara berreskuratzeko ahaleginen emaria ebaluatzean bi aldagai gailendu ohi dira: gaitasunaren hedapena eta erabileraren bilakaera. Baina hizkuntza baten transmisioa hori baino gehiago ere bada. Izan ere, lehenengo sozializazioa eta *lehen hizkuntzaren* (L1) ikasketa eskutik helduta doaz, edo, nahiago bada, lehen hizkuntzaz jabetzea sozializazio zabalagoaren atal bat baino ez da (Martínez de Luna, 2009: 13, 18).

Sozializazioan hiru prozesu bereizi behar dira. Lehendabizi, hizkuntzaz jabetzea dago, prozesu kognitiboa alegia. Bigarrenik, soziologikoki eta antropologikoki aztertuta, hiztuna identifikatzen da (nire/gure hizkuntza) inkontzienteki eta halabeharrez eduki linguistikoko horiekin. Hirugarrenik, prozesu afektiboa —positiboa edo negatiboa— dago: euskara *maitea* eta erdara *arrotza*, edo euskara *baliorik gabeko hizkuntza* da pentsatzea, adibidez. Hizkuntzaren sozializazio horren eragile nagusiak honako hauek dira: familia, eskola, komunikabideak eta lagunak; hemen lehenengo hiruei erreparatuko diegu.

Hizkuntzaz blai egiteko lehenengo urratsak familian egiten dira eta, hortaz, familia da eragilerik garrantzitsuena, lehen hizkuntzaz (L1) ari garenean. Hizkuntza hori izango da funtsezkoena, barneratuena eta berezkoena hiztun ororentzat. Ezin da ahaztu lehen hizkuntza euskara duten haur eta gazteak, gaur egun, gutxiengo direla euskaldunen artean; hortaz, euskara ez da barneratuen duten hizkuntza (Martínez de Luna, 2009: 18-19).

Familia bidezko transmisioa: Euskal Herrian (1. grafikoa) hamabost urteko epean (1991-2006), euskararen familia bidezko transmisioa % 19tik % 21era handitu da, 16-24 urteko adin-taldean (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008c); bestela esanda, ume eta gazteen artean pixkanaka handitzen ari da euskara L1 gisa dutenen proportzioa, ordura arte zegoen gutxitzeko joera irauliz.

1. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera Euskal Herrian, adin-taldeka (1991-2006)



Transmisioaren hazkunde hori ez da gertatzen seme-alabei euskara hutsa gero eta gehiago transmititzen zaielako, 16-24 urteko adin-taldean transmisio mota hori hiru puntuz jaisten baita (% 16tik % 13ra). Familia bidezko euskararen transmisioaren igoera, berriz, hizkuntza hori erdararekin —gaztelania edo frantsesarekin— batera gero eta gehiago irakastean datza (% 3tik % 8ra igaroz); kasu horretan euskara eta erdara, biak, dira *lehen hizkuntza* (L1). Hizkuntzaren transmisioaren joera-aldaketa bikoitza antzematen da, beraz, hogeita bost urte baino gazteagoen eta adin horretatik gorako multzoen transmisio-ohituretan. Salbuespena Iparraldean da, non frantsesa hutsaren transmisioak goraka (12 puntu) jarraitzen duen 1991tik 2006ra, 15 urtetik gorakoaren artean (Martínez de Luna, 2011).

Nolanahi ere, familia euskaldunen zeregina ez da mugatzen euskara L1 gisa transmititzera. Familiak, euskaldunak izan zein erdaldunak izan, euskalgintzaren eragile aktiboak ere badira (edo, izan dira), besteak beste ikastolen mugimendua bultzatzen (Martínez de Luna, 2011).

Familia bidez ez ezik, badira beste agente batzuen eskutik ere euskara jaso dutenak, batez ere eskolaren bitartez eta, neurri apalagoan, helduen euskalduntzeari esker. Euskara L2 gisa duten *euskaldunberri* horiei esker batez ere ari dira euskaldunen kopuru absolutuak eta proportzio erlatiboak igotzen Hegoaldean (Euskarabidea Institutua, 2009: 47; Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2005: 68).

Hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioa: aurrekari historiko batzuk ahaztu gabe, euskara hezkuntza-sisteman txertatzeko egungo dinamika XX. mendearen erdialdetik aurrera hasten da, Hegoaldean zein Iparraldean, ikastolen mugimenduari esker (Garmendia eta Etxezarreta, 2009).

Ondoren, Nafarroak eta EAEk hezkuntza ez-unibertsitariorako eskuduntza lortu zutenean, euskara hezkuntza-sistema publikora ere sartu zen, hizkuntza-eredu ezberdinen bitartez: *A eredu*an euskara ikasgaia baino ez da; elebiduna den *B eredu*ak euskara eta gaztelaniaren arteko oreka bilatzen du; *D eredu*a da ikasleak euskarazko irakaskuntzan murgiltzen dituen; Nafarroan oso zabaldua dagoen *G eredu*an ez da euskararik irakasten, ezta EAEko *X eredu* marjinalen ere.

EAEn hiru (A, B eta D) ereduak daude aukeran, hezkuntza publikoan zein pribatuan eta X ereduak salbuespen gisa erabiltzen da oso kasu urrietan. Nafarroan hizkuntza-ereduen aukera osoa edo mugatua dago, eremu soziolinguistikoaren arabera: *eremu euskaldun*ean B edo D ereduak aukerakoak dira edo, bestela, A eredu nahitaezkoa; *eremu misto*an aukera osoa dago; *eremu ez-euskaldun*ean A eredu hautazkoa da edo, bestela, G eredu nahitaezkoa (Euskarabidea Institutua, 2010: 60).

Intentsitate eta abiadura ezberdinekin bada ere, eredu euskaradunen (D eta B) presentzia areagotzen ari da Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan⁵¹. Joera hori oso nabarmena da EAEn: 1997/98 ikasturtetik 2010/11ra D ereduko ikasleen pisua % 36tik % 60ra igo da eta B eredukoak % 18,8tik % 22ra, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011c: 18).

Nafarroan ere euskarak proportzio gero eta handiagoa du Lehen Hezkuntzan: 1996/97 ikasturtean, D ereduko ikasleak % 19,9 ziren eta 2006/07an % 28,8. B eredu ia ez da existitzen. A eredu —eremu ez-euskaldunean hezkuntza publikoak euskaraz eskaintzen duen aukera bakarra— hedatzen ari da: % 15,2tik 1996/97an % 31,6ra 2006/07an (Vilches eta Vilches, 2006; Nafarroako Gobernua, 2011).

Iparraldeari dagokionez, Lehen Mailako euskarazko irakaskuntzan (elebidun edo parekotasun gehi murgiltze-ereduetan) ikasi duten haurren ehunekoa igo da % 24,5etik (2004/05) % 32,3ra (2009/10) (Euskararen Erakunde Publikoa, 2011).

Komunikabideak: euskarazko komunikabideen kontsumoaren inguruan datu eta ondorio adierazgarriak ematen dituzte Zubiri, Retortillo, eta Aierdik (2008: 86, 89-93). Adibidez, datu baikorrenen arabera, komunikabide horiek euskaldunen erdira baino ez dira iristen (% 57,7). Izan ere, euskarazko hedabideek ez omen dituzte asetzen euskal hiztunen premiak, eta euskal hedabideen zabalkunde txikia azaltzeko bi kausa mota bereizten dituzte egile horiek: eskariaren zein eskaintzaren arazoak.

51. Lurralde horien arteko alderaketa zehatzik ez dugu lortu erabili diren iturri estatistikoak homologaturik ez daudelako.

2. EUSKARAREN BILAKAERA ETA EGUNGO EGOERA

2.1. Hizkuntza-gaitasuna

Euskal Herrian 3.015.558 pertsona bizi ziren, 2006an: % 71 EAEn, % 20 Nafarroan eta % 9 Iparraldean (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008a: 199). Horiei gehitu behar zaizkie Konderriko beste 1.640 eta Valle de Villaverdeko 369 biztanle (INE, 2011).

1991tik 2006ra bitartean eta 16 urte edo gehiagoko biztanleriari erreparaturaz, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aipagarria gertatu da (1. taula).


1. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera Euskal Herrian, 16 urte edo gehiagoko biztanleriarentzat (portzentaje bertikalak).					
		1991		2006	
ELEBIDUNAK	Euskal elebiduna: euskaraz hobeto daki erdaraz baino	22,3	7,7	25,7	7,9
	Elebidun orekatua: euskaraz eta erdaraz berdin daki		6,2		7,8
	Erdal elebiduna: erdaraz hobeto daki euskaraz baino		8,4		10,0
Elebidun hartzailea: badakite zerbait euskaraz baina euskaldun osotzat hartzeko bezainbeste ez			7,7		15,4
Erdaldun elebakarra: gaztelaniaz edo frantsesez baino ez dakite			70,0		58,9

Iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazle Sistema (EAS). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2008c). Lanketa propioa.

Erdaldun elebakarren jaitsiera (11,1 puntu) dago, batez ere elebidun hartzaileen mesedean (7,7 puntuko hazkundea), baina baita gainerako elebidunen igoerarako (3,4 puntuz). Elebidun hartzaileen igoera horren arrazoi nagusia hauxe da: hezkuntza-sistemaren bitartez euskara L2 gisa ikastera bideratutako haur asko euskalduntzearen erdibidean gelditu izana; hori da etxetik L1 gisa erdara duten askoren kasua. Izan ere, hezkuntza-sistemaren bitartez soilik —familia bidezko transmisiorik gabe— euskalduntzeko ahaleginek eragin mugatua dute euskaraz gaitasun nahikorik bermatzeko, hainbat kasutan (Gabiña, Gorostidi, Iruretagoiena, Olaziregi eta Sierra, 1986: 23; Sierra eta Olaziregi, 1990: 40-44; Arregi eta Tambo, 2010: 30). Dena den, elebidun hartzaileen artean badaude euskalduntzen saiatu diren heldu asko ere, zuten asmo hori betetzera iritsi gabe gelditu direlarik.

Euskal Herriko datu orokor horiek asko aldatzen dira esparru geografiko batetik bestera: EAE da elebidun eta elebidun hartzaile gehien dituen lurraldea, Iparraldea dator ondoren eta Nafarroa da gutxien dituen (2. grafikoa).

2. grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Herriako lurraldeetan (2006).




EAEn eta Nafarroan 1991tik 2006ra bitartean euskaldunen kopurua hazi da: 6,2 eta 1,6 puntu, hurrenez hurren. Iparraldean, aldiz, euskaldunen portzentajea 10,6 puntuz jaisten da, baina joera hori adin-talde gazteenean iraultzen da lurralde horretan ere. Horrela, elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako biztanleriarengan gertatzen da EAEn, 35 urtetik beherakoengan Nafarroan, eta 25 urte baino gazteagoak direnen artean Iparraldean; hortaz, adinean jaitsi ahala elebitasuna areagotzen da hiru lurraldeetan.

2.2. Erabilera


Kaleko euskararen erabilerrari dagokionez, 1989tik 2006ra bitarteko datuek erakusten dute erabilera poliki-poliki areagotzen doala, Euskal Herriko batez bestekoa: % 11tik % 14ra (Soziolinguistika Klusterra, 2007) (3. grafikoa). Berriz ere, lurraldeen arteko aldea handia da eta Gipuzkoan aurkitzen dira erabilera maila eta horren hazkunderik handienak. Ondoren, Bizkaia dator eta hirugarren Nafarroa. Erabilera-daturik apalenak Arabari eta Iparraldeari dagozkie, eta 2006an bi lurralde horiek berdinduta agertzen dira; hala ere, Arabako joera goranzkoa den bitartean Iparraldekoa beheranzkoa da.

3. grafikoa. Kaleko euskararen erabileraren bilakaera 1989-2006, Euskal Herrian eta lurraldeka (portzentaje bertikalak).



Erabilera mota horren igoera helduekin hasten da eta adinean jaitsi ahala gero eta nabarmenagoa da; horrela, umeez lortzen dute zifrarik altuena: % 21. Adinekoen artean, aldiz, erabilera apalagoa da 2006an 1989an baino; izan ere, belaunaldi horri dagokio Euskal Herrian inoiz existitu den belaunaldirik erdaldunduena (4. grafikoa).


4. grafikoa. Euskararen kale-erabilera Euskal Herrian, adin-taldeka.



Bestalde, euskararen erabilera familian, lagunartean eta esparru formaletan neurtuta, tipologia bat osatu du Eusko Jaurlaritzak, 2006an. Horren arabera, Euskal Herriko biztanleen % 15,3k euskara erdara beste (% 5,4) edo gehiago (% 9,9) erabiltzen du eguneroko jardunean; % 9,8k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago; % 74,9k erdara baino ez du erabiltzen (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2008a: 215).

Ikerlan horrek solaskide motaren arabera ere eskaintzen du erabilera (5. grafikoa): erabilerarik altuena seme-alabekin lortzen da, EAEn eta Nafarroan, baina ez Iparraldean, han erabilera-tasarik handiena gurasoekin gertatzen baita. Anai-arrebekiko erabilera-maila gurasoekikoa baino altuxeagoa da EAEn eta Nafarroan; Iparraldean, aldiz, baxuagoa. Bikotekideen artekoa, anai-arreben artekoa baino apalagoa da, hiru lurraldeetan. Azkenik, gurasoekin euskara gutxien erabiltzen da EAEn eta Nafarroan, baina Iparraldean, aldiz, harreman mota horretan gertatzen da erabilera altuena.

5. grafikoa. Euskararen erabilera solaskide motaren arabera, lurraldez lurralde (2006)



Datu horiek esanguratsuk dira: euskara seme-alabei helaraztea oso barneratuta dago EAEn eta Nafarroan, eta horrexegatik seme-alabak dira euskaraz gehien egiten duten solaskideak, baina ez Iparraldean. Alegia, Iparraldean euskara L1 dutenek aurreko belaunaldiarekin, gurasoekin, erabiltzen dute hizkuntza hori, baina seme-alabentzako transmisioa eteten da. Azken urteotan berpiztu den euskaltzaletasunak oraindik ez du behar besteko pisu sozialik informazio estatistiko horretan nabarmentzeko.

2.3. Gizarte-jarrerak, iritziak eta irudikapenak

Usantza sozial orok bezala, hizkuntzek alderdi objektiboaz gain, subjektiboaz ere badute. Horretaz jabetuta, Bourhis, Giles eta Rosenthal-ek dimensio subjektibo hori

aztertzeke zuten grina galde-sorta berri batean —*subjective vitality questionnaire*— gauzatu zuten (Bourhis *et al.*, 1981). Gizarteak hizkuntzaz dituen jarrerak aztertzeke dimentsio subjektibo hori antzemateko modu posibleetako bat da eta hori egingo dugu hurrengo lerroetan.

2. taula. Euskara ikasteari buruzko jarrerak euskaraz ez dakitenen edo pixka bat dakitenen artean (16 urte edo gehiagoko biztanleria).

	Lurraldea				Adin-taldeak				Jatorria		
	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea	16-29	30-45	46-64	65	Etorkina	Euskal Herrikoa, gurasoak etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai
Bai	5	6	2	4	11	6	2	1	2	8	5
Ez, baina lehenago aritu naiz	23	28	15	8	32	30	20	8	11	34	25
Ez, baina baldintza egokiak izanez gero gustatuko litzaidake	23	25	22	20	26	30	21	17	23	24	24
Ez, eta ez dut ikasteko asmorik	46	40	56	61	26	33	53	71	63	31	42
Ed/Ee	3	2	6	8	5	3	3	3	2	3	5
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal Herriko biztanleriari erreparatuz (2. taula), euskaraz ez dakitenei edo pixka bat dakitenei erreparatuz, ia erdiak dio (% 46) ez dela inoiz aritu euskara ikasten eta ez duela ikasteko asmorik. Jarrera hori are zabalduago dago Nafarroan, Iparraldean, 45 urtetik gorakoen artean eta etorkinen artean. Bestalde, euskaraz ikasten ari ez diren elebakar erdaldunen % 23k ikasi nahiko lukeela dio, horretarako baldintza egokiak izanez gero; gorabehera txiki batzuk tartean, azpimultzo guztietan nahikoa modu homogeneoan banatzen den jarrera da. Beste datu esanguratsu bat euskara lehenago ikasten aritu direnena da: % 23. Izan ere, horiek guztiek *kale egin dute* nonbait ahalegin horretan, orain ez dakitenen edo pixka bat dakitenen artean kokatzen dira-eta (Baxok *et al.*, 2006: 62-70).

Euskara ikasten ari edo aritu direnei eta ikasteko prest egongo liratekeenei (guztira, biztanleriaren % 36ri) galdetu zaie ikasteko duten arrazoibidez. Erantzun motarik aipatuenak identitarioak dira (% 70): % 41ek dio «*Herri honetako hizkuntza delako*», % 19k «*Euskal herritar sentitzen naizelako*» eta % 10ek «*Nire erroak aurkitzeko*». Horrezaz gain, beste mota bateko arrazoiak ere aipatzen dira: komunikatiboak «*Euskaldunekin komunikatu ahal izateko*» (% 34); lan-arrazoiak «*Lana aurkitzeko edo lanerako behar dudalako*» (% 17); familiakoak «*Nire seme-alabak ikasten ari direlako*» (% 17); eta, azkenik, gizartean integratzearenak «*Herri honetan integratzeko eta baztertua ez sentitzeko*» (% 10)⁵² (Baxok *et al.*, 2006: 63-64). Arrazoi pragmatiko horietatik, *derrigortasun soziala* —eta ez oso hedatua— adierazten duena lanerako beharrarena litzateke, besteak hautazko aukeraren edo borondatearen gainean eraikiak izanik.

52. Batura ez da 100, hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

3. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK ETA BIDEGURUTZEA

Honaino, euskararen egoeraz eta bilakaeraz zenbait zertzelada. Gehienbat horietan oinarrituta, euskararen egoerak dituen argi-ilunez eta aurrera egiteko hizkuntza horren bidegurutzeaz arituko gara hurrengo lerroetan.

1. Ofizialtasuna. Hegoaldean euskarak ez du gaztelaniaz jakiteko dagoen derrigortasun konstituzional bera eta, hortaz, estatus apalago batean gelditzen da nagusia den hizkuntzarekiko. Hortik abiatuta, EAE osoan eta Nafarroako zati batean bigarren mailako ofizialtasuna lortu du. Nafarroako gainerako eremuetan euskarak ez du halako onarpen juridikorik eta, ondorioz, ez da aplikatu behar *Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak* ezartzen duen hainbat eginkizun. Beste horrenbeste gertatzen da Iparraldean eta Gaztela eta Leongo eta Kantabriako administrazioen pean dauden, hurrenez hurren, Trebiñu Konderrian eta Valle de Villaverde udalerrian; lurralde horietan euskarak ez du inolako estatus ofizialik eta hitzunei ez zaie inolako eskubiderik aitortzen.

2. Hizkuntza-politikak. Euskal Herrian garatu diren hizkuntza-araudiak ezberdinak dira lurraldetik lurraldera, betiere eremu bakoitzean euskarari dagokion ofizialtasun-mailaren menpe. Lege eta araudiak ezarritako baldintzek ez ezik, borondate politikoak ere bultzatzen edo mugatzen du lekuan lekuko hizkuntza-politika. EAEn eta Nafarroako eremu euskaldunean ari dira hainbat neurri implementatzen, eta horien inguruko balioespenak muturretik muturrera doaz sentsibiltate politikoan eta uste ezberdinen arabera; horregatik, juridikoki aitortzen diren eskubideak bermatzea zaila gertatzen da, zenbait kasutan. Iparraldean eta Nafarroako eremu misto eta ez-euskaldunean zenbait neurri edo programa aplikatzen eta ekimenak gauzatzen saiatzen ari dira eragile ofizialak edo euskalgintza, euskararen estatus legalaren alde ez daudenek uzten dituzten zirrikituak baliatuta. Hizkuntza-politikez, oro har, nabarmendu behar da *Europako Gutunaren* jarraipenerako Aditu Batzordeak gomendio ugari egiten diela Espainiako estatuko, Nafarroako eta EAeko agintariei, nor bere eremuan euskararen aldeko neurriak hartu eta indartu ditzaten esanez.

3. Gaitasuna eta erabilera. Euskaraz gaituak diren biztanleen kopurua eta proportzioa gorantz doaz Euskal Herrian, gehienbat gazteen eta umeen artean; horren ondorioz, iraganeko gainbehera irauli da eta joera-aldaketa hori berriki antzeman da Iparraldean eta hamarkada batzuk lehenago Hegoaldean. Bepizkunde hori, batez ere hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioari esker ari da gertatzen (euskara: L2) eta neurri apalagoan familia bidezko transmisioari esker (L1); gehienbat familia mistoen hazkundearen eskutik.

Euskara biziberritzeko herritar euskaldunak gero eta gehiago izatea ezinbesteko baldintza bada ere eta hazkunde horrek euskararen zerumuga zabaltzen badu ere, ezin da ahaztu gaur egungo haur eta gazte euskaldunen artean euskara L2 dutenak gehiengoa direla. L1 direnek ez bezala, *euskaldunberri* horiek, oro har, gaitasun mugatuagoa dute euskaraz erdaraz baino, eta, muga horrek eraginda, horien zati batek euskara baztertu eta erdaraz bizitzeko joera izaten du.

Euskaldun izateko euskaraz gaitasun nahikorik ez duten elebidun hartzaileak dira azkarren hedatzen ari direnak, eta horrek ematen du zer pentsa. Batetik, elebidun hartzaileen hazkunde hori *nahi eta ezin* bezala uler daiteke: saiatu, bai, saiatu dira euskalduntzen, baina helburua erdietsi gabe. Bestetik, argi dago euskara bigarren hizkuntza bezala (L2) ikasteak asko laguntzen duela euskaldunen kopurua hedatzen eta euskaldunak ez diren elebidun hartzaileen elebitasun mugatuak ere euskararen erabilerarako zenbait aukera berri zabaltzen duela; adibidez, ekimen jakin batzuk euskaraz burutu daitezke, ozta-ozta bada ere denek ulertzen dutelako.

4. Dimentsio subjektiboaz. EAEn zein Nafarroan euskarazko gaitasunaren transmisiorako ahalegin argia antzematen da, baina familiako helduekin (anai-arreba, bikotekide eta gurasoekin) dagoen erabileraren proportzioa seme-alabekin dagoena baino murriztagoa izateak honako mezu inplizitu eta etsigarri hau helarazten die haur horiei: *euskara umeen hizkuntza da eta erdara helduena, gizartean balio duena*.

Euskararen gizarte-irudikapenekin jarraituz, euskaldunak ez direnen ia erdiak ez du (izan) euskara ikasteko interesik, eta horrek erakusten du gizartean euskararen premia edo behar handirik susmatzen ez dela. Bestalde, erdaldunen laurdenak ongi ikusten du euskara ikastea, eta horrek agerian uzten du gizartean hizkuntza horrekiko dagoen nolabaiteko atxikimendua.

Euskararen aldeko jarrera eta portaera sorrarazten dituen eraginik indartsuena, gaur egun, euskal herritar identitatearena da, batez ere euskal nazionalismoaren ideologiapean. Horrexegatik eta gizarteak euskararen bestelako premiarik asebetetzeko beharrik sorrarazten ez duenez, abertzaletasunarekin bat egiten ez duenak, salbuespenak salbuespen, ez du hizkuntza horren aldeko motibazio sendorik.

5. Gizarte-baldintzen eta hizkuntza-egoeraren arteko oreka. Arestian esandako guztiak kontuan izanda, ez dirudi euskarazko gaitasunean eta erabileran lurralde batetik bestera dauden egoera zein joera ezberdinak kasualitatearen ondorioa direnik. Aitzitik, lekuan lekuko egoerak eta joerak bat datoz, neurri handian, eremu bereko euskararen inguruko marko juridikoaren baldintzekin, hizkuntza-politika ofizialaren ausardia-mailarekin eta euskalgintzaren eraginkortasun eta kemenarekin.

Euskara biziberritzeko abian dauden ekimen asko egokiak dira; hala ere, horietako batzuk findu eta zabaldu beharko dira, seguru asko, ahaleginen eraginkortasun zorrotza lortzeko.

6. Egungo ahulezia nagusia iritzi publikoaren baitakoa. Baliteke euskararen defentsan egun aurki daitekeen arriskurik handiena botere-harremanen ondorioz gertatzen dena izatea: *bortizkeria sinbolikoa*, Pierre Bourdieu-k finkatu zuen kontzeptua, hain zuzen. Kontzeptu hori hizkuntzen eremura ekarrita, esan dezakegu euskararen komunitateak ere pairatzen duen bortizkeria dela. Alegia, hizkuntza gutxituaren komunitateak men egiten dio hizkuntza nagusiari bere planteamenduetan eta mendetasun horrek hizkuntza gutxituko hiztuna hizkuntza nagusiarekin bat egitera —erabiltzera— darama, joera hori portaera automatiko bihurtzeraino. Gainera, nahi izanda ere, joera eta portaera horiek iraultzea zaila da (Suay eta Sanginés, 2011: 11). Hizkuntza-mendetasun hori nabaria da euskararen

kasuan; adibidez, hainbat harreman-publikotan legeak euskaldunen hautu librea babestu arren, euskaldunek —lotsak edo nolabaiteko beldurrak eraginda— erdaraz egitea hobesten dutenean.

Bada, bestalde, gizarte osoaren —euskaldunaren zein erdaldunaren— baitakoa den beste gabezia bikoitza: a) hizkuntza berreskuratzeaz dagoen ezjakintasuna edo, bestela esanda, ahalegin horrek duen konplexutasunaz jabetu ez izana; b) euskararen aldeko funtsa eta motibazio berriak aurkitzea: *euskara zergatik eta zertarako* ongi hausnartu eta oinarritzea, orain arteko funtsa identitarioa ez ezik, gizarte osorako balioko duen ikuspegi berri bat.

Azken buruan, euskararen errealtatearen hautematea eta irudikatzea gidatuko eta bideratuko dituen egitura kognitibo (*framing*) berri bat behar du (Martínez de Luna, 2010: 53-67) euskal iritzi publikoak —euskaldunak zein erdaldunak—.

Eta iritzi publikoa eratzean komunikabideek duten horren eragin handia aintzat hartua, deigarriak bezain larriak dira euskarazko komunikabideen mugak eta gabeziak, eskaintzan zein eskaeran; izan ere, aipatu berri ditugun iritzi publikoaren baitako ahulezia horiek zuzentzea ezinezkoa izango da komunikazio egokirik gabe.

7. Etorkizuna airean? Beti piztu litekeen zalantza, hauxe da: ea ahalegin horiek guztiak nahikoak diren euskara bezalako hizkuntza bat normalizatu ahal izateko. Baina, etorkizuna ez dago airean, bere hiztun-taldearen eta hizkuntza-komunitatearen eskuetan baizik:

Hizkuntza ahulenek ere beren lekua izan dezakete. Horretarako hizkuntza-komunitate horren hizkuntza propioa biziraunarazteko borondatea azkar izan behar da, eta hori lortzeko politika egokia jarri behar da indarrean (Coyos, 2010: 179).

BIBLIOGRAFIA

- Arregi, A. eta Tambo, I. (2011): *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. Eraitzen txostena eta eraitzen analisia. Lehen Hezkuntzako 4. maila*, Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI), <<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/indexargi.htm>> (azken kontsulta: 2011-08-06).
- Barandiaran, A. (2009): "Linguistic Policy and Controversies relating to Basque in the Historic Community of Navarre (2000-2009)", in X. Irujo eta I. Urrutia (arg.), *A Legal History of the Basque Language (1789-2009)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia-San Sebastián, 311-326.
- Baxok, E.; Etchegoin, P.; Lekunberri, T.; Martínez de Luna, I.; Mendizabal, L.; Ahedo, I.; Itcaina, X. eta Jimeno, R. (2006): *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza - Sociedad Estudios Vascos, Donostia-San Sebastián.
- Bilbao, P. eta Casares, P. (2010): "Hizkuntza eskubideen eta lege estatusaren egoera Euskal Herrian", *Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (HIZNET)*. Graduondoko berezko titulua (online), Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco eta Asmoz Fundazioa.
- Bourhis, R.; Giles, H. eta Rosenthal, D. (1981): "Notes on the construction of a 'subjective vitality questionnaire' for ethnolinguistic groups", *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 2, 145-155.

- Comité de Expertos sobre la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias (2008): *Aplicación de la carta en España. Segundo ciclo de supervisión*. Consejo de Europa, Estrasburgo (ECRML [2008] 5).
- Coyos, J.-B. (2010): "Hizkuntza-ukipena", in A. Zarraga (arg.), *Soziolinguistika Eskuliburua*, Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco eta Soziolinguistika Klusterra. Vitoria-Gasteiz.
- Dalmas, D.; Simoni, M.-L.; Dupuit, J.-S. eta Pradeaux, H. (2010): *Rapport d'évaluation de L'Office Public de la Langue Basque-Euskararen Erakunde Publikoa*, Paris (lantaldearen, argitaratu gabeko).
- Euskarabidea Institutua - Instituto Navarro del Vascongado (2009): *Euskararen egoera Nafarroan-2008 / La situación del euskera en Navarra-2008*, Nafarroako Gobernua, Pamplona-Iruñea.
- Euskarabidea Institutua - Instituto Navarro del Vascongado (2010): Gobierno de Navarra, <<http://www.euskarabidea.es/>> (azken kontsulta: 2010-12-11).
- Euskararen Erakunde Publikoa - Office Publique de la Langue Basque (2010): *Cadre Opérationnel 2011-2016 pour la politique linguistique*, Baiona-Bayonne (argitaratu gabeko dokumentua).
- , (2011): <<http://www.mintzaira.fr/eu/jarduerak/euskarazko-irakaskuntzaren-garapena/eskaintzaren-garapena.html>> (azken kontsulta: 2011-07-25).
- Gabiña, J.; Gorostidi, R.; Iruretagoiena, R.; Olaziregi, I. eta Sierra, J. (1986): *E.I.F.E. La enseñanza del Euskera: Influencia de los factores*, Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Garmendia, M. K. eta Etxezarreta, I. (2009): "Ikastola", *Aunamendi Eusko Entziklopedia* (on-line), Eusko Ikaskuntza, <<http://www.euskomedia.org/aunamendi/73307>> (azken kontsulta: 2011-07-25).
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia (2011): *Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna euskarari aplikatzearen hirugarren ebaluazioa*, Hizkuntza Eskubideen Behatokia, Pamplona-Iruñea.
- , (2007): *Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna euskarari aplikatzearen bigarren ebaluazioa*, Hizkuntza Eskubideen Behatokia, Pamplona-Iruñea.
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia: *Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Karta*, <<http://www.behatokia.org/default.cfm?atala=legeria>> (azken kontsulta: 2011-07-25).
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, Eusko Jaurlaritzaren, Vitoria-Gasteiz.
- , (2005): *Hizkuntza Politika Aurrera Begira. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa*, Eusko Jaurlaritzaren, Vitoria-Gasteiz.
- , (2008a): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritzaren, Vitoria-Gasteiz.
- , (2008c): *Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema (EAS)*, Eusko Jaurlaritzaren, Vitoria-Gasteiz, <http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak> (azken kontsulta: 2010-12-13).
- , (2011a): *Elebide zerbitzua* (webgunea), Eusko Jaurlaritzaren, <http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak> (azken kontsulta: 2011-07-25).
- , (2011b): *EBPNren Marko Orokorra. Esparrua Helburua Estrategia Ekintza*, Eusko Jaurlaritzaren, <<http://www.euskara.euskadi.net/r59-733/eu/>> (azken kontsulta: 2011-07-29).
- , (2011c): *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak* (webgunea), <<http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/eu/euskararen-egoerari-eta-bilakaerari-buruzko-adierazleak-indicadores-de-situacion-y-evolucion-del-euskera/>> (azken kontsulta: 2011-07-29).

- Martínez de Luna, I. (2009): “Zelako euskaldunak, halako kopuruak..., edo Soziologiaren erantzuna”, in K. Alkorta eta E. Barrutia (arg.), *Transmisinoa eta erabilerea*, Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbo, 11-42.
- , (2010): “Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharrianetara”, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, **76**, 53-67.
- , (2011): “Análisis contextual de la revitalización del euskera en el ámbito familiar”, *Caplletra*, **51** (argitara bidean).
- Nafarroako Gobernua (2011): *navarra.es* (webgunea), <http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Estadistica/> (azken kontsulta: 2011-07-29).
- Portalingua (01-07-2011): “Le projet de loi sur les langues régionales bien mal parti”, *Portalingua. Observatorio de las lenguas en la sociedad del conocimiento* (blog), <<http://www.portalingua.info/es/actualites/article/langues-regionales/>> (azken kontsulta: 2011-07-19).
- Sierra, J. eta Olaziregi, I. (1990): *E.I.F.E. 3. La enseñanza del euskera: Influencia de los Factores*, Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Soziolinguistika Klusterra (2007): *2006ko hizkuntzaren kale erabileraren neurketa*, <<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/3563>> (azken kontsulta: 2011-08-04).
- Suay, F. eta Sanginés, G. (2011): “La seducción de les llengües o el llenguatge de la seducción”, *Udaltop. Euskara zerbitzuen III. Topaketak* (Lasarte-Oria, 2011/04/08), <<http://www.udaltop.com/dokumentazioa/ponentziak>> (azken kontsulta: 2011-08-25).
- Vilches, C. eta Vilches, M. (2006): “Euskarak Nafarroan izan duen bilakaeraren adierazle soziolinguistiko batzuk”, *Bat Soziolinguistika*, **58**.
- Zubiri, H.; Retortillo, A. eta Aierdi, X. (2008): “Euskal hedabideak Euskal Autonomi Erkidegoan”, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, **68**, 85-101.

Azterlan honetan jasotako ekarpen teorikoak, interesgarri bezain baliagarriak izango dira euskal Estatuaren aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu bilduma honetan agerian geratzen da Estatu delat alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarrizko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar Estaturen multzoan Estatu berri bat eraikitzeko.

